Paulo Iztueta Armendariz

Testu hautatuak euskal estetikaz

Aitzol
Lauaxeta
Orixe

Utriusque Vasconiae

© Paulo Iztueta
© Utriusque Vasconiæ
Lehen argitaraldia: Donostia, 2002ko abendua
ISBN: 84-932654-4-6
Lege-gordailua:
Azala: Ur Apalategi Idirin
Irudia eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE
Ategorrieta Hiribidea, 3-3. 20013 Donostia
Tel.: 943-270433

Banatzailea: BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa)
Tel.: 948-302239

Paulo Iztueta Armendariz

Testu hautatuak euskal estetikaz

Aitzol
Lauaxeta
Orixe

UTRIUSQUE VASCONIAE

Liburu hau Ur Apalategi Idirinek zuzenduriko
KRITIKA LITERARIOA
sailean argitaratzen da

AURKIBIDEA

SARRERA. *Paulo Iztueta* 7

ERANTZUNA (1932). *Lauaxeta* 15

EUSKO ELERTI-KERA BEREZIA (ESTETIKA, 1933).
Aitzol 37

1. Eusko irudien gaiak 40
2. Eusko kutsu duten irudiak 41
3. Irudi-kera maite kantetan 42
4. Irudi-kera eskale-talde kantetan 44
5. Gure irudiok dantza-kantetan 46
6. Ogibide-kanta-irudiak. Lanean ari zirala ere... 48
7. Zergatik ote ain izadi-irudi-zale olerkari-errikoia? 50
8. Irudi-oldozkunak alkar zer ikusirik bai ote? 51
9. Apaldien taiukera 52

ESTETIKA (1951-55). *Orixe* 57

I. Eder eta antze 59
1. Eder-suma 59
1.1. Ederra zer da? 59
1.2. Izadian gauza ederrik bai ote? 61
2. Asmatutako ederra 63
2.1. Ederraz zenbait adiera 64
2.2. Ederrari beste zear-begiratu bat 67

II. Antzearen jo-mugaz aburuak Grezian 71
1. Erromarrak 72
2. Platondarraioak 72
3. Erdi-mendean eta pizkunde-mendean .. 74
4. Oraintsuko mendean: Hegel 75

III. On eta eder 77

1. Ederra gauzen kera 80
2. Antzera egitea 82

IV. Egi ta eder 87

V. Antze eta eder 93

1. Maite ta eder 93
2. Erdi-bearra 97
3. Zoraldi ta eder 98
4. Antzearen jo-muga edo, aurpegiz nora-bait 101
5. Antzea bere jabe 105
6. Croce'ren argibide bikaiña 109
7. Argitasuna 113
8. Argialdia barnemin aldia 115
9. Erdi-aldia 117
10. Fr. Luis de Leon 119
11. Izadiaren ukitua 119
12. Begiztaldia (begiratu soila) 122
13. Batasuna 124
14. Irakurtzea 127
15. Zenbait eder-era 128
16. Ele-ederra 131
17. Eder-iritzia 135

Sarrera

Trilogia baten barruan prestaturik doakizu, irakurle, hiru euskal egile klasikoen testuez osaturiko liburu hau *Kritika Literarioa* sailean. Lehen liburukiak *Euskal literaturaren historia laburra* du izena, eta hemen Orixek euskal literaturaren historiaz egindako lanak biltzen ditut. *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36*) deitzen zaion bigarren liburukian gerraurrean euskal literaturaren gainean ematen den eztabaida aberatsa harrotzen dut, une hartan indarrean zeuden literatur iritziak jaso eta aztertuz. Liburu honen bukaerara iristean, konturatu naiz, orduko eztabaida hura bere osotasunean ulertua izan dadin, beste hirugarren argitalpen bat paratu beharra neukala, irakurleak iturri zuzenetik jakin dezan kritikari nagusiek sostengatzen dituzten tesiak zein irizpidetan oinarritzen diren.

Helburu soil baino ezinbesteko horixe betetzera dator *Testu hautatuak euskal estetikaz* izeneko liburutxo hau. Gainera, testuok irakaskuntza-mundurako tresna txit baliagarria izan daitezkeelakoan nago, noski baino noskiago. Jadanik gurean klasikoak diren hiru egile ezagunen testuak hautatu ditut. Gehiagorenak ere ekar zitezkeela? Beharbada, bai. Nire azalpenerako, ordea, aski izan ditut

Lauaxeta, Aitzol eta Orixeren izenak aiputan hartzea, besteak beste, horiexek izan zirelako euskal estetikaren gainean beren hausnarketak egin eta argitaratu zituztenak eta, bidenabar, baita beren inguruan nolabaiteko joera edo eskolak sortu zituztenak ere. Horien testuak irakurriz gero, errazago ulertuko dira gerraurreko euskal literaturgintzan nabarmendu ziren ildo berriak –edo zaharrak, edo zaharberrituak–, herri-literaturaren eta literatura landuaren arteko zein literatura klasikoaren eta modernoaren arteko dikotomia antzeko zerbaitetan islatu bide zirenak. Arazo honetaz ez natzaizue batere luzatuko, *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36*) liburuak horretaz baitihardu.

Aurrekoak esanda, natorren hiru iturri hauen testuingurua hurbilagotik kokatzera. Hiru egile dira, hiru lekuko eta, esango nuke, baita lehen mailako hiru protagonista ere. Lauaxeta eta Aitzol gerratean hilak ditugu, balek ebakita; hirugarrena –Orixe–, erbeste luzea ezagutu eta gero. Egile hauen saioak dakartzagu hemen, baina ez kasualitatez, zeren gerraurrean eman zen literatur loraldian –poesiagintzaren esparruan, batez ere–, horiek izan baitziren beren bidea markatu zutenak, edo, bederen, markatzen ahalegindu zirenak. Nolabait esateko, hiru literatur joera nagusi ikusi bide ditut formulatuak orduko literatur kritikagintzan edota, orduko terminologian esanda, estetikan.

Lauaxetak, bere lehen poema-liburuak izenburuan dakarren bezala, bide berriak irekitzeko lehen ahaleginak egiten ditu, kanpoko iturrietatik forma modernoak hartu eta bertako literatur tradizioan txertatuz. Laukizkoak literaturari buruzko bere ikuspegia egunkarietan sortutako eztabaida-giroan agertu zuen, ez berez bere horretara jarritako lan sistematizatu batean. Bero-beroan egina da, bai, baina burua hotz eta ideiak argi dituela. Orixek, 1932ko irailaren 4an *El Día*-n argitaratutako artikuluan,

“Maitale kutuna” olerkian –hemen zehazki– frantses eskolari sobera atxikiriko “itxurakeria” ikusi bide zuen eta, ondorioz, klasikoen bidetik jarraitzeko aholkua luzatzen zion egileari: “Prantsesak itxuraren eta itxurakerien atzetik ibili dira aspaldi ontan, eta buruz ongi iantzia ta sakon ikasia ez dagona lilluratu egiten dute. ‘Lauaxeta’k tankera ontakorik au bakarra egin ba lu, ez nion esango diodanik; baina bere liburuan geitxo ditu, ta gure gaztediari mesede baino kalte gehiago egin lezaiote. Ameszalea ta gaizberatxa agertu zaigu adiskide gazte au. Antziñateko poeta iatorretatik etzaio ezer aundirik itsatsi. Aien zaina ta osasuna besterik da. Aiek bezelakorik ez da sortu, ta sortzen direnik onenak, aien antzeko izango dira. Etzuten alare guziak tankera bat, ez eskola edo iarraipide bat. Guziak buruz ta zentzuz iokatzen ziran. Aien eskola zentzu eskola zan. Andik onantzakoak geienak zentzu gabe batzuk izan dira ametsa, negarra ta irudikeria daritela”.

Lauaxetak oporretatik itzultzean ihardesten dio kritikariari, *Euzkadi* egunkarian, hain zuzen, 1932ko urriaren 14an hasi eta 20an bukatu, izenburutzat “Erantzuna” daraman seiko artikulu-andarekin. Poeta sarituak bere erantzunean jakinarazten dionez, klasikotasunaren baitan edukia eta forma batera doazenak dira eta, zentzu honetan, berak autore moderno batzuk guztiz klasikotzat jotzen ditu, ez lehengoak bakarrik, baita oraingoak ere. Delako “itxurakeria” horretan, bada, forma hutsa ez ezik, edukia ere inplikaturik legoke.

Eztabaida bera baino interesgarriagoa da, agian, handik eratortzen den ondorioa: alegia, Orixeren zirikada aitzakia ezin aproposagoa gertatzen zaiola ordurarte formulatu gabe zeuzkan bere literatur irizpideak mahai gainean ezar zitzan. Honela, erantzuna Orixeri zuzendua bazihoakion ere, azken finean, hartzaileak euskal literaturazale guztiak izan ziren eta eztabaidak sakontasunean asko irabazi zuen.

Lauaxeta modernoari Orixe klasikoaren eredua kontrajartzeko joera zabaldu izan da. Ordurako Orixek bere literatur irizpideak azalduak zituen hainbat lekutan, zehazki, Durangon "Euskal olerkitzaz" emandako bi hitzaldietan, *Euzkadi*-n 1924az geroztik euskal liburu berrien gainean argitaratutako hainbat artikulutan eta, oroz gainetik, *Euskal Esnalea* aldizkarian zatika argitara emandako *Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra* saioan. Euskal literaturaren esparruan zer balioetsi zer ez, Orixek bere iritziak aski finkatuak zeuzkan XX. mendeko hirugarren hamarkada hasi baino lehenago. Nolanahi ere, hemen argitaratzen dugun *Estetika* saio honen zatirik gehiena –zazpi atal- jadanik 1934rako burutua bazuen ere eta horietako lehen atala, "On eta Eder" *Yakintza*-n argitaratua, bere osotasunean *Euzko-Gogoa*-n baino ez da agertuko 10 emanalditan 1951-55eko epealdian. Horregatik, gerraurreko eztabaida literario hartan, ingurukoak kontra ala alde izan, Orixek bazekien zertaz ari zen kritika-lanetan bere iritziak agertzen zituenean, garbi zeukan zer zen berarentzat klasikotasuna, zer zen mamikoa eta zer azalekoa edo itxurazkoa, zer modakoa eta zer ez-modakoa. Gertatzen dena da, Lauaxetak klasikotzat dauzkan autore moderno batzuk, Orixek ez dauzkala halakotzat.

Aitzolen kasua zerbait desberdina delakoan nago, hau literaturaren mundura etorri, misio-lanetan hainbat urte egin eta gero etorri baitzen, *Euskaltzaleak* elkartearen eskutik, hain zuzen. Egia esateko, gerraurreko urteetan euskal kulturan erabat murgildurik ikusiko dugu, kulturgintzaren eta, are gehiago, ahozko zein idatzizko literaturgintzan gidari gisa jokatuz botere-guneen babesean. Orokorrean, euskal kulturaren inguruan, 150 artikulu labur argitaratu zituen 1934-36ko epealdi estuan *El Día* eta *Euzkadi* egunkarietan. Literaturaren arlora etorrita, guztira 11 hitzaurre kontatu dizkiogu, horietatik 5 *Euskal Olerkiak* bildumetan eginak, eta beste 6ak aldiz-

karietan (*Eusko Ikaskuntzaren Deia*-n, *Yakintza*-n eta *El Libro de Oro*-n). Baina Aitzolen euskal literaturari buruzko guztietan oinarrizkoena, inolako zalantzarik gabe, "Eusko olerti-kera berezia (estetika)" izeneko lana da, bi argitalpen ezagutu zituena, lehenengoa 1933an, *Eusko Olerkiak* bildumako IV. tomoan hitzaurre gisa datorrena, eta bigarrena 1934an, *Yakintza*-ko 14. zenbakian artikulu gisa argitaratzen dena. Testu hauxe da, hain zuzen, hemen dakarguna. Lan honetan euskal estetikaren berezitasuna defendatzen du, herri-poesia zaharrean erabili izan dena, zeinetan euskal poetak izadia eta bere ingurua atzeman, bizi eta irudikatzeko modu berezi-berezia erakusten baitu, dena hizkuntza sotil eta errazean adierazia. Erabiltzen den teknika aski sinplea da: lehenik irudia agertzen da, eta segidan pentsamendua dator. Honela elkartzen dira iruditeria eta mezua.

Poesi mota hauxe baita Aitzolek bultzatzen duena, pozikarren agurtzen ditu eta aupatzen eredu horretara moldutako poema sarituak, hala nola, Frantzisko Etxeberriaren "Bost lore" 1934ko IV. Olerki-Lehiaketan eta Iñaki Otamendiren "Giza andiña" eta Angel Sukiaren "Eusko apaizgaiarena" 1936ko VII. Olerki-Lehiaketan. *Eusko Olerkiak*-eko IV. bildumari egiten dion hitzaurrean esaten duenez, "Bost lore" poema, bertan aurkitzen diren euskal kutsuko irudiengatik bakarrik ere izan zitekeen sarigarri. Orobat, beste bi poema horiei ere darien euskal usaina goretsiz, "Revasquización del pensamiento literario" izeneko bere azken artikuluan (1936-07-18) hauxe idatziko du belaunaldi berri honek irekia omen duen bideaz: "Nuestros vates actuales, prestigios de nuestro renacimiento literario, no habían introducido hasta ahora en sus creaciones los destellos peculiares de la expresión poética euskaldun. Ni aun el mismo 'Lizardi', que tantos aciertos tuvo en su afán creador de abrir nuevos cauces al euskera literario y de injertarle veneros del vigor genuino

de nuestro idioma, consiguió ni apreciar ni expresar la imaginativa y la inspiración euskaldun según exigía el genio privativo de la belleza racial. Son los nuevos creadores de la nueva generación literaria, cuyos representantes acaban de aparecer ahora, los que restituirán a la poesía culta el matiz peculiar de la estética nacional vasca".

Aitzolek berak poesi mota horri euskaraz "herrikoia" deitu izan zion eta, orokorrean, Lizardik eta Orixek hobesten zuten poesia landuaren kontrakarrean ulertu izan zuen, pixka bat herri-poesia zaharraren eta bertsolaritzaren ildotik.

Behin puntu honetara heldu eta gero, esateko moduan gaudela uste dut gerraurrean poesiagintza ulertu eta juzkatzeko hiru joera bederen nabarmentzen zirela: hots, euskal poesia atzerriko ekarriez berritzeko Lauaxetaren ahalegina, Orixeren molde klasizista eta, azkenik, Aitzolen poesia populista. Modernotasunaren eta klasikotasunaren arteko dikotomia alde batera utzita, azken batean, Lauaxeta eta Orixe, berdin Lizardi, bat etorriko dira poesia landu eta igoaren alde jokatzean eta, maila honetan, garbiki aldendu egiten dira Aitzolek aldarrikatzen duen herri-poesia hertsiki tradizionaletik. Baina honek ere izango ditu bere aldekoak, horien artean Jautarkol, sasoi batez *El Día*-n kritika literarioak egiten dituen huraxe bera. Hauetaz guztiaz xehetasunez mintzatzen bainaiz *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)* lanean, ez dagokit ezertan gehiago luzatzea.

Hiru lan aurkezten zaizkizu hemen, irakurle. Baina ohartuko zinenez, bistakoa baita, ez dira maila bereko lanak ez luzeran, ez trataeran. Eginak izan ziren garaian ere ez ziren asmo berarekin eginak izan. Asmoetan zein helburuetan saiotzat har daitekeen bakarra, uste dudanez, Orixerena da. Baina joera jakin baten aldarrikapena egiten duten aldetik guztiz adierazgarriak atzematen baititut, horrexegatik azaldu ditut hiruak saio gisa.

Orain zu, irakurle, bakoitzarena irakurri ondoren, zure irakurketa autonomiaz egiteko moduan zaude.

Paulo Iztueta Armendariz

Erantzuna

Esteban Urkiaga “Lauaxeta”

Egun batzuk joan jataz "Orixe"ren idazki bati oar bat erantsi neutsola, baiña lan askotan zear nabillen ezkero, neure asmoak ezin bete edonoiz. Ordu luzeak ez dodaz idazteko, astegunetan lan eta jai egunetan lan, aberriak beragan lotua narabil!

Esanak betetuteko ostera, orain asiko naz gai aretzazko zertzeladetan. "Orixe" jaunak olerkiak eta olerkariak zirikatu gura dauz. Gogorki bere oarrak idatzi daroazala batek baiño geiagok esan daroa. "Dogmatizando" antzera diñarduala. Baiña kukurru orreik, idazle ori ezagututen dogunak, ez doguz arrokeritzat jasoten, ezta bera lakorik ez dagoalako eupadatzat. Bakoitzak bere izakerea dauko, batzuk milinga eta itxura naiakoak dira, besteak arro-arro idazten dabenak.

Napoleon buruzagiari itaun bat egin eutsen: gizaldietan izan diran buruzagietan, nor burutzat autetsiko zeunke? Eta Napoleonen ustez iru baiño ez dira izan, ez bere izango, buruzagi izena merezi ebenak. Iru orrek nortzuk ete ziran jakin miñez, itaungilleari agotik atera eutsoezan. Guztien buru Anibal eta Cesar ziran. Eta irugarrena? Napoleonek ez eban olakorik azaldu nai, apala bere ez zan baiña. Azkenean itzetik eldu eutsen, bai? eta erantzun eban: Irugarren buruzagia nerau.

Eta berak esan ebanari erdiak baietza erantsiko deutso. Ez dalako Napoleonen antzekorik amagandik sortu.

* * *

Lirikan nortzuk ziran klasiko itaundu neutsan "Orixe" jaunari, orren goikotzat eukazan ezkero klasikoak. Neure obenik andiena idazle orren ustez "antziñako poeta jatorretarik ez zaio ezer aundirik itsasi" itzak ziran.

Ez dakit askorik edo gitxirik itsasi jatan, baiña antziñekoen artean lirikan klasiko gitxi dala ederki dakit. Zenbat. "Orixe" jaunak azaldu deustaz?

Bi baiño osoan ez dauz aurkituten: Dabit eta Fray Luis de León. Urrena nor? Ez dakigu, ba. Uste neban ludiko elertietan beste batzuk be ba zirala. Niretzat Francen dago klasikotan klasiko dan olerkari bat. Eta liriko ganera. "Orixe"k ez dauala ezagutzen edo burura ez jakola etorri neuri erantzun deustanean? Nik ez daukot orretzazko errurik. Baiña neure berbak ez dabe itzalik izango idazle orrentzat, ezta bere orri jarraituten deutsenentzat. Jo dagidan Menendez y Pelayo jaunaren babespera, arexek lagunduko deust eta. Orain urte batzuk Santanderreko idazle onen olerkiak irakurten nengoen eta euren arteko bat, Chenier idazleari opaldua zan. "Divino" deituten eutson olerkari orri, prantzitar olerkariari.

Andre Marie Chenier lako olerkari asko ez dagoz ludion. "Espetxean zan andereño bati". "Ilzorian zan beste gazte bati". "Elegies" idaztian diran gaiak artu egizuz eskuetan eta esango deustazu klasiko nor dan. Platon neurtitzetan ez zan izan Chenier bezain "sophrosyne"tsua.

Baiña Dabit eta Fr. Luis de León ezeze beste batzuk ba dira or-emen. Euren doaien jaube diranak, klasikoak ba dira. Foscolo, bere "Illobiak" deritxon olerki luzean eta amaulakoetan, klasikorik gorengoa dozu.

Italiatik urten barik, Leopardi, klasiko argia da. Gai itunak darabilzala? Ez da ardurarik, Leopardi ez da klasikoetzaz itz egiten asten garanean aaztuta itxiteko olerkaria.

Leopardiren neurtitzetan azalekoa eta sakonekoa, biak alkarturik dagoz. Erderaz "armonía" esango geunke eta gerkeraz "sophrosyne" sarri entzun dogu. Oraintsuago

izan dan Carducci olerkaria, klasikoa ez da edo? Sei illabete ez dira Milandik ekarri nebazala aren Odak. “Nuove poesie”, “Odi barbare”, “Nuove odi barbare”, “Rime nuove” idaztiak artu egizuz eskuan eta antxe ikusiko dozu klasikorik danentz.

Italian beste batzuk bere izan dira. Baiña zetarako ona etorri eragingo deutsegu besteai? Doistarrak klasiko artean ederto jarreraziko deutsoe Goetheri. Romantikoa zala? Ez. Gura ebanean romantikoa zan, beste batzutan klasiko onena, askotan asitar irudimenez josia. Hölderlin bere ez da osoan izango, baiña eusko olerkariak aren aiñako klasikoak balitzaz, pozik dantzan egingo geunke. Betorz ordu onerako Englanden izan zan Ivan Keats baten antzekoak, “Endymion”, “Hyperion” eta “Eve of Saint Mark”en antzeko olerkiekaz.

Klasikorik gitxien Espaiñan izan dira, neure ustez beintzat. Or CaraIunya inguruan bat puntarengoa izan eben: Costa y Llovera. Jaupari orren olerkietan zoragarrizko olerkiak dira, klasikoen artean klasiko dirala. Zertarako dakardazan izen oneik? “Orixe”ri erantzuteko, berak esaten eustan, ba: “Bai, “Lauaxeta”, klasiko zer daneko ontan, uste baiño ondoagoan naukazu. Neuk bere erakutsi gura deutsat, ondo ez, baiña erdi ondo ba nagoala klasiko zer diran eta nortzuk diran gaian.

Dabit eta Fr. Luis de León klasiko dirala? Bai baten! Baiña antziñako aietan nortzuk erakutsi eusten “sophrosyne” ori, lirikan? Virgili klasikoa izango da edo, baiña romantiko andienetarikoa bere bai. Azal zoragarria dauke aren neurtitzak, baiña mamiñez itunberak eta “emekiak”. Sophokle klasikoa dala? Zazpi antzerki baiño ez daukoguz gaurkoan idazle orrenak. Zeiñetan klasikoen? Kendu egizu “Edipo Colonan” bai? eta gero esango deustazu. Antzerki orretan bai klasikoetan klasiko dala, batez bere abestaldearen leenengo abestian. Colonari opalduten deutson abestia lakorik ez da sortu.

Baiña "Edipo Bakalduna" orren klasiko ete? Guztian ez dagoala klasiko edo "sophrosyne" betean irauten dauanik, ederto azalduten deustazu. Ni bere orretan. Baiña lirikan antziñakoen artean, Dabit kendu ezkero, agur besteai. Horatius ez da klasikoen artean eredu onena, biotz bakoa zalako, buru argia euki arren.

Platon alde batera itzi dagigun, lirikan ez baita iñor. Teokrito bere klasiko sarri iruditen jat, baiña "milinga eta itxura-naiekoa", "amanerado". Baiña azalduko deutsut ez dagoala milinga ta itxura-naiekorik, ez beste koplarik, bakoitzaren idazkerea baiño. Gogo batzuk dotoreak dozuz edo "pulcras", baiña beste batzuei baserritar usaiña darioe. Eta urian sortu diran askok usain ori.

Bakoitzaren sortuburuari bakean itzi bear jako, ta betorz moeta guztietako olerkiak eta idazlanak. Zeure klasikoen aurka berreunka jarriko neukez olerkari onak elertietan. Englandek daukon lirikarik munduko elerti batek ez dauko. Ori zeuk gura dozunean erakutsiko jatzu. Eta zeuk gura dozuzan klasiko asko ete dira Englanden?

II

Englanden sortu dan lirika lakorik iñon ez dala sortu aitortu bearrean gagoz, baiña "Orixe"k gura dauzan moetako klasikoak ez dira. Aren itzak orain diñoguzanaren mokoz moko ? Azalez olantxe dirudi. Zentzuz lirikan gitxi ibilli dira, biotzetikoa dala olerki jarioa. Zentzunak arau ta neurriak jarri bear deutsozala biotzari? Bai, baiña noragiño neurri orreek jarri bear deutsozan, ezin azaldu geinke. "Orixe"rentzat onaiño edo araiño; beste batentzat, barriz, urruntxoago.

Tankera batekoa lirika ez da, askotakoa baiño. Biotzak moeta askotara abestu daroe. Gai onetan arira Menendez y Pelayori jazo jokona. Klasikoetan azia iñor izan bada, Menendez y Pelayo bat izan dala esan bearko.

Gerkeraz neurtitzak egiña dogu gizon ori. Horatiusek zer balio dauan beste batek obeto ez ekian. “Horacio en España” idazti ederra berak egiña da. Virgiliren zertzeladak bardin aztertu ebazan, idaztirik ez eban amaitu, baiña ingi asko itxi. Artigasek laster argitalduko “Virgilio en España”.

Erderaz irakurri dodaz Menendez y Pelayo jaunak itzulitako Saphoren bertsoak. Ez zan makala gizon ori! Baiña geiagorik azalduko deutsut. Olerki bat egin eban Santanderreko seme orrek doistarren eta ipar aldekoen aurka. “Las brumas hiperbóreas” eta abar antxe esan eban. Guzti oneekaz zer arira? Menendez y Pelayoren klasiko zaletasuna ta beste poesi barrienganako gorrotoa.

Urteak aldatu eragin eutsoen baiña. Ago bakarra eukon eta kutsu edo gozo bakarrerako barik askotarako beratu jakon. “Lieder” irakurri baiño Kikeroren neurtitzak txarrak izan badira, arenak bai irakurri naiago.

Eta “Orixe” jaunak ba daki Heinetzaz ederki eta sakonen nork idatzi eban? Doistarren artean ez da kritikorik izan Menendez y Pelayori txapela kentzeko Heinetzaz idaztean. Herrero jaunak gazteleraldu ebazan Heineren olerkiak, “Lieder” deritxoenak eta aurritza Menendez y Pelayo jaunak.

Emen ataltxo bat jarriko dot: “Confieso que en otro tiempo gustaba yo poco de Enrique Heine, considerado como poeta lírico. Nunca dejé de admirar su prosa brillante y cáustica, y siempre le tuve por el primero de los satíricos modernos, pero la delicadeza incomparable a sus canciones o Lieder se me escapaba... Pero el gusto se educa, y no soy de los que maldicen y proscriben las formas artísticas que no les son de fácil acceso o no van bien con nuestra índole o propensiones...”.

Ez noa geiagorik idazten. Aspaldion oldoztuten dodana itz orrekaz ederto aldeztuta dago. Euzko elertian era guztietako kiñuak bear dirala. Klasikoak sentitzeko ez

dala neure agoa? Areen gurtzale naz, baiña ludiari arte edo irinarte batetik ez jako begiratu bear, tarte batetik beti moeta batekoa iduriko jatzulako. Ateak zabaldu egizuz ludia ikusteko, izadiari agur egiteko ta begiak joko dabez amaikatxo moetatako lurrak eta edertasunak.

Klasikoen zaiña eta osasuna atsegingarri dala esango dot. Baiña baserriko emakume lodikotea, artoberoz azia, matrail gorria, atsegingarri jatan arren, txaide arteko emakume aratz eta lerdena atsegiñago jat. Usain obea daukatsu txaideko emakume orrek. Biak atsegin. Klasikoekaz beste orrenbeste jazoten jat. Virgili begiko jat, baiña Goethe begikoago. Teokrito ez da neure lan etsaia, Maragall adiskideagoa. Horatius zeuretzat emongo deutsut Keats, Novalis edo beste bategaitik.

Osasunean eta zain odoltsuan edertasunak ez dira goratuten beti, beste gogo erkin eta murritzetan bere loratuten diralako. Klasikorik ez romantikorik idaztietan ez dogu erabilli bear. Moeta bitako olerkariak eta idazleak baiño ez dira: batzuk edertasuna azalera dakarrenak, barruan daroielako; beste batzuk, edertasunaren izpirik bere ikusi ez dabenak eta atxakia ezin dagienak.

Edertasuna ez da iñoren morroi, ez eskola batekoen seme. Zentzuna eta biotza batera dabiltzanean, txukunen edertasuna azalduten dala, egia. Baiña, "haschic" edaten ebenak bere edertasunak atzemoten ba ekien. Klasiko asko ete dira gaur? Olerkarien artean puntarengoa danik, ez. Valery jaunari Nobel saria emongo deutsoe. Orixek gura leunken moetakoa dogu Valery? Iñondik bere ez! Euzkadin jaio balitz, Orixeren zigorkadea lepoan eroango eban, baiña Francen bere kritikoak sortuko ziran klasikoetan aziak ta Valery jaunari saria emoten deutsoe.

Bake giroa gura dau "Orixe"k? Irakurri begi "Itsas illobia", prantzetar olerkari orrek egiña. Antxe idoroko dau bake girorik samurrena.

* * *

Orain artekoak irakurri ta klasikoen arerio gogortzat iñork autetsiko nau. Iñorenak ardurarik ez deust, neureak baiño. Neurekiko klasiko ez naz, romantiko bere ez –zer zara, ba?– ederzalea. Goikoaren doaiak alde guztietan aurkitu dodaz, eskola guztietan idazle gorengoak eta idazle kaskarrak bidera urten jataz. Omer irakurtean pozaldirik onenak igaro dodaz, baiña Maragall irakurten bere, zugatz pean, udabarri loratsuan, egunik maitekorrenak ikusi dodaz. Chenier eta Fr. Luis de León biotzekoak jataz, Lamartine edo Baudelaire bardin. Gongoraren kutsua neuretzako gozo? Bai. Antziñako klasikoak gogo tolesgea euken, "sencillez" delako ori. Urtetzen ziran mendira bai? (sic) eta ume baten begiakaz guztiak ikusi ostean, azalik zoragarrienean esituten eben gogaia. Gauzak bakoitzari zor jakon neurrian biotz ukitzen ziran. Auxe dogu aolkurik gurena., "Sophrosyne" edo gokentza bearrekoa izaten da, atsegingarri bere bai. Onetan guztia ez dago. Itxasoa baretan, ortzi urdinpean, uiñak dantzarazten aizetxoa danean, ikusgarri. Ez ete da ikusgarri eta atsegingarri ekaitzean uleak naastuta dabillan orduan, uiñak aitzen aurka bits zuria jaurtiten dabenean?

Klasiko zer diran onetan, "Orixe" eta "Lauaxeta" mokoz moko ez dagoz. Gai ori sarri erabili dogu izketetan. Baiña arengandik aldenduten nau zerbaitek. Gogo zabalduagotxoa? Kutsu aldetsuagoa? Neuri ez jat eder egiten askoren otsa: "klasikoetan azia dozu ori, antziñakoen seme ona, aitonen seme dozu". Batzutan klasiko eskolara joaten naz, beste batzutan Heineren eskolara. Noizbaiten Valery jaunari agur egitera edo parnasianoai.

Gogoa zelan kutsu alan. Gaur alai ta barre egiten dot, biar itun eta negar. Egunari berea.

Irizketa edo kritikan sartuterik ez jat gogoko, orain esan dodana bide. Garrantzi lar barik bizitzea artu daroat, gauzak ederrak diran tokian atseden egiñaz, zerbait txurrustatuz. Moeta guztiak biotz ikutzea dagiste. Arau

oneekaz asiko naz, ba, irizketean? Ezta. Orretarako ez dot balio. Bake giroa maite dabenak idatzi begie. Milinga eta itxura-naiekotasunari josita gagozanak lora batzuk apurtuten doguz ta bizitza zelan ondoen igaroko dogun aztertu.

III

Neure irizketa onetan klasikoak aintzakotzat artu dodazala ezin ukatu. Doaiak aurrez euki arren, olerkari txarrak asko dira, Ovidiogan asi ta gaur zenbatengana elduko gintzakez, doai asko eukita, alperrik naastu dabezan izenak zenbatuterakoan.

Klasikoak aipagarriak eta bide erakusleak jakuz, baiña zelan neurtu nor klasiko dan, nor ez? Arlo zail batean sartuko gintzakez. Ez jat iñoiz aaztuten Novalis idazleak esan ebana: "Olerki gai onena, egi utsa". Egia zer? Auxe itaundu eutson Josuri epaille batek. Geure adimenak atseden dagianean beragandik at dagozan gauzetan, egia sortuten jaku.

Baiña beste egi batzuk bere ba dira. Geure adimenaren barruan egi asko dira, izadian eutsikairik euki ez arren.

Eskuekin ikutu aal doguna ezeze zerbait geiago aurkitu geinke. Irizketan dabiltzan askori jazoten jake: neuri egia dala uste jatana, egia izango, besterik ez.

Eta izadiz beste diran egiak?

"Au geiegitxo esatea da" Orixek neure olerkiaren oarretan jarri eban bai? eta gogai oneik sortu jataz. Giza maiterik ez da izango ludion ain garbirik, baiña izan litzake. Egiaz mokoz-moko idatzi nebana? Ez, antzik bere. Musuak otoi biurtzen dirala edo ez, neure asmokoa ez da, diñoadana egi antzekoa bada. Gogoaren toles artean idoro bear dirala olako oldozkunak? Milingak dirala? Bai edo.

Bertso latz eta ulerkaitz batzuk "Maitale kutuna"n izango dira. Gura dozunean pilloka erakutsiko deutsudaz

bertso latzak Fr. Luis de León-en neurtitzetan. Orrek ez dau garrantzi andirik irizketa bat egiterakoan. Olerkiaren arima azaldu bear da, zelako artegatasunak darabiltzan edo olerki osoan poesirik dagoanik.

Saboi aparrez egin daikeguz olerkiak bere, egun baterako baiño ez diran izango, ta zer? kutsu ona itziten badeuskue, ordu onean betorz. Olerkariak ez dauz olerkiak egiten besteentzat, berarentzat baiño. Bakoitzaren gogoak bertso bat egitea eskatuten deusku, ta biotz ikutuak kanpora urteten deutso.

Franceko trizketeak egin ebezan Boileau eta beste amazortzigarren eundikoak ziran olakoxeak. Bertso au latza. Utikan olerki.

Beste onetan Aphrodite jantzi zuriegiz jantzi dau, apar atzekoz barik. Olerkari txarra. Españako Hermosilla, Moratin eta abar arein antzera ziran. "Neoclasicos" eritxoen.

Ordutik ona barriz irizketa bideak zabaldu dira. Ludiko gora-beerak naaste andiak euki dabez, gogoak artegiak dira. Adan ez zan artega ibiliko leenengo egunetan. Aren olerkiak bai bake giroa eukiko. Baiña urteak joan urteak etorri, gerokoak, ezilkortasunak, zadorrak jo gaitue.

Guzti orreik olerkietan azaldu dagikeguz. Zergaitik ez?

Neure olerkietan ondoen irrakurri dauana, Estefania abea. Aren iritzia neure kutxan daukot. Ez *Razón y fe* aldizkingian argitaldu ebana. Aren ondoan sakona neuri bialdua. Olerkiz olerki aztertuten dauz.

Irizketa orretan ondo igarten dau Estefania abeak, batzutan neure gogoa bake giroan zala, beste batzutan, barriz, larri. Ordu bakoitzari zor jakozan bertsoak urtetan jatazan.

Eta geiago. Sarri askotan zentzuz aldenduten nintzan klasiko tankeratik. Olerkiak "escultura" ezeze, "musical" bere izaten dira. Moeta bi orreik olerkietan dagoz.

Maitasun olerkiak, azkenean zirikadea daroienak, ikusiko dozu zelan irakurriko dabezan. Oraindik alde gitxi, erritxo baten entzun neban neure maite kantatxo bat, eresi ederrez atondua. Gazteak abestuten eben.

"Mao gorria" zan. Zergaitik ori?

Maitasun naiak eta samiñak bardiñak diralako biotz guztietan, baiña "Artzandan" deritxon olerkikoak ez ostera. Areik neure oldozkunak dira, beste bati barriz, "Artzandan" bazkaltzeko zaletasuna baiño ez leukioe sortuko.

Jakingo dozu, bearbada neuk baiño obeto. Gaur Victor Hugoren olerki landurik nork irakurtzen dau? Musset ostera askok eta askok. Heineri jazoten jakona. Onen olerkiak urtero argitaldu daroez, baiña Klopstekren olerkiak ez dozuz ikusiko. Espaiñan zer jazoten da? Becquer-en "Rimas" umekondoak bere irakurten dabez. Nuñez de Arce izan zala bere ez dira gomutetan.

Milengarik ez emekirik ez dago, egia joten dozunean.

IV

Ainbat itz eta pitz, gaurkoraiño jo dogun ezkero, Orixek neugan aurkituten dauan itxura naiari zor jakon oarra erantsiko deutsot. Irizketa askotan zeure begiak ikusiko dabe: "idazle onek irakurgai au edo olerki au, egin dauan erara barik, bestetara egin bear eban". Ori ez da idazle bati esatekoa.

Eritzia azaldu dauanaren gogoa moeta batekoa izango da; bestearena, barriz, eraz beste. "Itxura naiekoa zara". Ez naz! Neure ezetz onen aldera ekarriko dodaz Gautier idazlearen itzak. Aren esaldi bat azalduko dot, besterik ikutu barik.

Francen olerki txorta bat argitaldu zan, *Fleurs du Mal* eritxon eta Baudelaire abizena eukan olerki orrein aiteak. Arrikada andiagorik ez zan jausiko inoiz elerti baten gaiñera, olerki orrena baiño. Alde guztietaik dida-

rrak eta oiuak entzuten ziran. Espetxean sartu bearko ei zan olerkari lotsagabea. Beste batzuk zoroetxera eroan nai eben.

Baiña irizkietan iñarduenak ez ziran osoan Baudelaireren aurka jarri. Jules Barbey D'Aurevilly eta abar bere alden egozan. Aal izan eben eran olerkari gaixoa ugartzi eben. Irizlarien otsak zentzuzkoak ete ziran? Bai edo! Badelaire-ren olerkiak larregiko ziran. Baiña batek bere ez eban elertiz epaikatuten *Fleurs du Mal* idaztia. Zileiztilari (moralista) ziran irazlari barik. Eta idaztietan zileiztasuna neurtu bear da, baiña baita elertietzazko mamiña bere.

Irizlariak okertu ziran, oar au aaztuta baztertu ebelako. Batek ondoren aztertu eban idazti barri ta ausartua. Gautier jaunak. Idazlan sakona ta begikoa erantsi eutson. Orain argitalduten diran *Fleurs du Mal* idaztietan aurritzatzat jarri daroe.

Idazlan aretatik neure arirako diranak baiño ez dodaz batuko. Irizlariak itxura naieko zala Baudelaire iñoen. Edo beste itz bategaz esateko "manierismo" ei eukan.

Olerkariak buru ez oin bako gauzak azalduten ebazala askok ots egian. Beste batzuk ostera, buruko barriztasuna ta gauza bakanak esan naia. Itxura naia, buru!

Gautierren erantzunak, jakingarri izango jakuz. Oar oneei narrua kendu eutsen. Batzuk, iñoan idazleak, berez itxura naiekoak dira. Izatez eta jaiotzez! Tolesgetasuna ta bakantasuna (simplicidad) edo, itxura nai andiena izango litzateke eurengan. Beste moeta bateko itxura naia. Euren gogaiak eta buruak biurtu bearko leukeez bakunak dirala erakusteko.

Euren adimenak tolesgabeteak jaio ziran ezkeroztik eta gogaiak bere biurtuta urtetan jakez, artez barik. Beste batzungan gogai argiak, bakunak eta tolesgeak sortuten diran legetxe, euren adimenean gogaime, igeskor ta itzungabeak ernetan dira.

Ludiko gauza eder guztiai, aurrez aurre barik, ertz batetik begiratuten deutse. Olakoxe gogoaz jaioak dozuz. Irudi, lilluraz josiak eurrez jarioten jakoz, irudi neurrizkoak barik. Gauza batek besteagaz daukon zerikusian errezenera jo barik, zaillenari laguntza eskatuko deutsoe. Erderaz esan bearko baneu, olantxe neure gogai au eziko neuke: "El amaneramiento es naturaleza en ellos. Y buscar la sencillez sería un amaneramiento inverso".

Zergaitik neure adimena nekatuko dot irudi bat aurkitu nairik, berak beste bat ikusten badau berez? Egazka igesi doan usoak gauza guztien igesi bearra sartu badagist biotzean, zegaitik bakearen irudia dala uso ori, neure adimenean sartu nai izango dot?

Udagoienak itun jarri daroaz begiak eta biotzak. Eriotz irudia baita. Baiña olerkari guztiak eriotz aurrean bake giro bardiña eukiko? Ez, batzuri larritasuna sartaraziten deutsoe, beste batzuri eriotzaren poza ta gentzea.

Bizitzea eder jakonari, eriotza ez jako atsegin. Bere barrenetik oiu ta didarrak sortuko dira, ludion geratu nai daualako. Maragallen abesti baten ederto ikusi dagikegu diñoadan auxe. "Cant espiritual" buruz ikasi bear geunke. Eta olerki orretan bizitzeari zelako maitasuna erakutsi daroatso olerkariak. Eriotzaren otsik entzun gura ez.

Itxura naia ez da, ba, askoren uste dan legez. Beredin idazleri jaiotzetik jatorke. Eta irizketeak lana, adimen azterketa, indarra ta orio usaiña nabarituten dauan olerkian, erreztasuna etorri bera baiño ez da. Askori lelokeriak neurtitzetan idaztea kostetan jakona, beste oneei itxura naiezkoak dirudien olerkiak egitea, ez jakoe kostetan. Antziñekoai errezago izan jaken tolesgeak izatea, bakunak izatea. Zergaitik? Gaurkoan legez, gogaiak eta olerki gaiak mastrakatuta ez egozalako. Ludiaren sortaldean jaio ziran olerkari ta idazleak, goizeko argiaren mosuak ikututa, ez bestera, aurkitu ebezan gogaiak. Gaur gangarkeri andiena izango litzakeana, "vulgaridad" izango litzakeana, orduan gauza entzungarria.

Gizonak jakintza larregirik ez, baiña jakintza apurtxo bat geiago daukoe antziñako aldietan baiño. Eta leen arrigarri ziran gauzak, gaur papaukeri.

Elertiak egunaren aldiak dauz: goizaldea, eguerdia, ta illuntzea. Oraingoan eguerdian gagoz. Baiña illuntzeruntz goazala. Eladetarrai jazo jakena an Alejandria urian elerti nagusiak ziranean. "Civilización" edo deritxon ori geratuten danean, bakuntasun edo tolesgetasunak aldenduten dira.

Apuleyo, Petronio, Juvenal eta Agustin deuna, latera elertian, atsegiñago askori beste leenengokoak baiño. Agustin deuna itxura naiakoa? Iñor ludion izan bada, deun ori bai! Mistikoen artean bere itxura naiak asko idoro geunkez.

Emen dozuz ba neure ustez, zegaitik itxura naiako batzuk obenez barik errugez jantziak diran. Berez olantxe sortuak baitira. Aitonen semeai jazoten jakena. Aitonen semeok edo nobleok azkenerako seme murritz, erdi geixo eta euren sendia amaitu daroe. Odola meetuten jake edo.

Asieran nobleak ziran odolik onena eukenak, gizonik ausartuenak, gudari puntarengoenak; orregaitik aiton seme jatzuz. Baiña gero apurka-apurka odola galduten jake ta iñor baiño milingeagoak dozuz.

Labankeri larregi, bigunkeri asko eta etxe landuetan bizi izan diralako. Larregiak beeratu dauz! Idazleai eta olerkariai jazoten jakena. Gaixoak nagusi gura dodazanentz?

Gaur klasikoen eta idazlari onena izango jatzu, oraingoan ondoen bere olerkietan eta idaztietan azalduten dauana. Eundi bakoitzak bere klasikoak daukoz. Eta klasikorik onenak izan daitekez gaurkoan, itxura naiekoak diranak. Ezetz?

V

Urte batzuk dira Franceko erdaltzaindian Valery idazleak bere itzaldi entzutetsua aguzi ebanetik. Gallimard-ek

argitaldu eban itzaldia ta bertan irakurri doguz begiko jakuzan oarrak, elerti arloan.

Klasikotasuna joko bat dalako ustea darabil idazleak. Baiña joko orrek bere neurriak daukoz. Eta jokoan antziñako txiribiriak erabiliko doguz ? Ez, ba, jokoetan txiribiri barriak izaten dira, "yo-yo" bedere.

Idazlearen edo olerkariaren argia bere ondoan igituten diranen min eta biotz berak, oinazeak eta gogaiak ikututea, gauzarik ederrena. Zeure egunetan sortuten diran artegatasunai erantzun egiozue. Eundi bakoitzak miesa bat edo lauso bat euki daroa begi ganetan. Lauso ori zear betestuten da ludia.

Eta eundi orretan bizi diranak, euren gogaiak azalduterakoan, lauso ori erakutsiko deutsue. Idazleak zer egin? Bere egunetakoan mokoz moko jarri? Jatorrizko idazlea bada, beste guztiak sentitzen daben erara bere biotzak bere sentiduko dau.

Urteak iges egiterakoan irizlariak esango dabe "eundi arteko artegeak eta oiñazeak idazlari onek sakonen, ziurkien azaldu ebazan. Klasikoena auxe baitauku".

Baiña idazle orrek bake girorik ez dauko? esango deustazu. Bake girorik ez dauko, bere egunetan bizi ziranak bake girorik ez ebelako euki. Bizitzako goraberak, eriotzeak, siñiste zalantzeak eta urduriak kezkatutako gogaien kiñuak idazlari orrek azaldu ebazan.

Omerrek besterik egin ete? Aren poemetan diran buruzagiak eta gudariak ez ebezan gogomin andiak euki. Neskatxa bat ederren zala, edo jainko izunak zitalkeriak egiten ebezala. Omerren poemeran gogoari jagokozan gauzak barik soiñari eta lizunkeriari ondo jagokozanak aurkituko dozuz. Idazlariak errua? Ez. Eundi areitako gizonak ez ba leukezan artegatasun larriagoak.

Erromatarrak zer egin eben ondo dakizu. Virgiliren gogaiak ez dira beste mundukoak. Aundikeri otsak eta gudari didarrak. Horatiusek ostera, bizitza erosoaren

kantak edo guda abankeriak. Kristau gogaia eldu zanean urduririk ez, baiña gero zelaiari begira egozanak, bizitza uskeriak, eriotzako orduak eta ikututa, artegatuten ziran.

Danten, barriz, bere gizaldikoen asmoak ikusiko dozuz. Ludiaren osotasuna edo "unidad" orduko gogo sakonena. Doipuruaren menpean, ludi osoa gauza bakarra zan. Eta uzkurtza osotasun orren erdian. Amaseigarren eundian zer jazoten da? Antziñako bizitza nasaiak eder iritzi, bai?, eta pagano antzeko biurtu ziran askotxo. Eta errez abestuten dozuz bizitzako atsegiñen gozotasunak. Bake girorik ez dozu bear aragiaren ederrak abestuteko. Aragiak ez dauz ba, ludiaren bestealdeko artegatasunak.

Amazortzi eta emeretzigarren eundietan sinismena galdu zan eta idazleak bake girorik ez dauke, gitxi edo baiño. Kristautasunak alde guztiak bete ebazan, eta kutsu orrek artegaraziten ebazan idazleak, siñismenik euki ez arren.

Orain tximistaren eundia dogu edo ziñearen aroa. Fotografiz ludiari begiratuten deutsogu. Ori ikuskarri ederra! Betor fotografi bat! Eta idazleak tankera orri jarraituten deutsoe.

Eundi bakoitzean nor klasiko? Bere egunak ondoen esi dauzana. Idaztiak argiro erakusten badeutsu eundi bakoitzaren tankerea edo izatea, idazti axe buru dozu.

Klasikotasuna zer dan onetan, iluntasunak garabiltz sarri. Azalean baiño ez dago klasikotasuna? Ez, azalean eta mamiñean, biak alkarrekin doazenean. Eta gogoak artegeak badira, azalak bere artegeak izan bearko? Bai uste.

Klasikoak urtez egiten dira. Eusko soloan klasiko dozuz leenago erromatarren ez eladetarren entzute andirik barik idatzi ebenak. Españan, barriz, klasikotzat artu daroez Alfonso el Sabio, Berceo, Juan Ruiz, Diego de Valera, Bernaldez, Mena, Santillana eta gura dozuzanak, antziñakoak badira. Klasikoak dira zeure ustez? Bake giro andirik eurengan?

Francen barriz, “Chanson de Roland” klasikotzat emongo deutsue. “La vengance de Rioul”, “La chanson de Jerusalen” eta beste askoren artetik eldu zadiz Rambouillet etxeko aretoragiño ta guztiak klasikotzat artuten dabezala prantziarrak ikusiko dozu.

Beste elertietan bere orrenbesterik jazoten da. Arira zer? Arira guztia. Gizonik argienentzat klasiko dirala, bakoitzak bere egunetan inguruko gogoa sakonen azaldu dauana.

Apollinaire idazlea klasikotzat artuko deutsue laster. Mallarmé, Bataille edo Richepin klasikotzat autetsiko dabez. Ago kutsu ona galdu dabela gizonak? Ez dakigu, gai onetaz asko idatzi dalako. *Ideas estéticas* idaztian ikusiko zenduzan goraberak edertasunatzaz. Platon baiño leenago asi ta azkenengo edertzaleengana eldu arte, batek bere gogai bardiña ez dauka edertasunatzaz.

Klasikoetzaz beste orrenbeste.

Baiña iñoren lotsagarri ez nedin izan, klasikoengandik zer ikasi dagikegun azaldu ta amaituko dot arazo onetzazko eztabai au. Orixe jaunak maite dauzan klasikoak zer erakutsi legiskuen jakingarri jaku. Eusko elertian barna dabiltzanak, zer irakurri bear daben bide onetaz esango dogu. Burua bere lekuan daukonak, asko irakurri ta agokera ta aukera ona daukonak ikotika batzuk egin dagikez, baiña oiñez ikasten dabillenak ez.

VI

Elertilari izan nai dauanari, zer ikaspiderik erakutsi legioke klasikoak? Moeta guztietako idazleak, edertasuna azalduten jakin daben idazleak, klasikotzat artuten doguz. Baiña leenengo maillan dagoz, doai orreekaz lan iraunkorra egiten aalegindu diranak. Gizatasunari jagokon idaztia iraunkorra jaku.

Gorengo diran idazleak, euren gogai ta idazkariai neurria itsatsiten deutse. Olerkigai ederrena biotzean sortuko jatzun, baiña azalera atera nai dozunean, bere ertzak eta neurriak bear dauz. Pitxiak alkarren leiak atera ta aurrez jaurti arren, lan osoa ta bakarra ez dabe eratuten. Pitxi izango dira, baiña marra edo joya txukunik ez dabe osotuko.

Biotzari neurriak jarri? itaunduko deustazu. Bai, imiñi geinkioz. Benetako idazlan onak eta ederrak irakurten badoguz, egun baten ez, baiña urte batzuk barru oituko gara gauza guztietan neurri bakarra idoroten. Agokeran azi geinke aukera be bardin. Agoko kutsua jaki meekaz meetu egiten jakun erara, gogo kutsua.

Olerkiak biotzetik urten nai deutsu. Olerki orretan batasuna edo osotasuna lortu egizu. Eutsikai balitz, gogai bakarra erdian bego, besteak orri lagunduteko neskame antzo. Kutxa eder baten zura edo ola nagusi dozu, baiña burni, pitxi ta adeluak bere morroi dauz.

Luis de León, Virgili, Horatius eta abar gai onetan nagusi jatzuz. Euren olerkietan batasuna nagusi. Gaurko batzungan bere batasun ori ikusten dogu. Leentxo Goethe, Leopardi, Manzzoni eta beredin eredu aipagarri. Ludi onetan amaikatxo gauza eder bananduta daukaguz. Bardiñez diran gauza nabarrak, an-emen loratuten dira. Baiña bardineztasun eder orren eutsikai ta gogai bakartzat, ludiaren batasuna bere egilleari begira. Gogai bakarrak sortuazo eban ludia: Jaungoikoaren antzeak. Eta eutsikai au ezin galdu dagike ludiak. Beti baitago Urtziren goralpenak abestuten!

Eresi edo armonia bailitzan ludi osoa bake giroan dago. Osotasuna darakus bardiñeztasunean.

Idazle danak diñogun au ezin baztertu. Baiña osotasun ori zelakoa? Emen Orixek eta nik berriro burrukan egingo geunke. Neure ustez, epaikaria izan bedi zentzuna. Zentzun au ez bedi askok gura dauana: adimen otza. Ez, edertasunak erakutsi deuskun zentzuna izan bedi.

Edertasunaren batasun au garrantzi aundiko oarra dogu[1]. Idazleak ez bedi iñoiz aaztu. Soiñaren atal guztiak, begiak, besoak, oiñak eta abar gogoak batuten dauz. Gogoa nagusi jaku.

Klasikoetan besterik ezin ikasi? Bai. Erderaz humanismo esaten daben ori, euskeraz zelan azalduko dogun jakin nai neuke. "Formación humanística" esan daroe. Ederzaletasuna? Zerbait geiago. Itz orregaz azaldu nai neuke gizonongan biotza ta adimena gentzatu ta alkarren laguntza maitekorra jarten ebazan irakasbidea. Bere men guztiak bardin azi daukazana, irudipenari larregirik emon barik, biotza bere geiegi meetu barik, orixe dogu benetan klasiko artean titiztatua.

Jakiña, ez da naiko. Jakintza joria daukenak ez dira beti ederzale onenak. Bizitza nondik sortu dan eta landarak zenbatzu moeta daukezan sakonkiro jakin arren, edertasunari eskurik emoten ez dakian asko ikusi doguz. Adar bakarra baiño ez dabe ezi. Euren jakintzarako adarrak, besteak moztuta dagoz, baztertuta.

Klasikoetan titiztatu danak, barriz, bere adimeneko eta biotzeko adarrak bardin-bardin azi daroaz. Bata baiño bestea ez bedi luzeagoa izan.

Ederlan batzutan sentimenak begi zuurrak daukoz, baiña adimena itsu dago. Beste idazle orrengan biotza nagusi, burua morroi. Elertilari ori ez dago ondo azita, erdiz erdi baiño.

Zer egin bearko dau? klasikoengana jo, idazlari puntarengoen lanak irakurri, aztertu ta ausnartu. Ederlanean batasuna eta menen arteko bakegiroa naiko dira? Ez edo.

Idazle argiak aukerea bear. Edozein gai ona ete jatzu olerkietarako? Ustelduten datzan zapo illa, ezin izan dai-

---

[1] Emen arinka azalduak, idaztiño baten euren toki berezia eukiko dabe, baiña ausnartuago, sakonago.

teke ederra. Olerki bat ezin eratu daikezu atsa darion txakurra gaitzat aukeratuta. Aukerea bear.

Zelako gaiak aukeratuko dodaz, ba? Ori zure agokereak erakutsiko; klasikoak, idazle puntarengoak erakutsiko deutsuela oraintxe azalduten deutsut.

Ikusi zelako gaiak erabilli darabillezan klasiko diranak. Aintzakotzat ez dira gauza guztiak artuta. Baiña non gaiak aukeratu? Izadi amearen altzoan. Bide orrez geroxe, zeure gogoan, biotzean. Gizonaren barru onetan deus ez dago. Ingi zuria dirudi. Zelan gogaia sortarazi? Begien bidez asko, beste batzuk ikasi bidez, entzunez bedere.

Klasikoak izadiaren ikusketean aberastu dira. Irudiak aurrez sortaraziko deuskuz izadiak, baiña bere aurrean bakuntasun osoz egon gadizan. Oartu dagi gaudiko ñabartasuna. Eta geure biotza larregi ikututeari ez, bear dan neurrian ikututeari gagozan.

Orixe ikasiak dira klasikoak. Gauza bakoitzari zor jakon neurrian biotz ikutzea artuten eban. Ez geiagorik ez gitxiagorik. Neurrian. Gizona izadiaren errege egiña dozu, Urtzik ala nai ta. Errege zaran ezkero izadiaren gorabeeren menpean morroi ez zadi egon. Eta errege ez da, lar ikaratua edo beldurtuten dana. Izadiaren errege ez da jazoten diranak artegatuten dauana. Zalpurdian zoazanean, ugelakaz ederto zuzenduten dozuz zaldiak, ara edo ona joan ez dadizan. Izadia zalpurdi bat dozu, bertan zoaz. Zaldiak nai daben tokira ez zadi joan, zeuk nai dozun lekura baiño.

Eta sentipen dozun ori ez okertu, gero! Diru ona artu eta txarra emon ez da bidezko jokoa.

Senti dozuna era berean atera egizu. “Sinceridad” baten batek esango leuskizu. Sarri leenengo senti doguna barik laugarren senti doguna ateraten dogu. Txarto egiña! Leenen unean biotza ikutu deutsuna azaldu egizu.

Oraingoan, neure ustez, auxe dagigun: izadia ikustera goaz, baiña begiakaz ikusi bearrean, adimenaz ikus-

ten dogu. Edo izadiak berak biotza ikutu baiño leenago, ikutu gaitualakoan, arin goaz biazkolara, geure buruak eta irudimenak sortu dabezanak azalduteko asmoz.

Itxi egiozu izadiari begietatik sartu dadin. Eta dakusuna aldatu barik, zor jakon itzalez edo zentzunez argitaldu egizu. Mamiñatzazko diñoguz oar oneik. Azaletzaz zerbait klasikoetan ikasi daikegu. Edertasunaren erdia azalean dago. Ezetz? Ba, urrezko marra jaurti egizu errekara, ibaira, ta ura garden ez bada, ezer ez dozu ikusten. Gogairik txukunenak eukiko dozuz, baiña azal naastua, loia. Ez da ezer ikusten!

"Orixe"ri erantzuteko asmoz asi nintzan onetan, amaia jo bear dot. Beste zortzi aste idazten ekingo neuke gai onetzaz, baiña nekegarri litzateke. Goikoak nai izango al dau gaitxo oneik sakonkiroago ta zabalago noizbait agertzea, eusko elertian olako eztabai ta azterketeak bear diralako.

Irizketeak zelan egin bear diran, klasikoak zer diran, lirikan gauzarik onena zer dan, ikaspide nortzuk jakuzan, beredin gai jatorkuz agora, baiña amaitu bear. Orixe eta ni gauza askotan toki baten gagoz, uste bardiñak daukaguz, beste batzutan ez. Bakoitzak bere agoa. Argi naiaz idatzi dodaz "Erantzunak". Sarriago gura neukez olako eztabai batzuk, baiña bakegiroz, ez gudaz ta alkar irainduteko asmoz.

Euzkadi, 1932-X-14, 15, 16, 18, 19, 20.

Eusko elerti-kera berezia (estetika)

Jose Ariztimuño "Aitzol"

Euskel erriak edergaietan eta antz-gauzetan yokatzeko bere kera berezia ba-du. Ez beste errien kidekoa, ez berdiña baizik. Areago oraindik olerti eta bertso gaietan.

Ez deritzaigu eusko olerkari litekenik euskeraz bere bertsoak neurtzeagatik bakarrik. Baliteke orrela idazten duanak euskel yantzi dotoreaz gun arrotza estaltzea: baliteke gure edertasuna ez dagokion erara oartzea: baliteke edertasun ori adierazi naiaz eusko adimenak ulertu eta irudipenak sortzen oi ez duten gisara erakutsi nai izatea.

Euskalerriak olerti gaietan badu bere eder-kera, badu bere estetika. Olerkari izan baitzaigu euskelduna: yatorriz bai-datorkio gure sorterriari olerkari izatea. Beraz, olerkari yatorra izanik, eder-zale ez ezik edertasunari soegiten eta edertasuna erakusten ba-lezake.

Eder ikuste eta erakuste onek berekin darama eder-oitura eta eder-legea sortzea. Nor bakoitzak bezela, erri osoaren atsemenak ere bere kerara yasotzen du edertasuna.

Erri-atsemen tankera berezi auxe bere-berekoi estetikaren iturburu da. Beraz, euskeldun erria ederzale izanik edertasun ori berari dagokion eran ikusi, eta bere irudimenak agintzen dion eran, iduri moltsoaz apainduta, agertzen du.

Erri guziak dira asko-gutxi ederzale: orok nolabait, dagokioten eran, ere agertzen dute. Gureak ere bai.

Edergaien agerketa bertsoen bidez geienetan adierazi digu. Ez gaurtik, antziñetik baiño.

Bertsoak olerti arazoan azal yantzia besterik ez dira. Olerti giarra oldozkuna, asmoa dezu. Gun orren bizitasuna dakarkiten mamia irudiak, amets-ereduak izaten dira. Oietxek oldozkun eta asmoei alako edertasun berezia erasten diote: oietxek bertsoei ere apaitasuna ematen diete.

Euskalerriari dagokioten olerti-errikoiak sabelean daramaten edertasun orreri begira zaiogun. Ez yakitunen olerkiei: oiek, oraindaiñokoan, argalegi eta kaskarregiak izan zaizkigu. Geienetan, gaiñera, erdel kutsuak ikutuak dira. Eusko gogoari dagokion edertasun gutxi sortu digute sasi-yakitun izan diran sasi-olerkari oiek. Ez diot, noski, gaurko olerkari yaioengatik, dasadana.

Errikoi olerkiak beste dira. Oiek, sakonkiro euskeldun begiak ikusi eta biotz errikoiak maita izan dituzten gaiak, edertasunez aberastuta erakutsi dizkigute. Maiteminduen antziak, guraso-senideen ar-eman etxekoiak, eztai-yaiak, ezkontza arazoak, aurren azitzea, adizketasuna, gorrotoa, maitasuna, bertsoetan erriak kanta-gai artu dituanean alako dotoretasun bikain batekin yantzita aurkeztu dizkigu.

Eusko irudien gaiak

Edertasun yantzi ori; irudi, eredu eta amets-asmoen gai zerzuk ote ziran olerkari errikoientzat?

Izadiko gauz guziak bertso irudien-gai. Baiña, olerkariak sorterrian ikusi zezazkean gauzak; artzaiak artzaingoan, nekazariak soro-basoetan, eiztaria zelai mendi-malkarretan, arrantzaleak legor-ertz eta itxasoan, egunero, orduero ikusi eta eskuartean ibil zezazteken gauzak olerkari errikoiak poesietarako eder-gai zerabilzkiten. Gure bertsolari errikoiak ez dute beiñere ez irudi eta ereduengai, ez edertasuna sortzeko erabilli arteko etzitzaien gauzik.

Eunka olerki errikoiak aztertu ondoren ara sailletan banatuta nabaitu ditudanen irudi eta ereduen gaiak:

1'ngo: Lore-landaretan: briona, illarra, zitroina, martxika, mahatsa, otea, sasia, arrosa, sagarra, baba, udare...

2'garren: Zuaitzetan: aritza, ametza, pagoa, lizarra, saratsa...

3'garren: Txori-egaztietan: eperra, kaila, erretxiñola, papogorria, usoa, belea, arranoa, oillarra, erbia, erlea, sagua, katua...

4'garren: Abereetan: oreina, antxumea, zaldia, txakurra, beorra, beia, zikiroa...

5'garren: Nekazari gaietan: goldea, arto yorratzea, ogi loratzea, itzulketa, itzaiketa, artzaintza, eiza...

6' garren: Izadi-gaietan: bortietako elur, errekako izotz, artizarra, ilargi-laiñu, eguzki itzal, baso, oian, zelai, aran, ibar, muño-egi...

Oiekin, edo oien kideko diran beste gauzeekin, olerkari errikoiak naiko du bere olerkiak apaintzeko. Ez darabilkio irudipena Asia'ko bitxi, Ganges ibaiko ertzen, edo Arabi'ko basamortuen igesi. Gure lur eta izadi puska onetxen aberastasuna aski du olerkariak asmaketa aratzak, goi-argi atsak erainda, adierazteko.

Eusko kutsu duten irudiak

Aitatutako gauz oiek irudi eta eredu sotil-ederrak asmatzeko gai exexak dirala diritzaioke noski norbaiteri.

Bai ote? Besteren bearrik ez dute izan ba gure olerkariak olerki zoragarriak sortzeko. Giza biotzak naiko lukeen poztasun edo naigabea agertzeko; naimenak gura leukena adierazteko eta atsemenak edozein mailletako edertasuna irizteko gaitxo oiekin pranko izan dute eusko olerti baratzan.

Erriak abesten ditun kanta zarretatik yasoteko apaldietan ikus genezake nolako gaiak zarabilzkiten antziñako olerkariak irudiz, ereduz eta amets-asmaketaz beren bertsoak edertzeko.

Len aitatutako gauzak, edo aien kidekoak, apaldietako lenengo bertsoetan arkituko ditugu, irudi antzo: aizken bertsoetan, berriz, olerkariak adierazi nai lukeen asmo edo oldozkuna.

Ementxe ipintzen ditudan apaldietan oar zenezake, irakurle, irudi-oldozkunen zer ikusi ori, bertso talde batzuen barren-muiñetan. Ura, irudia, iragarle bezela beti lenen; beste oneko au, oldozkuna, oiu-egilleak adierazten duan zalduna lez, aizkena. Eredu eta amets-asmaketak irudipenaren seme arroen antzera; oldozpena, berriz, adimenak sortutako ondorengo nagusi balitzaiguke bezelaxe.

Eder-irizle zaitugun ezkero edo, dasadana egia ote dan epai zenezake bertso oiek aztertuaz. Erriaren biotz-ezpaiñetatik yasoak dira:

Irudi-kera maite kantetan

Irudia: "*Otea lilia* danean,
txoria aren gainean;
1 ura yuaten airean berak plazer duenian :
Oldozkuna: –zure ta nere amodio ala dabila munduian"[1].

Irudia: "*Bortiak* txuri dira *elur* dienian,
2 *sasiak* ere ulun *osto* dienian;
Oldozkuna: –Ala ni malerusa! zeren an sartu nintzan?

[1] Cfr. Chants Populaires du Pays Basque par J.D.J. Salaberry. Bayonne. 1870. "Argia dela diozu". 8 orrialdea.

Yun banintz aitzina
eskapatzen nintzan”[2].

Irudia: “Goizetan eder dizu *ekiak leiñuru*,
3 mundi argitzen dizu inguru-inguru;
Oldozkuna: –Ni-re zure onduan ala nabilazu:
Eia maite nauzunez, otoi, erradazu”[3].

Irudia: “*Txori papogorria* eijerki kantatzen,
4 *ganazko alojia* kanpuan xerkatzen;
Oldozkuna: –Ni ere gisa berian nuzu edireiten,
maitiak ezpadereit borta idekitzen”[4].

Irudia: “Mendian zoin den eder *eper xango gorri*
5 *Oldozkuna:*-Ene maitiak ere bertziak iduri;
Eni itz eman eta gibelez itzuli”[5].

Irudia: “*Oreina* laster dua *horen* aitzinian,
6 urian sartzen duzu ahal dianian;
Oldozkuna: –ez amorioz bena ala zabiltza
[arauez”[6].

Irudia: “*Altzak* ez du biotzik,
7 ez *gaztanberak* ezurrik:
Oldozkuna: –Enian uste erraiten ziela aitone
[semek gezurrik”[7].

8 *Irudia: Neguaren* ondotik jiten duzu *uda:*
Oldozkuna: –zertako egiten duzu orrenbeste
[duda”[8].

---

[2] Cfr. Chants Populaires du Pays Basque par J.D.J. Salaberry. Bayonne. 1870. “Txori erresiñola”, 13 orr.7 Cfr. Ibid. “Berterretxen kantoria”. 108 or.

[3] Cfr. Ibid., Bortian auzki”. 22 orr.

[4] Cfr. Ibid., “Txarmangarri bat badit”. 67 orr.

[5] Cfr. Ibid., “Mendian Zoinen eder”. 76 orr.

[6] Cfr. Ibid. “Mendian Zoinen eder”. 77 orr.

9 *Irudia:* "Atarratze jauregian bi *zitroen* doratu;
Oldozkuna: –Ongria'ko erregiak bato du
[galdatu..."[9].

10 *Irudia:* "Mariñelak juaiten dira *itxasorat untziko*:
Oldozkuna: –Zure neganako amodioa sekulan ez
[det utziko"[10].

Irudia: "*Mertxikaren loriaren* ederra!
11 barnian duzu *exurra* gogorra:
Oldozkuna : –gaztia naiz bai eta loriusa,
ez dizut galtzen zure esperantza"[11].

Irudia: Mahatsak eder du osto
lurrian barrena errua
12 *Oldozkuna:* –neskatilak ezetz errainagatik
baliteke amorioa:
yarraikiok mutil zoroa"[12].

Irudi-kera eskale-talde kantetan

Era guzietako olerkiak ala maite kantak bakarrik daramazkite bertsomuiñetan eusko kutsu yatorraz ikutuak diran irudiak? Maitemindutako gazteak, bakarrik, beren kantetako eder-gai txori, lore, baso, elurraren apaintasuna aukeratzen ote dituzte?

Eder-irizle, Apraiz'tar Odon yakintsuak dionez maite-kantetan bereziki irudi-oldozkunen yoskera auxe arkitzen omen da: "Ikusten danez –dio Apraiz yaunak– Euske-

---

8 Cfr. Chants Populaires du Pays Basque par J.D.J. Salaberry. Bayonne. 1870. "Aitarik ez dut". 141 orr.

9 Cfr. Ibid. "Atarratze jauregian". 143 orr.

10 Cfr. Ibid. "Lurraren plan". 148 orr.

11 Cfr. Ibid. "Sorterako alaba dendaria". 198 orr.

12 Idazleak Fagoaga'tar Josebari yasoa. Errazu (Baztan'en).

lerki guzietako eta mailla askotako olerkietan aurkitzen da nik aipatu dodan bikotasuna. Baiña batez be biotzeko alaitasuna ta mintasuna agertzeko diran olerkietan artzen dira izadiaren irudi ta margotasunak”[13].

Bere iritzia sendotzearren geroxeago dasa: “Maitasuna eta mintasuna eta olako gaiak, bigunak eta guperak dira. Gure gizonak berriz, lotsatiak; bere barrukoa azaltzeko gaitzak. Orregatik barreneko gauzak esan baiño lenago asten dira beste arinagoetzaz mintzaten; arnasa artu bear edo, gogoak irudi ederraz gertau bear edo, bide ziorretatik yoan bear edo toki zailenetara eltzeko”[14].

Gure aburua, ordea, ez da Apraiz’ enaren kidekoa. Berak dion bikotasun ori, alegia irudi-oldozkunaren alkar bear ori, batez ere maite bertsoetan ageri zaigula. Ala bear noski erriko kanta geienak maite-kantak, beste edozein eretakoak baiño ugarigoak maiteminduenak diran ezkeroz.

Eskale-taldeen olerkietan, urtezar, gabon, Santa Ageda sasoikoetan, seaska eta dantza-bertsoetan ere ugari aukeratu genezazke izaditik yasotako irudi oiek bikotasun orren edertasuna erakutsiaz.

Eskale-taldeen bertsoak:

Irudia: “*Ametzak* eder *azala*
13 *aritz* gazteak bezala;
Oldozkuna: –zu etxeko andre zarra,
etxe untan bada zure bearra”[15].

Irudia: “*Landan* eder *ilarra,*
14 aren azpian belarra;
Oldozkuna: –etxe untako etxeko alaba
bular artia zilarra”[16].

---

[13] Homenaje a D. Carmelo Echegaray. San Sebastián. 1928. 607 orr.
[14] Cfr. Ibid., 609 orr.
[15] Idazleari Sara’ko Mdme. Arestik bidalia.
[16] Idem

Irudia: "*Zeruan* eder *izarra*
errekaldian lizarra;
15 *Oldozkuna:* –itxe untako nagusi yaunak,
urre gorrizko bizarra"[17].

Irudia: "Or goian *errota*
irina leun yota:
16 *Oldozkuna:* –Itxi untako andria
Ama Birgiña debota"[18].

Irudia: "Armaioan *sagua;*
17 aren guardia *katua.*
Oldozkuna: –Itxe untako limosnarekin
ez degu beteko zakua"[19].

Bertso oien kidekoak diran amaika apaldikin luzetu genezake lantxo au. Ain oparotsuak zaizkigu eskale-kantak irudi berezi oiek bertso bakoitzetik naro-naro darioten ezkero. Nork entzun ez ote ditu gazteen oiu aldiak gabonetan edo urte zaarretan "eder eleizan aldare; arri landuaz pilare"; "usua diyoa otara; nere begiak lotara"; "eder soruan goldia; soñian, yantzi moria", eta beste onelako ainbat bertso zar kantari baserritik-baserrira, auzotik-auzora lastargien gar gorriaz, gau beltzeko suzko begi aldakorra balira bezela, ilunaren sabela urratuaz eta abesti leunaz gozotuaz?

Gure irudiok dantza-kantetan

Gutxitan abesten dute euskeldunak doiñuari letra erantsi gabe. Abesti errikoiak argalxamarrak deritzaizkigu, noski, beren erraietan bertso pilak ez badaramazkite.

---

[17] Idem
[18] Idem
[19] Idem

Ezta dantzatzeko diran kantetan ere. Dantza-abestiak soillik, neurtitzik gabe, arkitzea zailtxoa ez zaigu izango. Orrelako dantz-olerkiak aztu egin dira makiñabat tokitan; baiña antziñan bere bertso-mordoak bazituzten.

Olerki dantza oietan ere, berdintsu, irudi-oldozkunen bikotasun ori nabaitu genezake. Ale batzuk gogoa alaitzeko bidez ementxe diyoazkizu:

Irudia: "*Ziriko* beltza ona dut bainan
18 obea *bustan* zuria.
Oldozkuna: –Dantzan ikasi nai duen orrek
nere zangoari begira"[20].

Irudia: "*Eperrak* kantatzen du
19 goizean *intzetan*
Oldozkuna: –ez daiteke fidatu
Mutilen itzetan"[21].

Irudia: "*Sagarra lore-lore*
20 denbora danean;
Oldozkuna: –gazteak ankak arin
soñua danean"[22].

Irudia: "*Pikuaren ostoa itzala* egiteko;
21 *Oldozkuna:* –ederregia zara nekerazitzeko"[23].

22 *Irudia:* "*Baratzeko pikuak* iru *txurten* ditu;
Oldozkuna: –mutil andre-zaleak ankak arin
[ditu"[24].

---

[20] Cfr. Cancionero Popular Vasco de D. Resurrección María de Azkue. Tomo II. Danzas. "Ziriko beltza". 108 orr.

[21] Cfr. Cancionero Popular Vasco de D. Resurrección María de Azkue. Tomo III. Danzas. "Oraingo mutil txurrak". 91 r.

[22] Cfr. Ibid.

[23] Cfr. Ibid. "Orain kantatuko det". 89 or.

[24] Cfr. Ibid.

Irudia: "Atzo Bilbon negoan
ta gaur Bitorian;
23 sarri ura agortu
gure iturrian.
Oldozkuna: –O neska farandona..."[25].

Ogibide-kanta-irudiak. Lanean ari zirala ere...

Ezin luzaroko aritu genizke olerki-dantza oiek kantatzen. Dantzak berakin dakarki batera eta bestera ari bear izatea; eta zankoak nagitu, besoak auldu eta batez ere birikak itobearrean yartzen dira geitxoegi bira-bira yardun ezkero. Bai-ta, ustekabean, barea altxa ere.

Atseden gaitean bada. Andre berritsuaren yarduna baiño amaigabekoagoa genduke bertso dantzen apaldiak erakutsi bearra.

Euskelduna, ordea, kantatzez ezin ase. Ari dala naiz dagoala beti abesteari lotua. Abenda gutxi gerea bezin abeslari.

Gauden bada. Zeudela ere, arbasoak mara-mara kantuz aritzen ziran. Artazuriketa zala, liñuaren lana zala, euleak oiala euntzen ari zirala, olagizonak burnia guritzen, gorulariak ardatza dantzatzen, itzai-mutiltxoa itzulketan... –nor ez Euskalerrian?– oparotsu, naro abestiak itur gardenetik antzo eztarrietatik iges ziyoazkioten. Kanta oiei, ba, gure erriak ogibide, lanbide abestiak deitu izan die.

Ogibide kanta oietan, lanbide eta abesti oietan beste era guzietako bertsoetan bezela irudi-oldozkun, eta eredu-asmo ezkontza ez da austen. Alkar-adizkidetasuna urratu gabe doa.

---

[25] Cfr. Ibid. "Atzo Bilbon". 46 orr.

Irudia: "*Arrosa-lilia lore*;
24 *Oldozkuna:* –nork bear du senarrik?
bat ere, bat ere ez dut,
bat bear nuke nik"[26].

Irudia: "*Aza* gazte *landare*
25 *Oldozkuna:* –konpañian dugu-logale
barda ere, gaur ere"[27].

Irudia: "Or, goiti ortan *zugatz* bat
26 deitzen zaiona *lizarra*;
Oldozkuna: –Orra Gloria lagun arteko
papar guzia *zilarra*"[28].

Irudia: "Or goiti ortan *zugatz* bat
27 deitzen zaiona *gaztaina*
Oldozkuna: –Orra Fermina lagun arteko
hamalau libra ezpaina"[29].

Ez dira, beraz, maite-abesti gorrietan utsik, errikoi diran olerki geienetan baizik irudi-asmoen bikotasun oiek sumatzen ditugu: bertso erraietan dantza, eskale-talde eta ogibide olerkiok dirdiz ederreko pitxiak bezela altzoan gordetzen dituzte, eta aberaski ala ere.

Egia ote da, Apraiz yaunak dionez, maitasun arazoetan euskeldunak motzak, beldurtiak dirala eta arnas artzearren izadi ikutuzko-irudi oiek, bide antzo, kantatzen dituztela?

Ez gaude orretan. Maiteminduak Euskalerrian, eta edonun, dituzu lotsatiak. Asieran, batez ere. Ez aldi

---

[26] Cfr. Cancionero Popular Vasco de D. Resurrección María de Azkue. Tomo IX. Canciones de oficio. "Arrosa-lilia". 9 orr.
[27] Cfr. Cancionero Popular Vasco de D. Resurrección María de Azkue. Tomo IX. Canciones de oficio. "Aza gazte", 10 orr.
[28] Cfr. Ibid. "Irairon". 17 orr.
[29] Cfr. Ibid.

guzietan, ordea. Maitasuna gai duten amaika bertso, lotsati ez ezik ausartiegiak ere, entzun eta irakur izan ditugu arnas ori bide ar gabe.

Eta olerkariak maiteari zuzentzen ez dizkan bertsoetan zertarako ote orrelako neurri artu bearrik, naiz maitekantak asmatu? Eta dantza-abestietan zertarako ote beldurtasun ori? Eskale mutil-taldeak maitasunik agertu bear-ote diete etxeko yaun-andrei, irudi bidez, aurkezpena egiteko? Eta ogibide-billera berritsuetan, itzen ausarkeria ezten zorrotza baiño areago eta bildurgarriago dan garaian, apaltasun orrek bai ote du leku?

Zergatik ote ain izadi-irudi-zale olerkari-errikoia?

Arlo zalla, korapilloa errezki lasatzeko, agian. Deritzaidana, argira dezadan, ordea.

Euskelduna izadi-zale purrukatua zaigu. Berez dioazkiote guretarrei, ez uritarrei noski bai mendikoei ordea, buru-belarri-begiak izadi gaien ondoren. Inguruko txori, abere, mendi, zelaiak dituzte maite. Goiz-txintako egaztien kanta guziak ezagunak zaizkate; zugaitzen itzal, lerdentasun, gogortasun eta sotiltasunez begiak aserik bizi dira; abere eta piztien aztarna, urratsak eta marruak nekerik gabe nabaitzen dituzte. Oien oroen margo-bizitasunekin, otsen leuntasunakin, izate-tinkotasunakin, ibiltze-arintasunakin, ikutze-gozotasunakin, ikuste-sotiltasunakin naiko ba-dute, beroiek gogoz maitatzeko.

Gure olerkariok, eder-ikusle oiek, ez ikusi bakarrik, zorrozkiro so-egiñik ere, izadi-gai oien gun-muiñetan araztasun pranko nabaituaz arriturik gelditzen dira. Ikusi, entzun, ikutu dituzten gai-ederren antza betirako itsatsiak gelditzen zaizkiote irudipen-sakon barnean.

Onela, usterik gabe, olerkari errikoiei aurretik bizikiro so-egiñik bereganatu dituzten makinabat eder-gaiez, aberastutzen zaiote irudipena. Barruak agintzen diote-

nean olermena (sic) arrotzen zaiote, bat batean, irudipenlabea goriturik bertso eder mordoak, apaldietan borobilduta, an dioazkiote oartu gabe.

Otzean ez burnirik lantzen; ez da ere goi-arnasik gabe olerkirik sortzen. Garbi asko olerkari errikoiok diote. Ara, oetako batek zer dion:

> "Bertso bida bear ditut kantatu
> izarrei: zer zaidan gertatu;
> naiz ez nadin deusikan baliatu,
> ala ere bear ditut kantatu
> korputzak ar dezan deskantsu"[30].

Olerkari onetxek bere kanta-zaarreko apaldi batean –12' garren zenbaki damakinian– olermena biziki zarabalkin nunbait : irudi-yaioaren bidez eztenkada zorrotza sartzen bait-du alajaiña.

Irudi-oldozkunak alkar zer ikusirik bai ote?

Ezezkoan dago Apraiz yauna. "Baiña zati biok bereziak dira, alkarregaz nastau barik, euren artean nastau barik, bakoitza azke eta aldebateratuta"[31].

Ez da bi zatitxo oiek nasi bearrik; bakoitzak berari dagokion berekoitasuna beukate; irudiak irudiari dagokiona, oldozkuna oldozkunarena. Ez dira azkatasun oso duten aurrak, ordea.

Irudi-oldozkuna alkar inguratzen dituan lokarria meea degu oso; ederti-arazoak eskatzen duan bezelako ariña. Askotan lenen begiratuaz alkarganako ar-emanik ez da ikusten, sakonkiro so-egindakoan, bai-ordea.

---

[30] Idazleak, Fagoaga'tar Joseba'ri yasoa. Errazu (Baztan'en).

[31] Cfr. Homenaje a D. Carmelo Echegaray. San Sebastián. 607 orr.

Bestetan, egia, nolanai aztertu arren, ez zaigu agertzen anaitasun ori. Zergatik ote? Olerkaen batasuna autsi dalako, batzuetan: bestetan, berriz, apaldiak zakabanatuaz irudi bateri, urtearen buruz ziurtasuna galdurik abestean abeslari errikoiak, edozein oldozkun erantsitzen diotelako. Onelako abeslariak irudi-oldozkun ezkontza parregarriak egin arazten dituzte.

Ots! ea astiro aztertu itzazu len aitatutako apaldiak bikotasun orren anaitasuna oartzen ote dezun. Azalean, agian ez, izan leike baiña mami eskutuan (sic) arkitzea.

Lenengo apaldian (1), ez ote dio txoriaren arintasunak olerkariari gogora ekartzen maitaleen maitasun-aldakorra? Bigarrenean (2) elur gordiña eta sasiostoen ulun tristeak bere maitasunaren atsekabea ez ote dio bururatzen? Txori papogorria –laugarrenean (4)– gaua igarotzeko estalpe-billa ibiltzen dan bezela, maitaleak maiteagandi atea idekitzea lortu nai luke.

Ausnar zerorrek, irakurle, 7, 8, 11, 12..., garren apaldiak eta ikusi dezakezu alako eskutu kate zoragarriak irudi eta oldozkunak estutzen dituan ala ez. Beste batzuetan gaitzago oar zenezake, orretarako olerki osoa edo apaldi batzuk irakurri bear zenituzke-ta.

Bikotasun orretako oldozkuna, noski, edozein gisetako asmoa izan leiteke; maiteminduaren atsekabea edo maitaleen zoriontasuna agertzen dutenak; irri-yolasetakoak; bizitz arazoa erakusten digutenak; gizadiaren zintzotasun edo griñak azaltzen dizkigutenak eta beste ainbat eratakoak.

Apaldien taiukera

Irudi-asmo bikotasuna erraietan daramaten apaldiak bere kera berekoia dute. Beste bertso taldeak bezela taiutuak ez dira izaten.

Apaldi oiek bi zati ezagunak dituzte, dakigunez. Lenengo neurritzetan, beti ia, irudia azaltzen zaigu. Aizkenekoetan, berriz, oldozkuna. Noizik bein, oso soil eta bakanka, ordea, irudia aizken tokian dagerkigu.

Apaldia laukoa bada, lenengo bi bertsoak irudi-ereduarentzako dira; zortziko bada, asierako lau neurtitzak. Iruko apaldietan bat, edo geienean bi bertso, bear izaten ditu irudiak bere izakeraren eder erakusteko.

Bertso talde oiek ez dute ordea olerkian toki yakiñik; asieran, amaian edo olerki muiñetan berdin dioazte irudi berezi oiek sabelean dituzten apaldiak. Olerkariaren goiarnasak iraultzen ditun tokian, bertan gozo egiten dute apaldi oiek.

Ez dira olerki zarrak oparotsuegik eredu-asmodun apaldiak zakabanatzen. Bikotasun ori olerki geienetan bein edo bi, goiti yota geienen bizpairuren bat aldiz agertzen zaigu.

Ezin uka ala ere ba-dirala "Amorraina ñimiño" antzekoak lauretaiño ere dakaizkitenak. Onelako mailla irizten dutenak, egiz, dira gai-ederrez, irudi aratzez eta eredu sotillez aberatsenak. Oetan olerkariak buruan darabilzkin asmoak eten gabe arrigarrizko irudiz yantzitako bidetik amaiara daramazki.

"Bost Lore"n eusko-irudiak

Gure olerkaritzaz degu oraingo aldia. Bide luzea onera irizteko ibilli deguna. Bearrezkoa genduana baiño, "Bost lore"n lausaro gozoenak, erleak antzo, miztu nai izanik.

Bidebaztertu ditzagun, oraingoz beintzat, olerki onek eduki lezazken edertasun, biotzikutu eta asmo yaioak, gure alako iduri tankera bereziaren yardunera etorri gaitean.

"Bost lore"k etzuan goiko maillik iritziko, nere aburuz derizkiot, ez bost zatien olduzkun-batasunarengatik, ez gai-

araztasunagatik, ez-ta ere olermenaren eraite biziagatik, gure olerkariak, goi-arnasak ats-egiñik, ain egoki bere bertsoetan eusko-kutsua daramaten irudiok irauli ez bazituan.

"Bost lore"ko bost asmoak bereziak dituzu, ez dute alkarrenganako zer ikusi aundirik; olerkiaren batasuna aultxoa zaigu. Zati bakoitzaren asmoa txukuna, polita da, ez ordea berez apaldi taldeak arrotzeko aiña, ez gorengo maillara olerkia yaso zezakena.

Beste edertasunik badu "Bost lore"k, enetxoa. Edertasun auxe asmo txukunari erantsita, olerkiaren sotiltasuna argiro agertzen zaigu.

Edertasun orren iturburu, ainbat aldiz aitatutako irudiok. Errezkaran dioazkizu, or-emen, apaldietan banatuta arki zenezakenak:

Irudia: ".....Ez al dek ikus
Sagartxo mardulen ordez
28 Galarragako egia dela
Osoro bete *arantzez*?"[32].

29 *Irudia*: "Erbeste-kutsuz lausotu zaigu
ain lerden zegon *lizarra* "[33].

Irudia: "*Belar-zelaian esiak* asko
30 *maillak* ugari *langetan*:
Oldozkuna: –gure buruak nola ez zaitu
izanik askoz obea?..."[34].

Irudia: "Zure *ingurutxo* alaian
31 eder dirudi *zelaian*;
Oldozkuna:.-Sendi ugariak *maian*..."[35].

---

[32] Cfr. Eusko Olerkiak. 1933. 8 orr.
[33] Cfr. Ibid.
[34] Cfr. Ibid. 9 orr.
[35] Cfr. Ibid. 15 orr.

32 *Irudia*: “Gora doa orman *untza*:
oni dagio laguntza
sasi eta ote zorrotza...”[36].

Irudia: “Amargarrenez *loratua* zait
33 etxe aurreko *sagarra*.
Oldozkuna: –Udara artantxe zerura da igo
nere amona xaarra...”[37].

Irudia: “Naiz *itulian* ta *larrañian*
oiek naukate bizirik;
34 *Oldozkuna:* –Lo bakoitzean bien muxuak
laztantzen ditut poz-pozik:
biotzok gañez egiñik”[38].

Irudia: “Lengo *sagarrak* orain *arantza*...
ingurun ez da *lizarrik*:
35 *Oldozkuna*: –Apaldi ontan gora-bera asko
ikusi ditu Belabi’k...
Arekin ere baita nik”[39].

Bide zarrak berrituaz

Ara, Etxeberriak bere olerkiak edertzeko irudien gai antziñako bertsolariak zarabilzkiten gauz berberak apaldietan sotilgarri nola itsasi dituan. Gaurko olerkari onek kanta zarrak zorrotz ausnartu dituala agertzen digu.

Ez ditu irudi-oldozkun bikotasunak ertilari arbasoak taiutzen zituzten era ber-berara gertatzen “Bost lore”aren egilleak, baiña aien eta onen eredu-oldozkunen senidetasuna garbiro edozeiñek, irakurri utsik, oar dezake.

---

36 Cfr. Ibid. 17 orr.
37 Cfr. Eusko Olerkiak. 1933. 21 orr.
38 Cfr. Ibid.
39 Cfr. Ibid. 22 orr.

Aiek, antziñakoak noski, kera berezi oneri iraunkorrago eutsitzen zioten, ez beste gaurko olerkari onek. Bertsolari zarrak euskel-gun biziagoa txertatzen zien irudiai eta bertso giarragoak taiutzen zituzten.

Ez giartasun ori, ez eusko-kutsu yatorrena duten irudiak ezin beti eska genezazkie gure olerkariei. Olermen eta irudimen-egoari eder zeru utsi detzaioguten. Zelai zabaletan ibilli ditezela; ez ditzagula mendi ateetan ito.

Alaz ere, adizkide zaizkidan Lauaxeta, Jauregi, Tapia-Perurena, Jakakortajarena, Iturralde, Oxobi, Loidi, Zaitegi, Enbeita anaiak, Erkiaga'tar Eusebi, Gaztelu kaputxinoa, eta Onaindia karmeldarrai iztxo bat bederan zuzendu nai diotet.

Idatzi dedana idatziaz zuek biotz-burruan izan zaituztet. Zuentzako bide berririk idiketzeko asmorik ez det izan. Ausarkeria litzake. Zuek guzia dezazuteke eusko olertia goi-gorengo maillara egazteko. Eusko-elertiaren itxaropenak zeok zerate.

Olerti errikoia igartzera dator. Zuaitz zar ori eusko-edertasunaren gordeillu izan da. Idazleak eta olerkari apainduak erakutsi ez digutena erriko kanta zarrak irakasten digute eusko gogoaren edertiari buruz yakin dezakeguna.

Irakaspen ori biltzea besterik ez det egin. Arbasoen apaldi txorta zuei eskeintzen dizutet. Lore-kanta zaar oien lausaro auxe miaztu zazute. Antziñako bertsolarien esakun, irudi eta asmoak ausnartu itzazute. Orrela zuen irudimena aberastu eta olermena eusko kutsuz igurtzitzea lortuko dezute.

Goi-atsak irudimena irakin-azi eta olermena arrotzen dizutenean mara-mara, naroki oso, sortzen dituzuten edozein oldozkun, iñungo asmo, eta asmaketa arrigarrienek ere eusko gogoari dagokion edertasunez yantzi araziko dizkizute gure ederkera berezi onek.

Estetika

Nikolas Ormaetxea “Orixe”

I. Eder eta antze

1. Eder-suma

1. 1. Ederra zer da?

Asmoz zabalago zan, izanez gertatu dan baño. Estetikaz egin diran lanik zentzuzkoenetan laburtzapen bat egitea gogoak eman zidan aurrena, baño alde batera gai ugariegia ta bestera libururik ondoan ez, ederraz ta antzeaz naiz mintzo, oietaz diran abururik artzekoenak gogora ekarriz. Gai oekin batean, saiets-antzean bezala estetikako zenbait xeetasun ukitzen ba'ditut ere, oraingoz ez dut lan osoa egin-betarik.

Baumgarten'ek asmatutako Estetika itza, euskeraz eder-suma esan, zenbaitek ez dute onartzen, eta kalologia esan naiago dute, ederraren legeak zein ta dira agertu bear omen ditu-ta. Ez naski; ederra zer dan ta nola dan aztertzea ez ezen, ederraren suma edo azterrena artzea ere berekin baitu ikasgai onek. Ortara ezkeroz, osoago litzake, nik uste, kalo-estetika esatea, ta ortara egoki nai nuke nik euskeraren itza: eder-suma. Orain arte iñork ez du euskeraz gai au urratu, ta itz au –besteetaz ere esana bedi erabat–

ez da, baldin bada ain egokia, baña zuloa baño zarpa obe baita, bestek oberik asmatu arte balio beza beintzat.

Erderaz arte esaten diotenari guk antze esan bearko, Naparroako itz zar baten bidez. Antze ori, ederra agertzea, ots, antza agertzea deritzat. Latiñez ederrari pulchrum zeritzaion arren, beste izen batez formosum, antza duna, forman *habens* zeritzaioten itsusia, aldiz, de-forme antz gaiztokoa. Ortaz, ederrak eta antzak ba dute ikuskizun. Antzea, ederra agertzea balin ba da, ederra zer ta nola dan aztertu bearra daukagu lenik.

Ark-onek adi-muga edo definizio bakoitza asmatu dute ederra zer dan adierazteko. San Tomas'ek "ikusiz atsegin ematen duna" dala dio, ta, erabat esan, "adimenari atsegin zaiona". Ederraren ondorioari atsegin zaiona. Ederraren ondorioari gagozkiola, ondo esana: baña iturburura jo naiez alegiñak egin dituten aien artean, neri arako Platon'i egozten dioten ua zait atsegiñenik: "splendor veri", egiaren dirdaia. Platoni baño Plotin'i egoztea obe, bi lekutan naiko garbi adierazten baitu. lkus *Ideas estéticas* Menéndez y Pelayo (1137, Nota). Ezagun ezaguna dalako ezin utzia da Agustin Santuarena ere: "splendor ordinis", taiuaren dirdaia. Ta Plotin'ena beste itz batzuetaz esan, "egiaren antz dirdaitsua", forma eximia veri. Berdin jotzen baitu "splendor veri" ta "forma eximia veri" esateak. Eta euskeraz antzak eta antzeak itz-erro bera baitute, ta latiñez ere form-a ta form-osum senide baitira, "splendor" ordez "forma" erabiltzea komenigo zait, gero eder ereduaren bila gabiltzala (*lo bello ideal* esaten baitiote) latinez forma etorriko baitzaigu burura. Antzeratsu dio S. Tomasek ere: "splendor formae".

Ederra, bestela adierazi, irudimenari dagokiona da, egia adimenari dagokiona dan bezala. Latiñezko beste itz batek argi egiten digu: decorum esaten dute ederra esateko, ta idurimenari dagokiona esan baitut. "quod decet phantasiam", dec-et eta dec-o- rum senide dira berebat, euskeraz dagokiona ta egokia bezala. Ba dira "Artes deco-

rativas" apaingarri uts deritzaienak. Antze-lan oietan ez dabil, gizona geiagoren bila. Etxagile batek etxearen abeburuetan ezarri oi ditun orriak eta abar, edo artzai batek makil-inguruan egiten ditun kirrimarrak ez dute egi-dirdai aundirik azalduko.

Antz argia, dirdaitsua du ederrak idurimenarentzat, aditzapen soilak adimenarentzat egi bezala. Naiz adimenez, naiz idurimenez, ezin asma dezakegu nolabait antzik ez dunik, edozein ezaguerak zentzuengandik baitu jatorria. Ortaz, adimenak antzen baten bidez, nolabait esan, ditu bere ezaguerak, antz ori animatar edo gogoantzeko biurtzen dalarik; idurimenak (sic), ostera, zentzu-gaien antzeragokoa dalarik.

Ederra berriz, bitarakoa da: jatorrizkoa ta asmatuzkoa, ots, Jainkoak sortua bat, gizonak egiña bestea. Jatorrizko eder ori ere bitarakoa diteke: sortzerik-bagea ta sortzea-duna. Sortzerik ez dunari ta dunari ezin eman, ein bateko izena: bai ariora edo per analogian. Sortze gabeko ederra Jainkoa da: batez ere, gizon egin baño len ere Jainkoaren Itza edo Semea esaten zaiona. Jainkoak bere burua ezagutuz betidanik sortzen duna. Jainkoaren erraña, ''Aren izatearen antza, Aren ontasunaren ispilua" esaten baitiote liburu santuak. Jainko-itz edo errañu au mugarik ez duna da, ta antza ar dezaken edozeren eredu edo antzatakoa. Forma formarum: antzen antza. Aren antza dutenak oro, mugatua dute.

Len esan dudanez, sortua dan ederra ere bitarakoa da: Jainkoak sortua, izadiaren ederra bat eta gizonak sortua, obeki esan, asmatua, antze-lanarena, bestea.

1.2. Izadian gauza ederrik bai ote?

Izadian arkitzen ote da gauza ederrik? Obeki esan, izadian arkitzen ditugun gauza ederrak, berenez ote dira eder, ala gure ezagueraz edertzen ote ditugu? Gure eza-

guera baño len eder dirala esan diteke, gu sortu baño len ere Jainkoaren adimenak ezagutzen baitzitun. Jainkoak begiratu omen zien egin-gauzeri, eginda berela, ta oso ederrak arkitu omen zitun. Latiñez *valde bona* oso onak, diote liburu santuak; baña LXX'en itzulpenean *kala lian* "oso ederrak" arkituko duzu. Euskeraz ere griegoz bezala, on eta eder berdin datoz. Jainkoagan, egitea begiratzea ta eder arkitzea bat dira, baña guregan, giza-izkuntzan, egitea lenik eta arkitzea urrenik. Berenez ere, Jainkoaren aztarrenak urruti samarreko antza batute, eder zirala esan bear gizonak, ikusi baño len. Dana dala: gauzetan beretan eduz, ots, lore bezala ez ba lego ere, oiñarri bezala edo azi bezala ba dago beintzat eder ori. Naiz Jainkoaren ezaguerak naiz gureak azi ori loratu bear ta ere, sorkaiak eder diranik ezin ukatu. Esaten baita gaurko egunean, kolorerik ere ez dagola gauzetan gure begi-xarez kanpora. Kolorearen oiñarria bakarra balitz ere, gure begiak eduratzen du bere barrengo xarean, eta kolorerik ezin ukatu nola edo ala. Nik uste, azkenik, gauzak berak dirala eder. Koloreak ikuslea bear du, argia ere bear du, ilunbetan ez baita ageri. Agustin santuak bestera, argiari "regina colorum" koloreen erregiña esaten dio, berez kolore ez ba da ere. Izadian ederra bere baitan ba dagola esan edo diteke. Zeru izartsua, lore-landa, itsasoa, baso aundi bat, urjauzi goi-goitiko bat (Xuberoko Santa Garazi'koa esaterako) ta abar, nonai, gizon guzientzat dira eder. Gizonak egiñetan ere, etxe bat, eliz bat eta abar, guzientzat eder diranak ba dira, zenbait etxe ta zenbait eliz guzientzat ain eder ez ba dira ere. Erri bakoitzaren oiturak eta azibideak dakar, zenbait gauza an eder eta emen ez ain eder izatea; baita, erri bateko bi gizonen aburua ere banakoa gerta diteke zenbait antze-gauzetan; baña, ago batez eder diran gauzak, berak ala diralako dira eder naski.

Sortzezko ederra alde batera uzten dugula, asmatuzko ederra azter dezagun.

2. Asmatuzko ederra

Asmatuzko ederra, ots, gizonak egiña, antza ematea dirudi –*mimesis*– antziñakoek Aristotel'ekin diotenez. Lenik gauzen antza, ta au ez baita aski antzegauza esateko, jardunen edo eginkizunen antz ederra agertzea; beste itzez esan, gizonak beregan nolabait dakusan eder eredua antz bidez agertzea.

Antz au, berez, ikusgarri diran gauzeri egozten diegu; baña, begieri ez ezen beste zentzueri ere nolabait beren antza ba dagokie. Begiak ikusten du eixe bat, aurpegi bat, mendi bat, tarteko errañu bage, beroiek baititu errañu, beren ertz eta mugarekin. Belarriak ere ba du bere errañu-antzekoa, errañu-orde onen ertza ta muga begiena bezain garbiak eta sumagarriak ez badira ere. Orobat ukiak, usmoak, gustoak: dardarakoa, zirrarakoa, aztarrena, zantzua, nai duzun bezala esan, baña erraflu-antzera jo ditekena. Begienari batez ere, errañu esaten baitzaio, ta iduripena, beste oienari ere ariora, per analogiam, errañu esan ditioke. Barrengo zentzuek, batez ere idurimenak, beren errañua ba dute, muga ta ertz garbikin. Begiak itxita, naiz ametsetan eta abar, iduripenez ikusten dugu errañu ori. Beste barrengo zentzuen errainuak, ariora, errañu esan ditezke, ertzik eta mugarik arkitzen ez ba diegu ere. Animaren almenetan ere ariora, ezagu-modu ori, tarteko errañu bezala iduritara oi dugu, ta areagoa, bikainagoa, uki-eziñagoa, animaren antzekoagoa, ots, animatarragoa. Gure ezaguerak oro, mundu ontan beintzat, tarteko errañu-zantzu orren bidez dirala esan oi da, egoki naski. Ortaz, adimenak ere, aditzapenik soilen soilenean errañuzantzua bear du berez. Baita Jainkoa ezagutzeko ere, agiz. Belarriz atzematen ditugun antze-lanetan ere, ele-ederrean naiz musikan, badira begieri ez dagozkien errañu edo antzak; baña errañu izenez esatea bidezko da. Ederra ta antzea gauza guzietan arki

ditezke, ta idurimenak nolabait argitzen baititu berenez errainurik ez dutenak ere, antzeak berez ez du mugarik bere gaietan: nolabait ager dezake adimenak ulertzen dun oro.

Antza dun edozer, antzegai da; ta antzik ez dun gauzari ere antza edo errañua eman naiez, burruka du gizonak bere buruarekin. Guk ezin atxitu baitugu mugatutako antza dun gauza besterik, ortatik dator burruka ori askotan. Batez ere eder eredua errañu mugatuaren bidez erakutsi bear edo adierazi bear ta.

Antza ori zer dan adierazteko, ez ditut gogora ekarriko jakintsuak asmatu dituten adierak oro. Ederra "bizi-gauza da, antz bizia", dio Schiller'ek. Antzeak "egia sumagarriro agertzea" dula asmo, esan zigun Hegel'ek. "Ereduaren agertzapen sumagarria", dio beste nonbait. Croce'k gure egun otan "gauzen adieraztea" dala dio. Izkuntzarekin nasten du aldez ta ia osoz ere, adieraztea izkuntzari baitagokio, batez ere. Gero mintzatuko naiz luzeago Croce ontaz, oso aiputan baitago, ta merezi baitu, egin lezaken okerrarengatik.

Adierazte edo adierazbide ori ez baita bakarra, antzea ere ez da bakarra. Margo-antzea, mukulu-antzea, mintzo-antzea, naiz izkuntzarena naiz musikarena, ortatik sortu dira.

2. 1. Ederraz zenbait adiera

Gerorago ikusiko dugu ederrak onarekin ta egiarekin ba dula arreman; ez du, ortaz, adiera bakarra. Beste zerbaitekin ere ez ote? Egokitasuna ta edertasuna bat ote dira? Gauza bat ederki egiña dagola esateko, maiz esaten dugu egoki egiña dagola. Aidezkoa ba dula ezin ukatu. Orizu, ordea, Platon'ek diona: "Eder izatea egoki izatea ote da?, ots, zeribait dagokiona? Zer da ordea egokitasuna? Gauzak eder agerrarazten dituna, ala eder egiten

dituna? Izan ez ta iduritzea, alegi ta gezur da, ta bila gabiltzan edertasun ori ez diteke eder diranentz iritzi bage. Egoki ta eder biek bat ba lira, ez litzake gizonen artean eletarik edertasunaz, izanez eder diran gauzak oro iritziz ala ba genduz. Taiuak, egokierak, ederra sumagarriro agertu edo adierazi egingo dute, ta aren errañu ditezke; baña errañua ez diteke beiñere gauzarekin berarekin bat jo" (Hipp. Maior). Geroxeago Platon'ek.

Dagokiguna ta on zaiguna berdintsu dira, ta aldez ukitzen dute elkar, bat ez ba dira ere. Onurazko zaiguna dakar berela on orrek, edota Baxenabarren esaten dan bezala, onturreak dituna, protxuzkoa. Ez dakar, ordea, nai ta nai ez irabazizko onik. *Bonus* latiñez protxuzkoa ere ba zan, eta ederrak nolabaiteko onurarik dakarrenik ezin ukatu. Zenbait izkuntzetan *precioso* esan oi da oso ederra danean, eta balioari ezer begiratzen zaionik ezin esan. Gauzagatik dirua emango litzakela, alegia. Gauza eder batengatik diruketak ematen ditunak artatik bizi dan merkataria ez ba da, ez du arekin aurrera irabazi nai; bere buruari atsegin edo atseden eman baño.

lzkuntzari gagozkiola, *bonito* ere esaten dute eder xumea danean, eta *bueno* edo on du jatorria. Latiñez *bene* ta *belle* aide dirudite, ola esaten baita gauza bat ederki egiña dagola esateko. Guk ere euskeraz, ongiren urrena ederki dugu, on eta eder aldetzen ditugula.

Antziñago beintzat, on esateak ez zun "gaizto ez dana" bakarrik adierazten. Gugandik urrun dauden mendeetan orain baño aidego ziran gauza oiek. Ortaz, Platon eta ez dira estuegi artu bearrak, ederrari on-ura, on-turrea (guk erri ontan ezeasuna esaten baitiogu), ots, protxua gogoratzen dutelako. Artara ezkero, atsegin zaiguna ere on zaigu, protxuzko zaigu nolabait. Ederra ta onura bi gauza ba dira ere, elkar ukitzen dute mugaz.

On danaz gero luzeago, baiña, guk euskeraz bezala, griegoek ere ardoari ederra esaten zioten: *kalon oinon*.

Ortaz, ederrean ez diteke erabat aizatu onaren adierarik, irabazizko ona adierazten ez ba du ere.

Egoki esan zun S. Tomasek "ikusiz atsegin ematen duten gauzak" dirala eder. Atsegin ori animaren atsedena litzake, ez irabaziaren atsegiña. Esparik ez du eman bear ederrak, espak ez baitu atsedenik. Egiazko antze-lana balin ba da, atsedena sortu bear digu barrenean: eder-atsedena.

S. Agustinek "taiu-dirdaia" esan baitzion, sorkai guzietan ba da urrenkera ori, taiu ori, burubide ori, txikitik aundiagora, aundiagotik aundienera arte guzieri batasuna ematen dien argana iritxi arte. Baita, "egi-dirdaia" esan zunari gagozkiola, egi bakoitzetik urrengora ta zabalagokora, erabateko egira iritxi arte; argan batasuna artzen baitute diranak oro. Arian arian, denak batera jotzen dutela esan diteke. Naiz dirdaiari edo argitasunari begira, naiz taiuari begira, naiz errañu biziari begira, guziak beren iturria adierazten dute. Ark egiñak baitira oro, ua eredu dutela argan arkitzen da argi-dirdai ori ta urrenkera edo taiu edo burubide ori: Jaungoiko irukoitzaren urrenkera, ta ereduz argan dauden izaki guziena. Antz bizi edo errañu bizi ori zein beste iturritan arkitu? Agustin santuak irakurtzen zun bezala "egin danik oro argan bizi baitzan".

Adieraztea edo aditzen ematea balin ba da, gauza guzien adierazpena dunarengana jo bearra daukagu. Gizonak sortzen duna edo irazaten duna balin ba da, gauza guziak irazan ditunaren antzera jokatzea da. Asma bezate gizonak asma-ala, eder ori zer dan edo zer diteken: eredura jo bage ezin ezer adierazi. An elkar bilatuko dute.

Gizonak egin-ederra, sorkaietan ageri danetik antza artua balin ba da, aldez, dagon eran ua aldatzea iritxiko ez ba du ere –ez baitio berezko bizitasunik eta izaterik emango– aldez ua garaitzea du asmo. Platon'ek ez zitun bi gauza ok bear bezala alkartu.

Azkenik, edertasun ori "gauzen anima" diotena balin ba da, sorkaietan Jainkoaren aztarrena ta asmatuetan gizonaren aztarrena da. Gizonari atsegin bailitzaioke, albait, eder-lanean bere animaren edertasuna agertzea.

2.2. Ederrari beste zear-begiratu bat

Ederra ondorioz ezagutzen dugu alde aldera, ez ordea jatorriz. Ederra zer dan ainbeste eleta izan ondoren, adierarik artzekoena au asmatu dute: "gure ezagumenari atsegin ematen diona". Naimena ere erdikide da, ba du artukizun atsegin ontan, baña ederrak ez du naimena jotzen, ezagumena baño; ta onen bidez, onek gañezka eginda bezala atsegin artzen du naimenak. Ederra ari so egiñez, begiratuz atsegin ematen digun gauza da; ona, ostera, geron baitan dukagunaren atsedena. Beraz, ederra lore bezala, ona zitu edo fruitu bezala.

Guziek gogo duten gauza da ona; "Id quod omnia appetun". Iru sailetan kidekatzen dute Jakinzaleak on ori: guziz gaindiko ona, ots, luze zabalean izatea aiña dana; sortzez on dana; oituraz on dana. Izadian diranak oro on-gura dira; ba dute beren sortze-joera "appetitum naturale", ta beren neurrian betetzen dute on-gura ori. Orien guzien onak dakar izadiaren batera-joa ta ederbidea. Gizonarengan ere iru on, ala esan, arki ditezke: adimenaren ona (egia), naimenaren ona (oitura ona) gorputzaren ona (atsegiña). Ortaz, ederra ere, esan dugunez ezagumenari dagokion gauza baita, egiari dariola nolabait esan diteke, egi ta eder ez dira bat, baña ar-emana ba dute. Bakoitzak beren muga bereziak ditute, baña, alboko diranez, muga alderdi bat biena dute. Gezurrik ez diteke berez ederrik, egia areago nabari-bearrez edo, beraizik esanez edo ez ba da. Egi-antza nai luke beintzat, eta bear ere ba du ederrak. On ta eder ere mugako baitira, obo bat iru zati eginda ikusazu irurak mugako nola diran:



Guziek gogo duten gauza ona bada, esan liteke ariora, guziek adierazten duten gauza ederra dala: "id quod omnia representant". Ez da gauzarik, nola edo ala zerbait eder ori adierazi ez dezakenik. Eza da gezurra. Pekatua bera ere, dana ta egia ta grazia nabari-bearrez, nolerebait biur ditezke adierazte ori izatera. Agustin santuak areago dio: "Nulla foeditate universa creatura maculari permititur", edozer sorkaiek ez derama ondo itsuskeririk txikienaz zikintzea. Griña txarrari ere eder dirudio bere joera. Dan oro, kaxkarrena ere, eder da ezaren ondoan. "Quid amamus nisi pulcrum?" Ederra baizik zer maite dugu? Gauzak, beren izatez, errañuz gaiez biziz gaiñera, beste izate bat agertzen dute, –antzelariak adierazi bear die, beintzat– eta izate orri zenbaitek adieraztea esaten diote, naiz *expresion,* naiz *sinbolismo* esan. Zer adieraziko dute bada? Beren izatez gaiñeko beste izate bat sortzez eder diranak ere: guzien izate ta iturria naski. Gizonaren egitez eder diranak ere, errañuz ta gaiez gaiñera, beste adierazte bat ez dutenik ezin esan. Eta zer adierazten dute? Gizona bera, gizonaren beraren aztarrena. Ori gutxienik; bestela ez lukete izadiko gauza ederrak aiña adierazle. Ori ordea, ez ditekena da. Zertako ari da gizona izadiko ede-

rra garaitzeko asmoz, aldez beintzat? Gaiez ez du berdintzen iñola, Platon'ek dionez; beraz adieraztez. Eder ereduaren aztarrena, goragoko ederra, iturburura nolabait deramana, alegia.

Ederra "guziek adierazten dutena" balin ba da, "guzia adierazten ere duna da". Len esan dugunez, ez da ezer antzeak gai artu ez dezakenik. Izaki guzietan arkituko du artarakoa danak adierazte ori. Ori agertzea dagokio antzelariari, "egia sumagarriro agertzea", Platon'en aztarrenari ondo samarretik jarraituz Hegel'ek esan zun bezala. Adierazte ori gauzak ba dutela ba dakigu, baiña agertu egin bear, edozeinek aditzeko moduan. Aditzea ta adieraztea adimenari dagozkion gauzak dira, ta adimenari egia dagokio berez. Ortaz, egia ere adimenari baitagokio, adierazte ori, edo berdin diona, eder ori, adimenari dagokio. Egi ori, ordea, argitu egin bear du antzelariak, dirdaia eman bear dio.

II. Antzearen jo-mugaz aburuak Grezian

Grezian, aurren-samarretan *mimesis* esan zioten antzeari, ots, antzera egitea, batez ere Aristotel'ek. Antzera egite ontan, aukera-bearra arkitu zan, antzea kaxkartu ta lizundu ez zedin. Gauza guziak antzetara ezin ekarri, ez baitute egi-dirdairik artzen egi izanik ere. Ta beste zenbait gauza, eder-itxurakoak izan arren ez dira antzera-gai, lizuna berekin dakartelako. Ortatik sortu ziran atseginzaleak, antzeari iñon mugarik ipini bage edozein atseginorde naiz gorputz atsegin-orde artu zutenak. Eder-atsegina atsedena izan bear ba du, zer atseden dakarte olako atseginak, espa ta kezka besterik ez ba da?

Urrena gizabide-zaleak agertu ziran: antzea ez dala, alegia, edozer atsegiñetako ta atsegin utserako; irakasteko, gizabiderako, ta batez ere gaztedia ongi lantzeko baño. Aristofane'k garbi adierazi zun: "aurrentzat maisuak dirana, gazteentzat poetak dirala" (*Ran.* v. 1055). Berak egin bertsoetan ba ditu ugari alare, ikasbide ta azibide ematen dutenak. Aristotel'ek ere, musika azibide onerako dala dio, (*Poet.* XIV, *Polit*. I-VIII). Gauza ok, jakiña, gizabidea, gaur esaten dan bezala "landubidea" berakin dakar-

te, edo ori darite, asmo ez ba dute ere. Mende askoz gero etorri ziran *humanista* edo gizabidezale izena asmatu zutenak. Estoarrak ere aribide au egotzi zioten antzeari. Strabon'ek Eratostene'ri buruzki (*Geogr.* 1, cap. 11, pag. 3-9) antzea, atsegiñaren bidez, gaztediaren landubiderako, oitura ta eginkizun onetarako dala dio. "Orregatik, poesia beti landubidearen sail bat izan da. Gizaki on ez dana ez diteke izan poeta on".

1. Erromarrak

Gai ontan araurik ozta eman zuten. Horati'ren *Epistola ad Pisones* zaion jardun artan zerbait arki diteke orregatik: "Aut prodesse volunt aut delectare poetae". Onurakor izatea edota atsegin ematea du poetak asmo. Beste nonbait berriz:

> "Omne tulit puntum qui miscuit utile dulci,
> lectorem delectando, pariterque monendo".

Azken~bertsu ontan dionetik, atsegiñez gaiñera irakastea aipatzen du, au ere onerakoa baita. Zenbaitek zorrotzegi artu dute utile itz au; ez du ordea nai ta nai ez irabazizko onik adierazten, soil soilik onerakoa ere bai, ta itzaren erroari gagozkiola *uti(bi)le*, zerbaitarokoa.

2. Platondarraioak

Platondarraioak, beste izenez Platon-berrizaleak, Plotin izan zuten guraso, Erdi-mendetik oraintsuko mendeko mugara arte. Oen ustez, antzeak Jainkoarekin arr-emana izatea du asmo: On betea dan Jainkoarekin bat egitea, beren burua zori oneko egiteko. Ortatik eman diote mistiku izena sail oni.

Plotin'ek ederki dionez, ederra, batez ere ikuskizunetan datza, baña baita entzukizunetan ere, ots, izketan eta musikan. Sumaz gaindikoetan ere bai, ots, eginkizunetan, oituretan, jakingaietan, on-jardunetan. Zerk egiten ditu eder sumaz gaindiko gauzak eta suma ditezkenak? Ez naski lekukide izateak, simetriku izateak, osoaren ariora. Gauza itsusietan ere lekukideak arkitzen baitira, ta baitira gauza bakarki ederrak, ots, neurgai ez diranak. Ortaz, eder ta lekukide bana dira. Ederra, gure izateari dagokiona, zerbait gure dugunez ontzat artzen duguna omen da; itsusia berriz, gure izateari oker dagokiona. Gauza ederrak gure animaren aide dira, dio, ta batzuk eta bestea ere eredutik sortzen dira.

Ederra, antzatua dagona da, dio; itsusia, ostea, antzbagea: berez antza artzeko gai izan arren, edo artzen ez duna; edota antzak oso mendean daukana. Suma-gauz oro eder da, ez berez, ereduak argi egiten diolako baño. Gorputz ederra, Jainkoaren edo Ereduaren erdikide dalako da eder, ots, Arekin arr-emana dulako. Edertasuna Ereduaren errañua, ots Jainkoaren errañua da. Argia ta sua baitira, dio, gaidunetan ereduaren antzik aundiena dutenak, eta sumakien artean gogo-antzeko edo gogakiantzekoenak, edertasuna oriek barratzen dute ikuskizun diran gauzetan. Edertasun ori sumatzeko, anima garbitu egin bear dugu, ta barnean daukan eredu orri eragin. Ezitasuna, sendotasuna, zuurtasuna ta beste on-jardunak oro ez al dira *garbikuntza* aztiak dionez? Onela, animari, suma-gauzak ikustekoaz gainera beste begi bat agertzen zaio Jainkozko edertasunari so egiteko, ots, On danari; zorionik aundiena iristeko nai ta nai ezkoa. Apurtxo bat labur dezadan, izadian dagon edertasuna, gure animan dagon eredua da, dio; au baita eredua izadiko edertasun guziren iturri bakarra.

Ezer gutxi kenduta nere egin nezake Plotin'ek diona. Ederra ta antzea guri dagozkigun gauzak ba dira, egoki

dana eder da (euskeraz ere ez dute itz ok alde aundirik). Lan-egokia naiz esku-egokia esan oi duguna, antzezkoaren ondo ondoan dabil. Betiko mugak ezin-berizia darabilgu. Antzegabea, antzekaitza, moldagaitza diogu ostera, antzerik edo egokitasunik ez dunarengatik.

Gauza ederrak animaren aide dirala dio. Au irakurrita ez ote zun Hegel'ek atera arako ua: anima errañutu bear dula gauza guzietan antzaren tartetik?

Antzeak *ditekena* antzeratzen omen du, ez izadian dana. Idurimenaren bidez, batez ere. Sokrate'k, Parrasiu margolariarekin mintzo dala, margolariek gorputz banetatik gaia artzen dutela dio, beren giza-iduriak egiteko. Zeuxis margolariak, Elena margoztu bearrekoan, Krotona'ko bost neskatxengandik iduri zitzaiona artu omen zula esaten zuten antziña. Fidias'ek, Jupiter'en mukulu iduria egiten zularik, ez omen zun, Kikeron'ek dionez, izanezkotik ezer artu; bere baitan zedukan eder-eredu bati begiratuz ordea.

3. Erdi-mendean eta pizkunde-mendean

Erdi-mendean Dionisi Arcopagita dalako aren adierak zabaldu ziran, ots, mistiku-zaleenak. S. Tomas Aquino'koak antzearen iturri Irutasuneko bigarren Persona egin zun, Aitaren aditza danez *(imago expressa Patris*). Onen billa ibilliak dirudite Platon, Plotin eta gure siñesterik ez zuten besteak, Eredura jotzen zutenean. Ez da arritzekoa S. Agustin eta beste katoliko asko ain Platonzale izatea.

Baña batez ere, Erdi-mendean, antzearen ikaskizunera edo landubidera jo zuten berriz, orduko oiturazko ta erlijiozko zegozkiela. "Docere delectando", atsegiñez erakustea, zioten geienak. Atsegiñez, alegia, *egi* ta *on* izen soilik entzun nai ez dutenentzat, ezin dutenentzat, ez

dakitenentzat, aieri atsegin bidez gaiztotik eta gezurretik alderagiteko.

Pizkunde-mendean (en la época del Renacimiento) antzea gizabiderako, landubiderako delazko aditzapen au nabarmentzen da. Ederrari ta antzeari buruz ez da irakaskizun artzekorik sortu.

4. Oraintsuko mendean: Hegel

Antziñako Estetika'ren guraso Aristotel dan bezala, oraintsukoaren guraso jotzen dute Hegel. Onen Estetika bear bezala adierazteko, ulertu ere egin bear da, izkutusamarra baiterabil: Erabatekoa, Eredua, Agertzapena, ta abar, luzeago jardun bage ez ditezke aditzera eman. Gizon askojakiña zan, Platon'engandik eta Ploti'engandik, Aristotelengandik, bere aurreko guziengandik asko baliatu zan bere aldera ekartzeko ta nasteko. *Eskolastiku* zeritzaien jakinzaleen ezaguera ere ez zun makala, bere aldera okertu ba zitun ere. Aditzapen mugatuen arloan omen daude, lenik Antzea, urrenik Erlijioa, goienik Pilosopia, kaxkarrenez aurrera. Ortaz, Pilosopia guzien buru, atzetik Erlijioa, azkenik Antzea. Eder eta Egi bat omen dira aldez, eta bana bestera. Egia "eredua bere baitan" omen da, erabateko etorburu; baña Eredu orrek ez baitu beregan sumakizunik, sumatzeko moduko agertzapena eman bear omen zaio, ta orduan biurtzen omen da eder.

Hegel'en Ereduak Platonenaren kutsu apurra ba du, besterik ba da ere. Eredu orrek bere baitan izatea ba dula dio Platon'ek; Hegel'ek ere izatea egozten dio, aldez ezaren ondo ondokoa, baña aldez, diran guzien etorburua, nola edo ala. Izatea ta eza berdin jotzen ditu, ta osin ontatik ateratzeko, beste izen bat asmatzen du: *werden*, euskeraz *izateratu*, edo gure lapurtarrak Hegel baiño len *bilhakatu* esaten baitzuten. Olako oiñarriekin ezin arri-

etxe bizkorra egin, kartoiezkoa baño. Gauza guzientzat nola edo ala maratillak eta adierazbideak izanik ere, Pilosopian uts aundiak ditu. Bauru-arloan Estetika aula du, baña antze-lan bakoitza aztertzean oso suma bizia du. Itzazu Menéndez y Pelayo'ren itz ok: "Beiñere ez zitun artean iñork ain jabetuz eta ain begi zorrotzez aztertu, agoten arkitektura, griegoen mukulu-antzea, italiarren eta holandarren margo-antzea, Homer'en epopeia ta oraingo jardun-antzea". (Id, *Estet.*, VII, 280).

Eredu-zaleen urrena izadi-zaleak etori ziran. Izadi-zale on izan ba lira nonbait or; izadipeko, ots, gordinzale izan ziran, obeki esan, batez ere Zola'rekin Prantzian.

III. On eta eder

Eder ez da Egi, ez On, bai bien arteko edo jarioko. Adimenak egia du jomuga, ez berez gezurra; naimenak ona, ez berez gaiztoa; atsemenak, nolabait esan, ederra. Egi-antza, ta on-antza, arlo zabalagoan dauzkagu egia ta ona bano, zentzuen menpean baidaude. Ortaz, gezur-antzera ta gaizto-antzera eragin dizagukete gaizki eziz.

Egi-antzean ta on-antzean daukagu eder-iturria, Egi eta On len dirala. Onetik eta egitik ez datorke gauza gaiztorik; egiantzetik bai gezurra, on-antzetik bai gaiztoa. Egian eta onean geron adimena ta naimena nolabait ikusten ditugu. Obeki ikusi nai ordea, ta egi-antza ta on-antza duten gauzetaz ere balia nai, geron burua, geron barrena ongi ikusi naiez. Ez naski gerekoikeriz. Askotan besteren antza artzen dugu, batez ere onean. Egite bikain askoren jabe gerok izan nai genduke.

Jainkoak egin-ederra ta guk egin-ederra ein batetsuan ikus ditzakegu. Jainkoak egin-ederrik oro, Bere aztarrena du beti, gauzarik kaxkarrenetan ere. Zenbait gauzetan, guk ederren derizkiegunetan, ispillu ere bai, ganduzko samarra izan arren. Antza bai beintzat, "ad imaginem et similitudinem" egiñak baikaitu. Jainkoak ez dezake Bere ispillu garbirik arki, beraz kanpo atera ditun

gauzetan; bai ordea aztarrena. Guk ere; gerok egin gauzetan, batez ere antzelanetan, geron aztarrena billa nai dugu, ta al ba gendu, izpillua.

Gizonak ez dezake antze-gauzarik sortu, bere buruaz beste ditun gauzetaz balia bage. Bere buruaz-besteko gauzetan isuri bear du bere antza ta antzea ere. Jainkoaren antzekoa da ontan. Jainkoak beregandik kanpora mundu au eginki bere buruaren antza-urrutitxokoa bederen ezarri zion.

Eder eta On elkarren lagun aundi dirala ager-bearrik ez dugu. Ortaz, eder-lanak eta on-lanak –oitura onak– elkarren kide ditezkela aitortzea, ez da aundi. Ez omen ordea, zenbaitek esan digutenez: antze-gauzak eta oiturak ez omen dute ikuskizunik edo ar-emanik. Antze-lanak edo eder-lanak bere burua omen du begira-muga, ta bera ez omen da beste ezeren eta iñoren mendeko. Gero azalduko baitut "art pour l'art" deritzaioten esan ori, orain ager dezadan gezur xuri au: antzea ta oitura bi gauza dirala ta beraz ez dutela ar-emanik elkarrekin.

Emen beraz, alderantziz dionak ez du bere denboran logikarik ikasi, edo aztu egin zaio. Antzea ta oitura bi gauza dirala. Egi aundia. Zeren eskubidez atera diteke, ordea, berak elkarrekin ar-emanik ez dutela? "Au ta au bi gauza dira, beraz, elkarrekin ar-emanik ez dute" esan al diteke? Ederra gauza bat da; bere mugak ba ditu. Ona beste gauza bat da, bere mugakin; baña ez al dira auzoko sarnar? "Ardo au ona da" dionak zerbait dio; "ederra da" dionak, ez du lengoarenik ukatzen, emen ona ta ederra elkarrekin ar-emana edo ikuskizuna duten gauzak baitira. Ortaz, beraz, ona ta ederra bi gauza izan arren, ar-emana ba dukete. Adierazi dezagun astiro.

Ni bat naiz eta nere aita beste bat; ba dugu ordea bi ok ar-emana. Ni gizon bat naiz, zu beste bat zera; baña, senide edo adiskide ez izanik ere, bi ok ar-emanak ba ditugu, gizartean bizi geran ezkero. Zuk zere eskubideak

dituzu, nereakin eta beste gizonenakin mugatuak; nik nere eskubideak ditut, zureakin eta beste gizonenakin mugatuak. Or kalean topo egiten dut zurekin, eta ni ezkerreko espaloitik baldin ba noa, zuri bidea zor dizut; eskuiñekotik, zuretik, baitzoaz.

Ar dezagun gizon bat. Urlia mendizale da, ta baita kristau ere. Mendizale izateak, goiz goiz igandean ere mendira egurastera igotzeko agintzen dio; baña kristau izateak lenik meza entzutea agintzen dio. Mendizale izatea ta kristau izatea, bi izate ditu, baña bi izate oriek ba dute beren eskubidea ta beraz ar-emana gizon batengan.

Ni bat naiz, eta idazten ari dudan luma beste bat: oso besterik. Ala ere ar-emanik ez dugula nork esan lezake? Luma ta tinta ere bi gauza dira, oso bi gero; bata zurezko, exurrezko, urrezko edo gogorra beintzat; bestea isurkaia, uraren antzekoa. Nork esan ordea ikuskizunik ez dutela? Lumaren, tintaren eta nere artean, iruron artean atera dugun letra, gugandik oso besterik da. Nork esan, gurekin ar-emanik ez dula? Ortaz, gaizki esana dago, gauza bat eta beste gauza bat oso bana diralako, ikuskizunik ez dutela. Ondore ori, logikarik ez dakinak ateratzen du.

Gizon bat bera argitzen du egiak, jasotzen du ontasunak, pozten du edertasunak. Burua ta biotza bear ditu antze-lanak egiteko ta aieri atseginez begiratzeko. Ez da bada aundi, Egi, On, Eder, gizonagan etxeko izatea.

Antze-lanak ba dute ikuskizun gizonaren biotzarekin, ots, naimenarekin, naimena ordea oitura-legeen mendean dago; beraz bai ta antze-lana ere.

Esan beza nai dunak: "jakintzak ez du ikustekorik oiturakin; matematikak naiz pilosopiak ez du ar-emanik oiturakin". Bedi; buruari, adimenari soilik baitagozkio; antze-lana ostera, biotzari, naimenari ere ba dagokio, gizonaren atsegiñerako baita, ta atsegiña naimenera sartzen dan gauza da. Jakintza egi billa baldin ba dabil, antzea

atsegin billa. Beraz eder danak, atsegin danak, antzelanak, ba du ar-emanik oiturakin.

Jainkoak egin-gauzak, eginak diranez, elkarrekin aremana ba dute, guziek Jainkoa baitute azken-muga. Gizonak ez ezen, gizonak egin-lanak ere ba dute beren begira-muga, naiz gizona bera, ta aren bitartez Jainkoa, naiz bitarterik bage Jainkoa.

Egi, On, Eder, gizonak iru etxeko ta barrengo ditu. Gezurra ez diteke berez beiñere eder izan, ez ta gaiztoa ere. Gizonak sortu-ederrak egi-antza bear du. Ederrak on-antza ere bear du. Gaiztakeria berez ez da edergarri, iñoiz ontasuna areago nabari bearrez edo ez ba da. Egi-antzak zenbait aldiz gaiztakeria ere agertzea eskatzen du, ez ordea artara eragitea. Gezurra ere par eragiteko edo, edergarri diteke zenbait aldiz.

Egia ta ona ditu gizonak bearrenik. Ederra oietatik sortzen da nolabait. Egi ta On dira aizparik nagusienak. Eder aizparik txikiena dute, alaba ez ba. Egiaren eta onaren erdian bezala dakusat nik ederra; bien dirdaietik sortua. On eta Eder, aizpa ez ba dira, ama-alaba dira, ta alaba orrek ama orrengandik bular gozoa artzen du. Eder'ek ez du asmotzat edo jo-mugatzat Oitura. Ala da; baña zuzen begiratzen ez ba dio ere, zear-begiratu bat ematen diola iñork ezin uka. Nere ustez, egizalea berez bikaiñagoa da ederzalea baño; on-zalea areago. Homer baño Aristotel aundiago; biek baño Xabier areago. Egia bera zenbait aldiz eder da; ontasuna areago.

1. Ederra gauzen kera

Esan baitigu arestian S. Agustinek gaizto diranak ere on-antzean, eder-antzean maite ditugula, esan genezake berebat gezur diranak ere egi-antzean, eder-antzean maite ditugula. Ortaz, eder ori antza da; beste izen batez esan, gauzen kera da.

Ederra zeruetaraiño jaso naiez zenbaitek egia ta ona baino areago dala esan dute, edatuago dala. Ez naski. Eder'ek ez ditu bere barrenean artzen Egi ta On; aien kera danez mugatzen ditu. Kera aurpegiarena, begiena ta abar da; aurpegia, begiak eta abar ez dira kerarenak. Edertasuna egiarena, ontasunarena, izatearena da; izatea, egia, ontasuna, ez dira kerarenak. Kera ez da gauza bereizia, ez du izate bereizirik. Ortaz, ederra gauzaren muga da. Muga arkitzea adimenari dagokio ta idurimenari. Egia berez garaiagoa da ederra baño; baña inoiz muga bat eskatzen du atzeman dezagun, kera, antza, edertasuna. Emen dator burruka, adimenak mugak zabaldu egin nai baititu ta idurimenak ertsi. Bai, askotan adimenak ezagutzen du muga-bearra ta idurimenari eskatzen dio.

Kera ori, muga ori, bitara jo dezaguke orobat: muga garbia berez ertzak ongi ageri dituna, ta, muga lañotsua. Bietakoak artzen ditu antzeak, margo-antzean berean ikus dezagukena. Ele-ederrean ere ba ditugu Dante'ren iduribideak alde batera, ta Milton'enak bestera. Zenbait aldiz, gauzak berak duten kera garbia da ederrena, arkitu ezkero. Guk egozten diegun kera ere, gauzean bertan arkitzea oberenik. Aurpegi bat, zuzenka begiratu ezkero, ez da saieska begirata bezain nabari. Zenbait aldiz gauzeri ere saieska begira bear diegu, gure idurimenari obeki dagokion antza arkitu arte. Izenez ta izanez muga dana, buka-muga, batez ere idurimenari dagokio, baña guk gauzean bertan arkitzen duguna ager-muga, naiz geron buru-jokuz egozten dioguna, egoz-muga, berebat dagokio adimenari ere. Orregatik, antze-lanean bi kemen ok elkarri lagundu egiten diote, batez ere bien aldera danean, bakoitza bere aldera ari danean. Buka-muga ori idurimenak berez usu arkituko dio gauzari. Ta au ederrena ez ba da, adimenak berak zirikatuko du idurimena, saieskarako edo beste muga egokiago bat billa dezaion; eta ezin ba du, beste muga bat egozten lagunduko dio, egiazko antz-lana ta antze-lana atera dezan.

Belarrieri dagokien kera ere zer dan emen adierazi bear genduke. Kera esaten baitzaio ariora, ta ederki esana. Artea, tartea bere lenagoko itzez esan aldea, ta garaia, astia, irautea, lenagoko itzez esan, aldia dira kera oien guzien erabateko muga. Alde-aldietan (*en el tiempo y en el espacio*) jokatzen dira mintzoa ta musika, ta or artzen ditute beren bakoiz-mugak. Soñua dute gai; nai ta nai ez alde-aldietan gertatzen dana.

Soñu orrek iru nola-izate ditu: ba du bere indarra, ba du bere goi-beea, ba du bere iraun-aldia. ez ditu ordea oriek aski bere kera bereizia, antza, antzea artzeko. Bear du gaiñera urrenkera; bear ditu noizbeinka aterguneak, ater-urrenak, ori baita *rhythmus numerus* esaten zaiona. Aurren-urrenak nai ta nai ez lituke, atertu bage ari izanean ere, bañan urrenkerarik ez, "nam rhythmus in continuatione nullus est', esan baitzigun Kikeron'ek. Eta mintzalari bat ez litzake eder azkengabeko arnasa ba lu ere "etiamsi cui sit infinitus spiritus datus" olako ater-urrenik igi-neurririk ez ba lu. Ez da aski ordea urrenkera au ere, soñuaren, ez urrenkera au ere aditzapenetan, urrenkerarik ez ba da. "El ritmo de las ideas" esaten zaiona, burutapenen urrenkera, ez da batere bear-urrutigoa.

Jakiña, antze-motarik bikaiñena mintzo-antzea dala esan diteke; baña musika-antzeak ba du alako zorabide bereizi hat, antzelan guzietan geiena bezala erakartzen baikaitu. Emen dute leku len esan dugun kera lañotsu oiek. Mugak eta ertzak garbi ditun gauzak atsegin ematen digu, baña baita illuntsuago ditunak ere. Alde batera, adimenari muga lasaiagoak uzten zaizkiola dirudi guzia garbi esango ba litzaio baño.

2. Antzera egitea

Etzun itzazu Platon'en zenbait itz eder: "Ar ezazu ispillu bat, eta jar ezazu alde guzietara. Jarri bezain laister,

an egingo dituzu eguzkia, naiz izarrak, naiz zere burua, naiz antze-lanak eta esan dugun oro" (*Republ. X, I*). Izadiaren antzera egitea bakarra ez dagokio antzelariari, ez baitezake, lenik, ispilluak aiña ere egin: belar bizia, landare bizia, gizon bizia, ispilluak berak ere ezin egin, errañua ta mugimentua ezarriarren. Artara ezkero, ispilluak antzelariak baño obeto antza ezarten dio izadiko edozeri. Urrenik ez esan, izadiko landa-inguru edozeinetan dagon guzia, antza zearo ezin emanda ere, al diteken antza emanaz-gaiñera, gizonak beste zerbait ezarri nai ez dionik. Oarkabean agiz, bai, baña beste zerbait beiñipein. Antzera egiten asita ez legoke atseden, ispillua baño motxago gelditzearekin. Platon'ek berak dio jende txearentzat: "Jende txeak igarri al dezaioke ederraren jatorria bat dala, ta eder diran gauzetaz beste dala?" (*Repub. VI, 3).* Landa-inguru apain bat margoztatzen dularik, margolariak ari antza ematea bakarra nai dula nekez adierazi diteke. Beste zerbait nai du ark ere, ez baitaratu arren. Zerbait ori, adierazteko zail geldituko da beti, baña eder eredura-naia dala esan dezakegu. Platon'ek berriz": *Sokrat.* –Bizi al da egitan, gauza ederrak ezagutu arren, Edertasuna bera bere baitan sumatzen ez duna, ta artara eraman nai dunari ezin jarraitu diona? Ametsa ala egia litzake ori? Begira, zer da amets egitea? Ez al da, antzeko gauza gauzaren beraren ordez artzea, naiz lo naiz esnai dagola? *Glauk.* –Nik ametsari izen ori emango nioke. *Sokrat.* –Zer ordea? ametsa ala egia dirudizu, aldiz, Ederra bere baitan dagola siñesten dun aren bizitza, eder ori begiztatuz, naiz berez eder dan gauzean, naiz ederraren izatea darion artan, eta Ederra bera gauza ederren ordez eta gauza ederrak ederraren beraren ordez beiñere nasten ez ditun aren bizitza? *Glauk.* –Aren bizitza egizkoa dirudit (*Repub. V, 3*). Antzegilleak berebat, bizitza ori bizi bear du, ta ortatik jario bear zaio antze-lanean antzaz gaiñeko beste zerbait ori. Platon'ek ostera: "Bai,

Adimen maite, izanez dan utsaren begiztaldian ari danaren begiak ez du astirik gizonen jarduerara jeisteko, ez aiek gorrotoz ta samiñez betetzeko; aldiz, ar-eman eta burubide bera duten gauzetara begiak zorroztuz, eta beiñere elkarrekin nastu bage, arrazoiaren eta burubidearen legepean daudelarik, albait, aien bateratasuna antzerazten eta beregan adierazten ari da. Uste al duzu iñor, arrituz eta maitatuz zerbaitengana urbildu ditekenik, aren antzeko izaten aleginik egin bage? *Sokrat*. –Ez diteke" *(Repub. VI, 2).*

Bestera esan diteke, gizonak bere aztarrena antze-lanean utzi nai luke1a ere, oartuz naiz oarkabe. Ez ordea bereegia, aren antze-lana ez bailitzake guziekikoa, antze-lan bikainak eskatzen dun bezala. Edozein gizonek, antze-lan ori ikustean, bere buruaren aztarrena nolabait ezagutu bear du, ta gizonak oro ederra dala diotenean, orduan izango du giza-aztarrenik aundiena ta guziekikoa. Gizonak, ordea, beraz gaiñeko zerbait atzematen du antze-lan gain gaiñekoetan beintzat. Eder eta On bat ez ba dira ere ta ederrak ona asmo ez ba du ere, ona dario. Ta nolanaiko onak eta ederrak ez gaitu asetzen, ez ta nolanaiko antze-lanak ere; baña asetzen gaitunean, beiñere aspertu bage artara itzultzen geranean, ezagutzen dugun onik aundiena sumatzen dugu, ta ezagutzen duguna baño aundiagoa aztarrenatzen dugu: on-iturria bera, artara-nai isil bat biotzean sortzen zaigula.

Bakoitz danaren muga urratu-naia dugula esan baitut len, bakoiztasunean arki diteken antzea edo ederra ere, guzierako muga zabalegotik datorkigu. Antzelariak, bere aztarrena baño zabalagoa ezarri bear dio antze-lanari, giza-aztarren guzizkoa, albait, eta giza-aztarrenaz gainekoa. Bakoiztasunari uko egite ortan, gizon antzelaria ta santu Jainko-ikuslea berdintsu ditugu: bakoizkako oro alde batera utziz, erabateko dan arengana jotzen baitute, batak oartuz, besteak oarkabe. Bide ortan ez ditu ezerk

ere saiesten: ederra ta ona, beste mugarik eta asmorik ez dute, beste saririk nai ez dute. Naiz santutasunak naiz edertasunak, beren berenez eragiten eta erakartzen dute; ta santuaren santutasuna naiz antzelariaren eder-lana begiematen ditunari, berebat gertatzen zaio. Beti ordea, aietan ezagutzen dugun ona ta ederra baño areagoa igarritzen diogu, erabat santu ta erebat eder dan Arengana aztamuka goazela. Ortatik dator ederrak guri besteren esparik ez ematea. Esparik-eza bear omen da eder-lan bati so egilean edo begiratzean, eta gauzak ala dakar.

IV. Egi ta eder

Ederrak egiarekin ar-emanik ba dun ikusteko, azter dezagun bien adiera edo adi-muga. Gauzen izana ta gauzen egia bat dirala diote jakintsuak, ots, ba dala izan-egia, gauzen egia (*veritas verum*) gauzeri bereri dagokiena, izanezkoa, alegia. Ortatik gero gure baitako egia, ezagu-egia, ots, ezagumenaren eta ezagu-gauzaren arteko kidegoa, antza. Naiz bat eta naiz bi bere ditu ederrak; are geiago, egi diranak ez ezen, egi-antzeko diranak ere bai. Orregatik esan zun Aristotelek, antze-eleak gerta-jakintzak baño arlo zabalagoa dula.

Eder-lanean, gizonak egindako ederrean, gutxienik ikusten dunak ere au ikusten du: "izan ere ala da", ots, gauza onek izan-egia ba du. "Orretxek bai berbera dirudila", "bai ederki adierazten dula", ta abar. Izanean danaren antza, errañua ikustea da aurrenik, baña baita gutxienik ere eder-lanean: ori da egiaren dirdairik aulena. Egi onekin bakarrarekin ez gaude erara, ez gaude atseden; gorago zerbaiten billa goaz.

Margolari batek ez du atsedenik, antzaz gaiñera beste zerbait antzagai artutakoan ipintzen ez ba du. Fotografiak bein beingo errañu bat ateratzen dio gizonari, orduorduan atzematen dun bezala, ta ez oso jator, agiz jarri egiten baita. Noiz nai ere, denik jatorrena aterata ere,

orduko une ua bakarra errañutzen du, ez erabateko errañua, giza-ariurri ta guzi agertzen dituna. Au gogo du, albait, margolariak. Berebat besteneko antze-lanetan ere, gauzaren beraren errañuz gaiñera, beste zerbait ezarri nai diogu antze-lanari, lan ori landa-inguru bat besterik ez ba litz ere. An ipiñi nai du antzelariak bereki zerbait eta egiazko antzelariaz mintzo geranean, au olakorena da ta ori alakorena, bereizten ditugu, gizon baten beraren antz-irudian ere. Alare, batak bestearena zearo aldatu ere egin dezakete, norberaren eunera edo olera.

Zer ezarri nai diogu bada antze-lan bakoitzari, gauzaren beraren egiz gaiñera? Beste egi bat areagoa, beste adierazte bat izkutuagoa. Olako antzelan olakorena dala nai ta nai ez diogunean, antza baño zerbait geiago ba du lan arek, iñolaz ere. Zer ote da zerbait ori?

Bakoizkako gauzetan agertu bearra daukagu antze ori, ta berebat, bakoiztasun ori kendu nai diogu, guzierako zerbait ezarriz. Emen gure burruka. Antzea iduriari dagokio batez ere, ta iduria bakoiz-gauza da; baña bakoiz-muga ori urratu nai dugu beste aldera, guzierako egiteko. Idurimen adimenak beren aldera egiten dute: idurimenak argitu egin nai, mugatu egin nai, adimenak guzierako biurtu nai. Adimenak askotan laguntza eskatzen dio idurimenari, adikizun soilla argitzeko; baña bere jabetasunari eutsi egiten dio, idurimena aski ez dala antzemanik. Muga ori zabaldu egin nai luke, beregandik irten nai luke, gorago jo nai luke poz aundiagoaren billa, bera berez mugatua dala ikusiki. Idurimenak eta adimenak elkarrekin ar-emana ba dute, naiz elkarri laguntzeko, naiz elkarrekin burruka ari izateko; berebat, ederrak eta egiak ere, iñoiz elkarri laguntzeko, iñoiz elkarrekin burrukatzeko. Burruka ortan, ordea, biek aterako dira nagusi antzearentzat.

Gizonak, itsasoaren aurrean esertzen dalarik, aurrena bakoizka bezala ikusten ditu gauzak; begira egonez, ta

egonez, ordea, galtzen edo du bakoitz-aztarren ori, ta guzia erabat begiratzen du. Ortik sortzen zaio alako barnezirrara legun bat, mugagabearen aztarrena litzan gisan. Olatuen marrua, arkaitzean lertzen diraneko zurrumurrua, aizearen xixtua edo ziztua, ara ta onara dabiltzan txalupak naiz antxitak, luzaro bage erabat sumatzen ditu, zeru-mugara begira, dagolarik. Egoera erdi-sor ortan, naiz gauzak, naiz berak, bakoitz-aztarren ori galtzen dutenean, barren barrenean gozo eragin bat sumatzen du, gorago deitzen diola. Gizonak orduntxe arkitzen du bere burua txiki; bere arteko burruka isiltzen zaio, ta bere burua aundiago sumatuz, gorago naia sortzen zaio. Bere buruaz gain dan gauzaren billa asten da ezarian. Egi aundiagoa gogo du.

Gain gaiñeko antze-lanari ere ori dario. Izanean dan errañu utsak ez du asetzen; izaki bakoitzaren egia bakarra ez zaio aski; bakoitzaren muga-barrenean ez du gelditu nai guzierakoa sumatu bage.

Eder eredua

Egi bakoitzetik aldegiñaz, egi guzizkora bidean asi gera. Egi guzizko ori azken azkenean bakarra da, ta artara jotzen dugu oarkabe. Sumatzen ditugunak oro, askotsu dirala ta, guzien batasuna billatu nai dugu, ta aiengan billatzen ez ba dugu ere, gerok ematen diegu batasun ori. Izadian batasuna arkitzen dugu askotasunean ere, ta au argitu bearrik ez dago; baña, gauzak gerok geran bezala egiten baititugu, ta gerok bat baikera, ezagueraz batasuna ematen diegu. Egoki esanik utzi zun Fr. Luis de Leon'ek, *Nombres de Cristo* (cap. 11): "Gauza guzien on betea, ta batez ere ezaguera dutenena, bakoitzak beste guziak bere baitan idukitzea da, naski; ta bat izanik, albait guzi aiek izatea; ontan urbiltzen baita guziak bere baitan dauzkan

Jainkoagana. Ta ontan areago ta Ari urbilago, Aren antzeko egiten dalarik. Antz au da, ala esan, gauza guzien erabateko iturburua, ta sorkaiak oro beren biotz galea bialtzen duteneko jo-muga.

Gauza guzien on betea, ortaz, gu bakoitza mundu betea izatea da, guziak nigan ta ni guzietan gaudelarik, eta nik aien guzien izatea izanik eta aiek oro nere izatea izanik, munduko izadi guzi au elkartu ta lokarritu dedin, eta ainbeste gauza banak batasuna ar dezaten, eta naste daudela nasi ez ditezen, eta asko izanik ez ditezen, eta begien aurrean askotasunari ta banatasun ori edaturik eta zabaldurik ere, batasuna guzien gain bere erregin-alkian garai eseri dedin. Ori baita izakia Jainkoagana urbiltzea. Izate bakar, bakarki, bikain artatik dario izaki oni, iru nortasun baititu, ta ulertu ez ditezken bikaintasunak azkengabe".

"Gure on betea, diodanez, au baita, eta bakoitzak bere on betea gogo baitu, eta izadia ez baita urri gure bearrezko naiak estaltzeko, bestetan bezala ontan ere, ikusteko arduraz ornitu gindun. Alegia, ez baitzitezken mukulu lazkarra duten gauzak guregan bata besteren gain egon, bakoitzari, bere izateaz gaiñera, beste antz-izate bat eman zien, illunagoa, ta nolabait artatik sortzen dana, arekin gizonen adimenean bakoitza egon ta bizi zitezen, bakoitza guzietan eta guziak bakoitzean. Ta beren izate lazkarrean bakoitzak bere lekua iduki arren antz-izate artan, asko, nasi bage egon zitezkela erabaki zun, leku batean, elkarrekin, eta aundiago dana, norbera une berean alde askotan egon zitela.

Ispilluekin gertatzen danak garbi adieraziko digu. Ispillu asko biltzen eta aurpegi-aurrean ipintzen ba ditugu, bakarra dan aurpegiaren errañua, bat bera ta une berean errañutzen da bakoitzetan; eta aietatik, errañu aiek oro, nasi bage, begietara biurtzen dira, ta ispilluei begira dagon aren animako begietara. Ortaz, gauzaz oro bizia ta izatea ba dute gure adimenean, ulertzen ditugunean...".

Gauzen antz-izate oiek antz batetik datoz gauzetara ta gugana, aurpegi bat ispillu askotara bezala –esan baitugu len– Jainkoa gauzetan nolabait ispillutzen ta batasun onekin guzien iturburura goaz gauza bakoitzen mugak urraturik: ereduaren billa.

"Esazue, dio Doniane Gurutzeko'k zuengandik igaro al dan" eta sorkaiak erantzuten diote: "milla edergarri isuriz leiaka igaro zan zugatz ibar otatik, eta begira zijoala, errañu utsarekin, bere edertasunez jantzirik utzi zitun".

Mil gracias derramando
pasó por estos sotos con presura;
y yéndolos mirando,
con sola su figura
vestidos los dejó de su hermosura.

V. Antze eta eder

1. Maite ta eder

Mintza bedi Platon: "Maitasuna zerbaitena da, ta ez daukagun zerbaitena. Zerena, ordea, ederraren maitasuna ez-ta, Jainkoak guzia ederraren maitez taiutu baitu, ta itsusiaren maitasunik ez baititeke?" (Orobat S. Agustiñek). Maitasuna berriz, ez dun edertasunaren billa dabilla; ez diteke beregan ederra izan. Eta on dana eder ere balin ba da, maitasuna ere ez da ona, ez daukan ondasuna gogo baitu...

Maitasuna ez da eder, ez da on, ez itsusi ez gaizto ere; ustea ere ez baita ez-jakitea, jakitea ez ba da ere, bien tarteko baño. Eder ez dana, ez da nai ta nai ez itsusi; on ez dana ere ez da nai ta nai ez gaizto. Ortaz, edertasuna ez da Jainko ez baita eder eta zori oneko. Ez da ordea ilkor ere, ilkorraren eta ez-ilkorraren tarteko baño. Beraz aingeruki bat da, aundia ta ez bezalako al-izateduna baño. Aingerukiak tarteko ditugu, gizonen eskariak jainkoei eramaten baitizkie, edota gizonei jainkoen gogoak ekarri, ta izadiaren bateratasunari eutsi, ilkor ta ez-ilkor, zeruko ta lurreko lokarrituz. Aietatik darizkigu igarkuntza ta aztikuntza ta lilluragintza ta il-eskeñiari dagokion oro. Aingerukien bitartez dute elkarbidea jainkoek gizonekin,

naiz esnai naiz lotan. Aingeru otatik bat da Maitasuna, Poros'en eta Penia'ren semea, (Poros Ugaritasuna jainko egiña, ta Penia Beartasuna jainko egiña), Aprodite'ren jaiotegunean ernea, aren ama oiñutsik eta zarpillez betea, eskale jainkoen atarira etorri zanean. Beartasunetik jaioa baita, oso beartsua, igarra ta zimela da; oiñutsik eta berotzeko su bage dabil, lurrean lo egiten du, karriketan, bideetan. Ugaritasunaren seme ere baita, bizkorra, ausarta, setatsua da, beti, on billa ta eder billa dabil, azpikerian eta asmakerian yaioa da, gezur-zuria, lilluratzaille ta zoragarria. Ta ez baita jakintsu ez ez-jakin, ikasnaia du, ta Jakintasunaren adiskide da.

Maitasuna, Ona ta Ederra beregan idukinaia da, gizon guziek ere gogo dutena, guziaren izena maitasunmota bati egosten diogun arren, edergintza-mota bati poesi (egintza) izena ematen diogun bezala. Maitasunmota berezi au ulertzeko, baitipat Maitasun esaten baitiogu, begi emaiogun onako oni. Ba du ederrak alako erdi-bear bat, naiz gorputzari naiz animari dagokionez. Anima ilkor bat ez-ilkor biurtzen da, bateratasunean ernatuz ta sortuz; eta ederra emaldiaren zaindari da, Parka ta Lukina bezala. Ortaz, Maitasuna eder-miña baño ere erdi-miña da edertasunean.

Edozein sorkaiek, sortukor ta ilkor danez, il ez-naia du, ta emal-bidez bere bizia izate berri batean luzatzea. Orrela biurtzen da ilkorra ez-ilkor, ilkorra atergabe aldabera baita. Emendik sortzen da aipu-naia, onengatik eriotzera oldartu baitziran Alkeste gaisoa ta Akileu ta Kodro. Gizona bikainago, eziltasuna maiteago. Batzuk gorputzean dira emaltzu besteak animan, eta oneengan emaltzen zaizkie zuzentasuna, gogo-neurria ta on-indar oro. Animako emaltasun au poeta guziak eta edergilleak eta asmalariak ba dute; uria ongi zaitzen duten Jaurleek, ordea, zuurtze aundiagoa dute. Beregan ernal-min au daukanak, ta on-indarraren azia berekin deramanak ezagu

begiak zabaldu orduko, izate ederren bat ematu naiean dabil, eta itsusitik berez aldegiten du. Maiteago ditu bada, anima eder eta aundikia inguratzen duten gorputz ederrak. Eta izaki eder eta maite orrekin bat egiñik bizi dala, animan daukan on-indarraren azia ernatzen du, ta argana derama, gurasoa semearengana baño maitatzarre itzaltsuagoz. Ola ernatzen dira on-indar eta jakite-zituak: lanegin ederrak eta lege jakintsuzkoak, Likurgorenak edo Solon'enak edo. Olako gogo-semengatik eraiki dira Elizak, beiñere ez gizakundezko semeengatik.

Ok dira maite-asierako lenen-mailak. Maita-naia asi bedi gorputz bat bakarra maitatuz; ikus beza berela, artan ez dagola edertasun osozkorik; beste gorputzetan bera dala, ta guzietan bat. Onela, lenengoa bakarra maite izateari utziko dio. Jakin beza, animaren edertasuna gorputzarena baño areagoa dala, ta anima egoki bat arkitzen ba du, gorputza ala ez izanik ere, erein bitza argan onaziak, eta begira beza, ta arritu bedi jardunetan eta legeetan sortu dan edertasunarekin. Bijoa gero jakingaien edertasunera, beti eder garaiagoaren billa, ez baten menpeko geldituz, edertasunaren itsaso baztargabean barneratuz, eta olako jakite ugariz unitu ta indartuki, begizta beza jakite bakarra, eder-jakitea bere baitan.

Eta maillez mail oneraño ekarria danak, gauza ederrak urrenez urren ikusiz, maitasunaren izkutu barnenetara eldurik, betbetan ikusiko du edertasun arrigarri bat. Orren ordez, Sokrates, eramankizun baitira aurreko nekeak. Edertasun au, izan beti da, ez da jaiotzen ez iltzen, ez urritzen ez ugaritzen, ez da aldez eder ta aldez itsusi, ez bein eder ta gero itsusi, ez batzuen aldean eder ta besteen aldean itsusi, ez emen eder ta an itsusi, ez batzuen ustez eder besteenez itsusi. Ta ez diteke asmatu edertasun au aurpegi eder antzera, naiz gorpuzki antzera; ez ta arrazoiketa edo jakintasun antzera. Ez dezakegu asmatu beste gauzetan datzala ere, esaterako bizidun batean edo lurrean

edo zeruan edo beste nonai; bere baitan da ordea, beti erabateko, ta beste gauza ederrak ari darionetik dira eder, eta guziak jaio naiz galdu; ari ez zaio ezer erasten ez kentzen, eta ez da ezertxo aldatzen.

Onela, gorputz bat maitatuz asten dana, andik bi maitatzera igaro oi da, ta gero gorputz eder guziak, gero giza-jardun ederrak ela jakingai edo irakaskizun ederrak. Azkenik, ederraren beraren ikaskizunera iritxiko da, ta ezagutuko du edertasuna bere baitan zer dan. Eta begizta dezazunean –esan zun Mantinea arrotzak– Urrea ta soiñeko birjosia baño baliotsugoa iduriko zaizu, ta gazte ederrak baño areago –orain liluratzen baitzaitue– ta gelduko baitziñake zu beste asko bezala ez jan ta ez edan, begiztatu besterik egin bage. Au ola izanik, zer ikuskari arrigarri diteke ederra bera, bakoitza, garbia, osoa, ez giza-aragiz edo kolorez edo beste il-bearreko itxuraz; bere baitan eder erabateko ta jainkozko ordea? Ez al derizkiozu, begiz begi orduan edertasuna diteken einean begiztatzen dunak, ez dula on-indar itxurazkorik, on-indarra bera baño: ez baitauka berekin itxura utsa, gauza bera baño? Ta ez al derizkiozu egizko on-indarrak sortuz ta unituz jainkoen adizkide egingo dala, ta gizonik ez-ilkorrik gerta ba ledi, olakoa gerta ditekela, naski? (*Simposion*).

Zenbait gauza oker egon arren, kristau-aldera biur diteke ontan Platonek diona. Maitasuna ez da Jainko, baña aingeruki bezala –nik itz ontaz biurtu dut *daimon* bestez ezin ta– Jainkoen ta gizonen tarteko baita, eta kristauen aingeruen antzeko, ipui ontakoa[1]. Zorioneko ere adierazten du berez, baña Platonek berak esan digu *daimon* ori zorioneko ez dala. Urrena ederra bere eder

[1] *Egilearen oharra*: Liburu Santuetan gure Aingeruari Jainkoaren Aingerua, Jaunaren Aingerua, zeruko Aingerua, Aingeru ona, Aingeru Santua, nere Aingerua (Jaungoikoak), bere Aingerua, ta abar esaten zaie erdietan edo geiagotan.

bakoitza baño areagoa dala dionean ondo dio baña edo jainkotu egiten du Edertasun ori –bere baitan eder ez baita iñor besterik– edo aditzapen uts dan gauzari esaten dio ederra. Aditzapen oiek gutaz kanpora izana ba zutela uste baitzun. Or diona Jainkoari, Edertasun iturri ta eredu danari egoki ezkero, zoragarriro esana dago.

Maite ta Eder ez dira bat, maite ori zerbaiten mendeko baita; ez ordea edertasuna. Ola Platonek.

2. Erdi-bearra

Erdi-bearra, erditu-bearra... Lizardiren itz ok burura zaizkit Platon irakurtzean, eta jasotzekoak ditut, adiskidearenak ez ba lira ere, arira baitatoz eta ederki esanak baitaude.

Erditze orrek zer adierazten dun, zenbait euskaldunek ez balin ba dakite, gogora ekarriko diet Naparroan aurizaroko Kristau-ikasbidean esaten genduna: "Jainkoaren Ama Birgin gelditzen zela erdi baño len, erditzean eta erdi ezkeroz". Gogoan daukazu, bear ba da, Lizardiren "Erdibearra" *(ltz Lauz*, 27), eder-aztiari gertatzen omen zaiona. Goraxago eman dizut Platonek oinbeste urtemendez len esana, "ba dula ederrak alako erdi-bear bat". Mintza bedi Lizardi:

"Gure gaitz ori, gure axkure edo dalako zer ori, (Platonek orobat miña, ta aurrei ortzak atera nai zaizkienean duten azkurea bezalakoa dala dio) gure erdi-bearra, beingoan esateko, eztezute ezagutzen? Iñork, eri danik, eztu beiñere osasuna maite izan guk gere mina, gere zauria, guk gere erdibear ori aiña. Nork dakike, olerkari ezpada, zein bearrezko degun gure lasapenerako, ta zein gogarako, erditze ori? Bada olerkari etzeratenok, gure barren-azkure ontaz zerbait uler aal dezazuten, nere erditze baten berri yaulki nai dizuek, ni ere azurri orrek atxitua bainago...".

"Mendiak –adiskide otxana baita ori beti– aspaldian neronen erruz elkar ikusi gabeak giñan arren, bere biziko begitarte ona egin zidan. Nik eztakit, zabala sorginduta al zegoan, ala lo ongi egin baten esku laztankorrak eztiz ene gogamena igurtzia. Dana dala, adiskide on ark eskeñi ikuskizunez irudimena asi zitzaidan bazter guzietatik izeki ta suak artzen...".

... erne-indarra goi-argi-yario artatik edaten...".

Beraxago diona, geitxokeria dirudit eta josta-antzean esana, baña Platonek ere orren antzekotsu bat ba du: Ez bezalako maite-suak artzen du –dio Platonek– eta ederraren jarioa begiz edanez, egalak sortzen asten zaizkio, ta alako azkure ta min bat, aurrei ortzak jaiotzean oietan bezalakoa" *(Phaedr.)*. "Musak diralako atsoek –dio Lizardik– atzaparpean ninduten; irudimiñez ningoan izorra; otzikarak astintzen nindun, sukar larri batek menderatzen. Gaitz orrek beiñere artu zaituzten guziok, ongi dakizute zenbateraño dan beldurgarri..." (*Itz Lauz*, 28, 29). Platoni ta Lizardiri siñestatu edo egin bearko diegu, olako sumiñik beiñere geren baitan sumatu ez dugun ok. Gizon ikasi bagea ta jakintsuen einean mintzo zana!

3. Zoraldi ta eder

Maitasuna zer dan ta zer indar dun adierazi naiez dio Platonek: "Maitasuna naigale bat biotz-eragin bat da. Bakoitzak ba ditugu bi joera nagusi ta bultzakor: geronezko atsegin-gura, ta oberen dana irrikatzen dun aburu bat. Zerbait aldiz, bi bultzara ok erara agertzen dira, iñoiz ordea, burrukan dabiltza. Aburua nagusi danean, gogo-neurria du; irrits arrazoi bagea nagusi danean, aren nagusigoari lizunkeri deitzen diogu..." "Gizonaren laneginik ederrenak zoraldi bati zor zaizkio; jainkoek isurtzen diguten alako mani bati. Mani ori, etorkizuna igarri

oi duna da, ta orregatik deritzaio igarkuntza. Mania da aspaldiko eriotzen errua garbitzen dun garbi-ordaña". Aurrera baño len, mani izen ontatik zuten Grezian mantzi, aztia. Erromarrak ere ortatik artu zuten *vates*, aztia, poeta. Guk euskeraz esan genezake eder-aztia, edertasuna aztiatzen ta agertzen diguna. "Mania, zoraldia jarraitzen du, poetaren argitasuna ere, ondorengoei aurrekoen gertakizun nabariak ager dizkiena. Zoraldi au bage Musan atalondora urbiltzen dana, antzeak eder-azti egingo dulakoan, musu-uts gelduituko da, ta ezagutuko du bere eder-agertua kaxkarragoa dula –zuur egiña baitu– igarsumin ori dariona baño. Jainkoek gure zorionik aundienerako eman baitigute. Mania da maite-zoraldia ere, Urani'ko Venus'en zoro-maitea ere".

Len aipatu dun joera bikoitz ori adierazteko ipui eder bat dakar Platonek. Gaurko zenbait jakintsuk, alemanak batez ere, zertzuk esaten ditue S. Paul'en aurka gogo-lege ta soin-lege bikoitz ortaz ari dalako, ta ikus Platonengan aspaldiago adieraziak. S. Paul'en inguruko eder-azti batek, Ovidius'ek ere, esanik utzi zun "video meliora proboque; deteriora sequor".

"Animak, dio Platonek, ega-gurdi baten antza du, artan alde banatara tiratzen baitute bi zaldik, zaldi-zai baten eskuan. Egalen eginkizuna, anima Jainkoaren jakitearen eta ontasunaren eskualdera jasotzea da, ereduen tokira, ara baitijoa Jupiter'en gurdia ere, ta aren atzetik jainkotalde ta aingerutalde guzia, amaika sailletan. Jainkoen zaldiak bikaiñak dira, ta errez iristen dira beren mugara; baña gizonen gurdiak, zaldi gaiztodarioaren indarrez, lurrerantza egiten du. Zeru-gaiñeko leku ua, ez da eder-aztirik aski goretsi ez dunik, ez ta goretsiko dunik, adimenak bakarrak begizta baitezake beregan dagon izatea, kolorerik, errañurik ukirik ez duna. An dago egitazko jakite garbia. Onekin Jainkoaren gogoeta uniturik, len urruti zegoen edozein gogoeta uniturik, atsedena ta

poza ditu dan ari bagira, ta larrain-barrenean bezala ikusiko ditu zuzentasuna beregan, gogo-neurria beregan, jakintasuna beregan, izatearen ezaguera; ta au begizta dezanean, zaldizaiak lotuko ditu zaldiak eta emango die nektar eta ambrosia jan-edan: au baita jainkoen biziera. Begiztaldi garbi ontara ez dira gizonak iristen; zaldiekin dute neke izardi ta zalaparta. Batzuk gurditik erori, besteak aldero ta oztopo, egiaren dirdairik ez dute sumatzen urrundik baño, ta bibitartean, aburua dute janari, ta onek eragiten die egiaren arlorantza; an sortzen baitira kemena indartzen duken belarrak. Ta Adrastea jainkosak du lege, jainko-antzeko gizonak egi-zati bat atzematen dularik, beste zeru-larrain batera igaro dedilla, kalte bage pilosopu ta eder-maitale biur dedila, naiz musiku, naiz maitalari: ta gutxien atzematen duna, errege naiz sasierrege. Azti ta igarle anima-aldaren bosgarren maillean daude, eder-azti ta beste antzegileak seigarrenean. Jakingaiaren ezaguerak bakarrak berritzen dizkio egalak gizonari, ta beiñola ikusitako gauzak gogorazi, ta omen diranak esetsi, ta egiz diranetara begiak itzuli. Olako oroitzapenetan eta jainkozko izkutuetan azitzen dana, on betea da, ta besterantzeko gizonen irritsetatik alde egiten du, ta goragokoari ta jainkozkoari erne, jende txeak zoro daukete, ez baitakite zeru-arnasez betea dagola. Beraz, lurreko edertasun artaz oroituz, egalak berritzen zaizkio, ta eganaia du. Ta ez baititeke egatu, ta mendiak baititu maite ta ibarrak muzin, jendeek zoro dagola diote, zoraldi au jainkotasunik bikaiñena ez bai litzan.

Giza-anima orok, beste aldiz egia begiztatu du; baña artaz oroitzea ez dagokie guziei, edota labur ikusi zutelako, edo andik jeistean gauza santuen oroitzea damurik galdu dutelako. Gutxitaz oroitzen dira, baña aien itxura bat emen ikusten dutenean, burutik jauzi oi dira, ta ez dira ezagumenaz baitaratzen, ez dute jatorririk ezagutzen; denik ere, odei illun tartean usmatzen dute, beste

orduz Zeus'en ondoan ikusi zuten edertasun garbi ua, ta gaiñerako jainkoena. Argi txit garbiz inguraturik ikusten ditute eredu oso, bakarki, aldaezin, zorioneko aiek. Ordun geunden garbi ta ez lapa bezala, gorputz deitzen diogun oni itsatsirik" (*Phaedr*.).

Zati eder au ulertzeko, anima-alda edo metempsychosis gogoan iduki bear dugu, ta Jainkoa ikusi gendula beinola.

4. Antzearen jo-muga edo, aurpegiz norabait

Aurpegiz norabait gaude beti, esatea zozokeri ba da ere. Olako zozokeri askok egiaren bidera ekartzen gaitue, ordea, itz izkutuetan eta burutapen izkutuetan nasirik gabiltzala. Aurpegiz norabait gaudela bipil ta biribil ukatuko dunik ez ba da ere, ba dira alde aldera ori edo olako zerbait beste itzez esan dutenak, eta jakintsutzat dauzkagunak alare. Gerok ere ez gaitezen oillartu geron esaneri beti eusten diogula-ta. Bear ba da, gu baño jakintsugoren bat etor diteke, ago batean bi mingain ditugula esanez, ots, len itz batzukin au esan gendula, ta orain beste itz batzukin aren aurkako zerbait esan dugula.

Gure egun otan oso zabaldurik dago esaera galgarri au: "antzea antzearentzat", *el arte por el arte*. Adierazi dezagun zer diteken ta nola aditu bear dan.

Erderazko *por* onek adiera asko ditu (amar edo amaika bai) ta oietan bat du nai ta nai ez esaera ontan. Nik ez dut ordea nere gogara adituko. "El fin inmediato del arte es el arte mismo" esan zigun Menéndez y Pelayo'k, eta Kant'en "la finalidad sin fin" ontzat eman ere bai[2]. Ez zuken arritu bear, eskolastiku deritzaien jakinzaleak izkera

---

2 *Ideas estéticas*, VII, 422

ori ain gogor gaitzestea, ez ta Lamenais'ek berak "L'art pour l'ar est une absurdité" esan izatea. Esaera beintzat okerra da, adiera zuzena ba du ere. Bai, gaizki ulertu diteke txarrerako ere ta ulertu ere da, izadi gordin-zaleen lizunkeriak estaltzeko. Menéndez y Pelayo'k ez zun ontara ulertu, egia, baña esaera zeatzagoa billa zezaken.

Antzea zertako dan galdegiten dugu emen. Gauza bat zertako dan erderaz *para*' ren bidez adierazten da, ez *por*'en bidez. Janaria indartzeko da, mingaina mintzatzeko, aulkia eseritzeko, ta abar: para sustentar, para hablar, para sentarse. Gaztelerako *por* au emen, prantsesen *pour*'etik gaizki itzulia bezala dago.

"Ezertako ez dan zertakoa". "La finalidad sin fin" ezer ez da, ta izketa alperra; baña len esan-lekuan (435) beste gauza bat dio oker Menéndez y Pelayok: "su fin inmediato (el del arte) no es otro que la producción de la belleza". Ori ez da antzea zertako dan esatea, zer dan soil soillik esatea baño. Antzea ta edergintza bi itzetan gauza bera dira, Menéndez y Pelayo'k bere maisu Milá y Fontanals'enean irakurriko zuen bezala, ta edozein esku-liburutan arki diteken bezala. "Arte es la realización de la belleza mediante formas sensibles". Zer dan besterik ez digu, beraz, esaten jaun onek. Antzegileak edergitearekin bere buruari atsegin eman nai izatea, edo antze-lanak ua ikusten duteneri atsegin ematea, besterik litzake. Zertako egiten du? Ikus dezakenari atsegin emateko, edo olako zerbait erantzun bear zuken. Azken-muga ta albo-muga gogora ekarri zitun, baña ez ondo agertu zer albomuga zun antze orrek.

Diranak oro ba dute beren zertako izana, zertarabearra, nora-bearra, pilosopiak erakusten digunez. Jainkoak nai ta nai ez ezarri zien Berari zegokion asmoa edo zertarakoa, ots, zertakobait egin zitun. Asmoren bat izan zun aiekin, eta aiek, asmo ori ez ezagutu arren, zertakobait egiñak dira: Jainkoa dute azken-muga. Izaki ok ba

dute orobat beren arteko jo-muga edo elburua, ta gizona dute –munduan ageri diranak beintzat– albo-muga: "omnia subiecisti sub pedibus eius, oves et boves... insuper et pecora campi, volucres caeli et pisces maris...": gizonaren oinenpean ezarri dituzu diranak oro: ardi, bei, larreko eize, aizeko egazti, itsasoko arrai. Areago, bizirik ez duten gauzak. Jainkoak oinbeste ta oinbeste gauza gizonarentzat egin ba ditu, gizonak zertako egiten ote ditu berak egiñak? Bera baño gutxigo danarentzat?

Antze-lana berak asmatu ta berak egin du. Beretzat naski. Gizonak ordea, ta beste edozerk, azken-muga Jainkoa du, gauza guzien asiera ta muga Bera baita. "Universa propter semetipsum operatus est Dominus". Argatik eskatzen die Jainkoak Bera edertu dezatela: Aingeru, zeru, gizon, ur, eguzki, illargi, izar, euri, intz, su, otz, izotz, elur, gau, egun, argi, ilun, tximist, odei, mendi, muño, azi, iturri, ibai, itsaso, arrai, egazti, eize... bere osperako egiñak baititu. Egin zitunean, Ari begira gelditu ziran; ala esan. Gizona Bere iduriko ta antzeko egin zun, Jainkoari begira, besterik ez bezala. Obidius'ek ederki adierazten du: "os homini, sublime dedit, caelumque tueri iussit...". Bizirik ez duten zeru-lurrak, eta Jainkoa maitatuz Aren begiztaldian dagon santua, oro dabiltza Jainkoaren ospe billa, oro beren azken-muga billa. Izaki guzien jo-muga, Jainkoaren ospea dala pilosopiak garbi erakusten digu. Diranak oro, beren buruaz beste mugarik dute. Ez diteke ezer bere buruaren begira-muga izan. Gauzak, norabearra, zertara-bearra, jo-muga, elburua –itz askoz bat esateko– aurpegi bezala dute, aurpegiz norabait daude. Aurpegiak ez du beregana begiratzen, beti besterengana, zuzen begiratzean beintzat. Bere aurpegia ikusteko ere, besteri, ispilluari begira bear dio. Gauzak, norabear ori begi bezala dute, ta begiak beraz besterik ikusten du.

Antzea diogunean, antzegilea (*el artista*) naiz antzelana (*la obra artística*) adierazi nai dugu. Jainkoak izaki

guzieri bezala, gizonak ere bere lanari ta antze-lanari zertara-bear bat ezarri dio. Ezereztako ta ezerezgatik ez da gizona ezertan ari. Ba du asmo beti, askotan baitaratzen ez ba da ere. Zergatik egin du gizonak olako antze-lan? Ots, zerk eraginda? –Bere atsegiñak eraginda. Bere atsegina billatzen du antze-lan orietan. Zertako, zeiñentzako egin ditu? Bere buruarentzako. Zergatik? –Bere buruari atsegin emateagatik. Ederra, begiratzea atsegin zaiguna zala esan gendun. Gizonak egin-ederra, antze-lana, atsegin zaigu begiratzea ta artan atsegiña ta atsedena billa nai dugu. Gizonak alkia eseritzeko egiten du; lur-lana, jateko, bertsu, kanta ta beste eder-lanak, atsegiñerako, naiz opor dagola naiz lana-bitartean nekea arintzeko. Beste asmorik dunik ez diteke esan, ez asma ere. Bertsoak egitean bertsoak egitea asmo? Ori ezer ez da. Egiteak atsegin ematen ba dio, atsegin soil ori artzeagatik ere bai; neke ematen ba dio ere, gero datorkion atsegiñarengatik. Gizonak antze-lana zertako ta zergatik egin dun galdetzean, bere atsegiñerako edo bere atsegiñagatik, ots, bere atsegiñak eraginda, besterik ez diteke erantzun. Lana lanarengatik egin dula esateak ez du zentzurik. Ain zentzubagea ote da gero gizona? Aintzat artzen dute, lana lanarengatik egin ditekela uste dutenak. Gizonak bere onerako –nolako edo alako onerako– egiten du edozer lan: jateko, era obean bizitzeko, bere buruari atsegin emateko; ez lanarengatik berarengatik. Eta lanak berak bai al du adimenik edo zentzurik asmo ori ezagutzeko ta gizonari eskerrak emateko? Eder-lanak berak, ernatuko ba litz, egillearentzat luke, ala esan, lenengo begiratua. Lana lanarengatik egiten dun gizona, lan orren mendeko jartzen da, zentzurik eta adimenik ez dun gauzaren mendeko. Bai al da gauza lotsagarrigorik?

Bere burua jo-muga edo begira-muga dunik ezer ez da mundu ontan, eta ez diteke izan. Guziei beste zerbaitek eragiten die, bere buruaz bestek. Izatekotan, Jainkoa

bakarra liteke bere buruaren jo-muga; ez ordea bestek eraginda ari dana, ez baita eraginbera ta aldabera gu bezala. Iñora bage ta ezertara bage, Berak du bere baitan izabiderik aski (*ratio sufficiens existentiae*). Gauza bat bere buruaren jo-muga dala esatea sasi-pilosopia da, edozeiñek esana bedi. Aurpegiz, begiz, besterengana gaude, ez gerongana.

Menendez y Pelayo'ren izkera bakarra jorratu dut, eta beste zenbaiten eta askoren aburu okerra.

5. Antzea bere jabe

Gaurko antze-iztunen kezka guzia ontan datzala ematen du: antzea ez dala iñoren eta ezeren menpeko; bera dala bere buru, bere jaun eta jabe. Jakiña antze-lanetan ager-bearreko nabarmenkeriak onela gainzuritu baititezke. Liburu bat daukat gogoan, Benedetto Croce'ren Estetika, gezur ori baitu egi-muin. Gazteleraz emana da, ta Unamuno euskaldun aipatuaren itzaurrea du "Por primera vez, dio Unamunok, he visto aquí la doctrina del arte liberada de la doctrina de la lógica, de la ética y de la psicología, aunque con ellos conexionada" (Pág. 11, lin. 7, sqq). "De la doctrina" esan bearrik ez zegoan, baña ulertzen dut zer adierazi nai dun Unamunok[3]. Nik beintzat ez dut olako gauzarik ikusi or, ta egi berririk asmatzen ez dula garbi argituko dizut, irakurle.

Bi sail aundi ditu liburu onek: azterketazkoa ta istorizkoa. Azkensail ontan ba du onturrezkorik, egillearen iritziz erantzi ezkero; len-saillean ez du asmakai aundirik asmatzen, buruzorrotz agerturik ere.

---

[3] Antzeaz ta oitura ta abar da auzia; ez antze-jakintzaz ta oitura jakintzaz. Bi jakintza ok beren jabe dira, gaiak oso ez ba dira ere.

Croce'ren burutakizuna adierazi baño len, zenbait ezagukizun agertu bear ditizut. "Ezagubidea bitarakoa da, dio Croce'k, adimenezkoa ta idurimenezkoa, ots buruak burutapen soilak edota iduripenak sortzen ditu" (47, 1, sqq). Irudipenez erantzia dan aditzapenari, aditzapena soil soil esaten dio; irudipenez argitua danari, ordea, begiztapena, intuición, begiz bezala ikusten baitugu. Begikalduz, begi-koIpez, begi-ziztaz bezala dakusagun aditzapenari begiztaldia esaten diogu; baña iduripen ere esaten zaio berdintsu diralakoan. Croce'k berak, begiztaldi ori adierazteko, irudipenak dakartzi beti adibidez. Euskeraz oituago baitzaude irudipen entzuten begiztaldi baño, ni ere ola mintzatuko natzaizu, ontatik okerrik ez datorrelarik.

Antzea idurimenak sortua dala esan oi da, ta iduripenezko gauza baitipat, antzelanean burua zenbait aldiz bestela ere jokatu arren. Iduriz adierazten dugu zentzu guzien egitekoa. Ikusten dugunez "ola dirudit" esan oi dugu; entzuten dugunaz "ola dirudit" esan oi dugu; eritzuten dugunaz ere "ola dirudit" (basoan ontz-urubia ala ardi-marraka danik oso ez dakigunean); usmatzen dugunaz "ola dirudit" zer usai dan oso ez dakigunean; agosapaiari ere ola dirudio ta ukiari ere bai. Ortaz, iduripen izenez zentzu guziekikoa adierazten dugu, ez begiekikoa bakarra.

Saietseko ager-bearrak alde batera utzita, iduripen ori, begiztaldi ori omen da antzea, ta iduripena burutapenetik bereizi edo erauzi omen diteken ezkero, bere jabe omen; ortaz, aritzea berriz, buru-barneko iduripen ori omen, andik atera bage.

Iduripena burutapenetik bereizi ditekela ta bere jabe dala adierazi nai dunean, adibidetxo batzuk dakartzi, ez baitute adi-eragin aundirik. Arrazoidunetan neke da jabetasun ori adierazten –arrazoibageak ez baitute iduripena besterik– buru-arian beintzat, itz bat eta bestea arretaz

edo jakintzarauz mugatzen ditugunean zearo bereizi ba ditzaguke ere. Gauza bat da burutapen sailla, ta oso besterik iduripena; baña arrazoidunak berezko joera ezinitzuriz, iduripen oieri burutapena erauntsi oi die edota aldez-beste. Zuk, ur garbitan sartuta zegoan arrauna autsia zegoala iritzi zenion lenengo aldiz, ala iduri baitu. Begiek ori ikusten dute, ori iduri zaie, ta ontan ez dago gezurrik. Gero, zuk buruz ola irizten ba diozu, iritzi okerra asmatu duzu. Bizialdi guzian ori ikusten ari dan itsasgizonari ere ori dirudio beti, aldioro iritzi okerra zuzendu bear ba du ere. Iduritzea bat da ta iriztea beste bat, maiz bat bezala jotzen ba ditugu ere. Iduritzea idurimenari dagokio ta iriztea adimenari, buruari. Erderaz ere ortara ari izan oi dira. "Parece" esan oi dute naiz iduriarengatik naiz iritziarengatik. Begieri ola dirudie, "así se les figura" esan bear litzake aretaz itzegitean, figura ortan ez baitago gezurrik. Iduritzea ta iriztea gugan dauden bezain bertan daude iduripena ta irizpena ere. Croce'k erauzi al dezake iduri ortatik iritzi deritzaion burutapen ori, naiz adibide ortan naiz beste askotan?

Gaiñera, lurralde inguru batek, bereiz margoturik dakusagun arren, mugako lurren oroipena ta burutapena osotara kenduko al ditigu? Neketan.

Bedi ordea; iduripen utsa guregan bere jabe bedi. Zer ortatik? Iduripen soil ori baita antzea Croce'ren iritziz, ori bere jabe litzakelarik, antzea ere bere jabe litzake, ez ezeren menpeko. Ez ta, diot nik, ez ta iduripenik lizunena ere, artan astiro kokatzen ez gerala, ta egiñera bage uzten dugula, ez da oitura-legeen menpeko. Ontara biurtzen da Croce-ren zalaparta guzia. Berak ere ola dio garbi ta zabal: "Oker legoke, barneko iduripen ori bere jabe dala ta, egiñera ateratzen dalarik ere bere jabe dala aitortzea. Antzeak, buruz kanpoko antze-lanak, onerakoa ta ontasunerakoa bere esku ditu, guk etxeko gauzetan eskubide dugun bezala" (155, 12 sq.). Antze-lanaz digu

bada guri axola, oraingoz, antzelariak buruantzerik ederrena egiñera bage utzi ba zun ere; ta antze-lana egin duten antzeleriak baño antzelari aundigorik ba litz ere.

Orpoz orpo ez natzaio jarraikiko Croce'ri, aburu oker orren artean oar zurrak ere baititu, usteak eta ustemusteak ere bai noiz penka, ta luzatu egin bainindeke, bakoitzak berez gezurtatu ditzaken gauza oriek, xeakatzen. Au arritzekoa: Unamuno jakinlari aundi orrek ez baitio aizkora errora keinatu, adarretara bano.

"Zenbaitek berezi egin oi dute, dio Croce'k, buruantzea ta buruz landako antze-lana. lzkera doakabea; antze-lana beti buru-barnekoa baita buruz landakoa ez da antze-lana" (94, 26). Zertako duzu ortaz Estetika? Zertako gauza oetaz mintzatzea? Antzelarientzat bakarrentzat? Aientzat ere, aien buruko asmakizunentzat eta ez aiek egin-lanentzat? Oietaz ez mintzatze ezkero, alperrik gabiltza. Aristotel baño pilosopu aundigoren bat, Homer baño poeta aundigoren bat izango zan naski ezer idatzi ez dutenen artean. Ta buru-barreneko gauzetarako soil soilik ari bazera, eder-jakintza ez baño oitura-jakintza edo aterako duzu. Antzea bere jabe dala ta zilegi zaiola ortaz oitura-legeetatik aldegitea. Baita iduripenik lizunenari ere zilegi zaio ta bere jabe da, soil soila ta eginera bagekoa balin ba da.

Croce'k bere burua Metapisikaren aurka agertzen du (107, 23) eder-ezaguera Metapisikari baitagokio, ta Croce'k ez du "eder" itzik aipatzen aleginean. Naspilla ta ezin-bereizia sortzen omen dute olako itzak. Ez nik uste, ongi ulertzen ba dira. Edozeinen Metapisika eta edonongo Estetikak neke baitute eder-ezaguera ematea, ederra zer dan adieraztea, edozeinek bere baitan suma dezaken gauza dalarik ere. "Orregatik (ibid) egoki aldegin uste dut eder izenetik, iduripenaren agerkera dan bezala adierazteko. Argitasunak eman ditudan ezkero, ta oker ulertzerik aurrera ez diteken ezkero; bestela berriz, aitor-bearra

baita, naiz izkera arruntean naiz pilosopian, eder izen au xurtuago ulertzeko joera dagola, nik ederra itz okin mugatzea zillegi nuke: "adierazte guzizkoa", edo, obeki esan. "adieraztea" soil soilik; adierazte guzizkoa ez izanik ez baita adieraztea" (120, 2 1, sq).

Croce'k derabillen "expresión" ere bitara ar diteke: *izketa* (onekin berdintzen baitu antzea, Gramatika ta Estetika berdintzen ditularik); eta *adieraztea.* Baita zenbait aldiz buru-itza, aditza, "species expressa seu verbum memis" ere. Zenbait aldiz nasi ere egiten ditu; baña aren "expresión" adieraztea esanez euskerara diteke eskuarki. Begiztapena (iduripena), adieraztea, antzea, erderaz esan, *intuición, expresión, belleza, arte*, berdin jotzen ditu Croce'k.

Unamuno'k aitorzale biribilla dala egozten dio Croce'ri, ta bidez egotzi ere. Zenbait aldiz arroputz samarra ere bai, ikusi ditekenez. Nere ustez eta egizale zorrotz dan edozeinen ustez, aitortu besterik ez du egiten bere azalkizuna. Aitortzea bat da; arrazoiztatzea besterik.

Azter dezagun bada oso osorik Croce'ren arrazoibidea, berekiena dirudin ortan.

6. Croce'ren argibide bikaiña

"Agerian ipiñi dugu, dio Croce'k, (155, 6) antzea antze danez, onuraren naiz ontasunaren naiz beste edozergandik bere jabe dala". Obe zenduke gizagaxo orrek! Ala da, baña ez zuk diozulako. Liburuaren 48'garren orrialdean saiatu zera, bai, baña iges-antzean. Amairu lerrotan azaldu uste du Croce'k argibide nolabaiteko ori. Azter ditzagun.

"Margolari batek illargi garbi-errañuz ematen digun zirrara, geografu batek zirriborroz ateratzen dun lurralde-ingurua, musika samur naiz bizkor bat, lirika-asperen zenbait, eguneroko eskabide bat, agindu bat, zinkurin

bat, eta abar, iduripenezko gauzak izan ditezke naski, aietan aditzapen zantzurik ere ageri ez dala". Argibide bizkorra! Berak ere izan ditezkela baitio. Croce'k, nik uste, ez du eritziko iduripen ori, begiztapen ori, bein-beingo begi-zizta utsa; baita luzexeago so egitea edo begiratzea ere. Nola alderazi gauza oietatik oroitzapen oro, aditzapen soilak oro, buruzko ar-eman oro, iduri utsa dakusaten animaliekin berdindu nai ez ba gaitu? Ola jarraitzen du:

"Adibide oietaz dana dala (ara!) gizon landuaren iduripenik geienak aditzapenez emariak dirala aitortuta ere (orra!) ba dugu oar-bearragorik eta arrazoi zapalgarriagorik" (ikusten!) (Ibid). Amairutatik sei lerro itzuli ditut: ikus beste seirak:

Idurikizunez naste arkitzen diran adikizunak, nasita dauden ezkero, ez ditezke adikizun iritzi, beren jabetasuna galdu baitute. Adikizun izan ziran, baña orain idurigai uts biurtu dira". Ots bada! Arrazoi bitxia! Idurikizuna ta adikizuna elkar naste ba daude, aditzapena iduripenarekin eta iduripena aditzapenarekin naste egongo dira naski. Ori zozoak ere ba daki; Croce'ri ordea bestera derizkio. Ortaz, adikizuna idurikizunari lotua, ta iduripena aditzapenari lotua. Ez alare, dio Croce'k. Zergatik ez? Adikizunak, naste ortan bere jabetasuna galdu egin omen dulako. Ta zergatik ez idurikizunak? Ez digu Croce'k adierazten. Orizu: emendik begirata aurrez-aurreko espaloia kalearen beste aldeko ua balin ba da, andik begirata ez al da au aurrez-aurreko espaloia izango? Berdintsu esatea da, nai ta nai ezko ar-emana baitute elkarrekin. Idurikizun oiek ez dirala adikizun nasirik daudelako? Bai; adikizun argituak, iduriztatuak. Naste ortan idurikizuna bereiz ta bere jabe gelditzen dala agertu bear liguke Croce'k, eta orain arte esanetatik berdin atera diteke adikizuna ere bere jabe gelditzen dala. Baña ez bat eta ez bi adierazteko antzerik ez du izan Croce'k. Argitasun guzi ori dakar gero maiz liburuan, izar orren argitara bialtzen

gaitularik! Itzik isildu bage itzuli dut euskerara argibide oso ori. Ta Unamunok "obra de segura y robusta filosofía" deritza liburu oni (8, 19). Ze bildotsa Unamuno!

Ta bein ta berriro argibide ontara jotzen du, zearo arrazoiztatu luken gisan."Jabetasun au bage ezin itzegin liteke, dio, (155, 8) antzearen balio bereziaz, ezin asmatu ere liteke Estetikarik, nai ta nai ez antzearen jabetasuna eskatzen baitu". Baña Croce'k jabetasun ori, menpeko bage ori, ez baitu adierazten, ezin itzegin dizaguke bere Estetikaz.

Nolabaiteko gizon oen betiko kezka antzearen jabetasuna da, ez egizkoa, okerrekoa. Croce'k zearo bereizten du geienez bere liburuan buru-antzearen Estetika ta buruz landako antzearena; baña bein baño geiagotan batetik bestera burruntzalia sartu ere bai. "Ongi da, antzegauzak ager-berritzeko aukera geixago ematea; ni ere aburu oritako naiz, dio. Oitura onan aldeko lagunarteak eta antze-lan lizunen kontrako auziak utzi izkiegun azal-utseri, gizagaisoeri ta alperreri" (156-1). Aizeputza! Zertako esan zun lentxeago (155-28): "orregatik, iduripen bat aukeratutakoan, gogoeman diteke oraindio, zeiñi, noiz, nola azaldu; protxuaren eta oituran legepean sartzen baitira azaldu ezkero?" Utzi bezaie, bada, pakean, Estetika bestera aditzen duteneri, ta bere Estetikaren oiñarria sendoago ipini beza, dagon bezain kolokan utzi bage.

"Buru-antzeaz ematen dan iritziak ez du ikustekorik antzelarien on-gaiztoarekin eta aren begira-bearrarekin, antze-gauzak asmo biurrietara artu ez ditezen, arengandik alde baitaude, buru-so utsa asmo dula" (156, azken). Ortaz, iduri lizun bati buru-barnean so egitea, ez begizizta laburrez, ez da gaiztorakoa antzelarientzat, eta beura gaiztorakoa gertatzen da buruz landa ikusten dutenentzat? Jakinlari argia! Unamunok "ilustre filósofo napolitano" deritza. On dagiola!

"Oitura-legeak, aritzearen jabetasun ori ontzat ematea bear du asmo, orri mugarik zabalenak utziz" (156-6). Oitura-legeak ez du txartzat ematen, gauza lizun bati, ezeren ondorenik bage so egitea; baña ez Croce'k nai dun bezain muga zabalak emanez.

"Nolanai ere, dio (ibid.), ez luke lekurik Estetikaren iturburura jotzeak (antzearen jabetasuna baita), artatik anzelarien gaiztoeza ateratzeko, bere iduripenak ateratzean lizunkerien saltzale izanik gainekoen atsegin usteleri ederresten ba die, ta jende zarpileri plaza agerikoan pitxi lizunak saldu-baimena ematen ba zaie. Auzi au poliziari dagokio; bestea norberaren barneari" (Ibid).

Arrazoi du Croce'k. Croce'ren Estetikan, barneko iduripenaren Estetika baita, ez du lekurik, ez du eskubiderik, kanpora agertutako lizunkeriak. Bai ordea, ustez, barnekoak. Beti berera dator, ots, aritzearen jabetasuna argiturik utzi dula. Ta Croce gora bera, len bezala gelditzen da auzi ori. Antzea bere jabe da, bai (ez Croce'ren arrazoiengatik) giza-lan danez giza-legeakin menpeko dagolarik ere.

Bein esan: Croce'k iduripena aditzapenetik bereiz ta bere jabe dala aitortzen du; baña ez du gauza dan argibiderik ematen. Eguzkia baño argiago erakus ba leza ere, iduripen ori iduripen soil dan bitartean, ez dago, ez oitura-legeen menpean, iduripen lizun bat ere ez baitago –milla aldiz esan– leku ematen ez ba diogu, ta egiñera atera-asmorik ez ba dugu. Zer kontua! Buru-barneko antzea bakarra omen da antzea, ez buruz kanpoko antzelana. Au ba litza, oitura-legeen menpean omen legoke. Au da Croce'ren irakaskizun arrigarria, berria.

Guri ez digu besterik axola: antze-lana oitura-legeelatik bere eskuko ote dan ez ote dan. Croce'ren argitasunez len bezala gelditu gera. Obeki esan, berak ere menpean dagola aitortu digu, adieraztea ez ba dagokio ere. Bai, *antze-jakintza ta oitura-jakintza* beren jabe dira, bi

jakintza bereiz dira Unamunok dion "la doctrina del arte" ta "la doctrina de la moral" ori, baña antzea oituragandik bere jabe dala esatea oso besterik da.

7. Argitasuna

Antzegilleak eder-lana egin aurrean izaten dun aldiari argialdi esan genezaioke. Argialdi orrek, berebat, iru gune edo txanda ditu: lena, ezagumenari dagokiona, buru-lana, ots, adimen-idurimenen lana: bigarrena barneminaldia, ots, eder-bearraren gaiak antzelariari barrena ukitzea, zirrara ematea; irugarrena, erdialdia edo erditzea bera.

Galdegin genezake, lenengo atalari dagokionez, edozein gizon antzelari ditekenentz. Kikeron ezkero batez ere, ark esan baitzigun "poetam natura ipsa valere", ots, berez bear dula Billabonakoa, alare, nik uste, berezkoari ez ezen azibideari ere asko zor zaiola. Zenbait gizon, berenez sorrago dirudite, baña ematu ezkero, gizon oartu biur ditezke. Aurrena bear dan gauza da oartu izate ori. Nork ez du idurimenik eta adimenik? Oiekin dago aurreneko egin-bearra, ta antzelari ez danak, edo aintzat idukitzen ez dugunak, ezagutzean du alare bestek egiñaren edertasuna, ta sumatzen du bere barnean. "Mirabile, est, quam plurimum in faciendo intersit inter doctum et rudem, quam non multum differat in iudicando" (*De oratore* 111-50). Arritzeko da, ikasiak eta ezak eder-lanean alako aldea dutelarik, zein gutxi duten eder-iritzian. Egin bear, ordea, esango didazu. Bai, baña zenbatek egingo luteke ondo ikasiak ba lira? Artarakoa danak ere, geiago ta obeki egiten ez ba du, zergatik da? Saia nadin au adierazten.

Gizon oartuaren lana, bakoizkako gauzetara begia zorroztea da lenik. Zoaz basora, ikusten duzu arkaitz bat,

illa, ikusten duzu aren gaiñean zugatz bizia, ta aren xarde izkutu batean kabia, bizi obearen itxaropena. Kabi orrek barrenean artille goxoa dauka, kanpotik abarrak eta zoztorrak ba ditu ere. Ikusiko zendun, agian, basora bidean sasiren batetik zintzilika, ardiren batek igarotzean utzi dun txima. Arlaz edo alakoaz baliatu da txoria kabia atontzeko. Ikusten duzu, luzaro bage, inguruan duzula txoria, kabira sar naiean. Zozo-bikote balin ba da, ekarriko duzu gogora Euskalerri guziko ipuia; etorriko zaizu burura artaldea, errekan ito zana, alegia; eguraldiaren berritzea, bigarren negua, artzai gaisoaren ondamena, ta abar ta abar. Au da aurreneko lana: gauzak bakoizka ikustea. Orobat esan diteke giza-jardunetaz, naiz ederlan bat irakurtzeaz. Idurimena ta adimena, oraiñarte adiskide dira, besotik dijoaz bakoiz-lan ori ari duten bitartean. Geroago lanak. Oraiñarteko adimen-lan au azterketa edo istudioa da, ta antzelariaren bereizgarri ez ba da ere, dagokiona da, zuurtzeko gauzarik egin nai ba du. Xea dezagun burubide au giza-jardunetan ere. Ta guzitarako edertasuna batera biltzearren, iduritara dezagun lur-inguru edo baso-inguru bat, gizona erdikide dala. Esaterako, Daniel leoien barrutian. Aurrenik gertakizuna aztertu bear da: Danielek, gezur-jainko ua pikez, koipez ta illez egindako opillaren bidez itoarazi zula; erregek leoien barrutira sartu zula jan zezaten, eguneko bi gizon ta bi ardi botatzen baitzizkien jaki; sei egunez an egonda ere ez ziotela ezer egin, jakirik bota bage ere; Habakuk igarleak, Jainko egiazkoaren aginduz igitariei zeramaien bazkaria Danieli eraman ziola, biderik jakin bage, Aingeruak illeetatik atzita; bazkari ua jaten pake utzi ziotela; erregea joan zala zazpigarren egunean ua negarkatzera, ta leoien erdian eserita aurkitu zula, ta oiu aundi egiñez "Aundia zera, Danielen Jainko Jauna" esan zula; ta Daniel barruti artan sartzeko bide egin zutenak berak sarrarazi zitula erregeak, eta Danielen aurrean leoiek lipar batean irentsi

ere zitutela Danielen etsaiak. Gertakizuna zearo aztertu ezkero, lenengo gauza egiña dago.

Iduritara dezagun Agustin, arako lore-baratz artan, "ar, irakur" entzuten dunean. Aurreko ta ondoreko ta saietseko zer-nolak oro aztertu bitez ongi, eder-lana asi baño len.

Batez ere, iduritara dezagun, egundaiño lurrean gertatu dan baso-ingururik bikañena: "Jesusi Arnasak bultz egin zion. Eta berrogei egun eta berrogei gau basoan zegoan, Satan'ek zirikatuta. Ta eizeekin zegoan, eta Aingeruak zitun mirabe". Markos Ebangelariak bakarrak agertzen digu eizeekin zegoala. Ba dakigu, ordea, orduan ba zirala an basa-eizerik gogorrenak eta odolzaleenak. Bi lerrotan ainbeste gauza idaroki dizkigu Ebangelari orrek: Jauna, izadi guziaren jabea ta nagusia, ageri ziranak oro mendekoak, eizerik ankerrenak ere: baita ageri ez zaizkigun Aingeruak ere. Zernola ok banaka aztertu, ta ola, beste gizajardun naiz irakurketa zenbait aukeran, eta bigarren unea edo txanda dugu urrena.

8. Argialdia barnemin aldia

Naiz landa-inguru naiz giza-jardun naiz irakurketa. ondo aztertu ondoan, erabat gogoan artuz, bakoiztasun ortatik aldegiten dugula, begiztaldi bat eman, al bezain luzea ta maitetsua. Begiztaldi edo begi-kolpea adimenarena bedi, batez ere, ez arrazoiketa, gure barrena erdimindu dedin. Gauza ontan, berdin ez ba dira ere, ariora jotzen ditut nik gizon Jainkozkoa ta gizon antzelaria. Diranak oro aurrena ikusiz ta begiztatuz, gorago-naia datorkio santuari, aiek sumarazten dioten izate izkutu ua ezagutzera ta maitatzera. Orobatsu gertatzen zaio antzelariari ere. Erabateko begiratu ori, laiño-antzeko ori, tizas-ertzean esan genduanera edo, uste baño ernalgarrigo

zaio, ortan bear bezala atseden ezkero. Olako sorraldian ematzen dira antze-lanak. Esan izan dute, antze-lanak sorraldiari (inconsciencia)'ri zor zaizkiola. Ola ulertu ezkero bai. Sor sorrean, ero eroan, ez du iñork antze-lanik ateratzen barne-kemenai ondo eragin gabe, ta batez ere adimenari, gauza zuzenik egin nai ba da. Adimena bear du kemen guzien erregin, idurimenaz baliatu bear ba du ere. Gauza borobilla, buru-gorputzak dituna nola antolatu adimenaren eragiñik bage? Urrena, nola aukeratu, antzelana edertu bear duten iduripenak? Idurimenak zer egin lezake berez amestu besterik? Orain ari geran ontan, adimenaren begi-zizta, ez arrazoiketa, aditzen dugu, ots, erabateko begiratu erdi-sor ortan egotea, ongi barnemindu gaitezen. Zenbait aldiz, zirrara aundiegia, biguinegia, adieraz-eziña sortuko zaio, ta ua atera ta ezarri ezinez etsi ere egingo du, bereala beintzat, baña ez da ordu: luzarogo itxedon bearra dauka, balin ba da astez eta urtez, bere buruaren eta egiaren jabe egiteko. Irakiñaldi orri noizbait atsedena etorriko zaio, ta luzaro aztuta egonik ere, aztuustean, beintzat, alako batean berrituko zaio beroaldi ori len baño gozoago ta pakeanago, ta orduan da saiatzeko garaia. Zenbait gai berriz, agoz esateko beintzat, eziñak gertatuko zaizkigu beti –ala neri Jesukristo basoan eizeekin eta Aingeruekin egote arekin– eta etsitzea beste biderik ez dago, ta ederraren ukitua berekiko gordetzea. lkusi lur-inguru aiek, ikusi eizeak, ikusi aingeruak. eta erdian atseden atsedenez ikusi, alako begiratu legun utsarekin mendean dauzkan Jainko-gizon onetsi ua, ta gu bezalako ezerez, baztarka dabillen batek ez du, bear ba da, asmatuko beste itzik: "ezi nazate, Maisu eder, zure begi oriek; zure begi eder oriek".

Gero, irugarren unean esango duguna errezago betetzeko, antzelariak, dan bezain oso, ditun kemen guzien batera-joa bear du. Ezarian bezala, bere baitan oso bilduri k, uste ez dun lana egingo diote isil, animaren kemen

guziek. Burruka ere ausaz asiko zaio, idurimenak bere aldera egin nai ta, adimenak batera egon nai; baña erdiaztuan bezala gelditzen bada, ortan egon-bearra du, ezeren kezkarik bage. Zerbait, ezin-adierazizko zerbait bere baitan maitez aztarrenatzen dun bitartean, bego an esparik bage. Ba dira berenez eziñegonak, sorraldi ontan, ezari ontan atsedengo ez dutenak –askotan bai paketsu diranak ere– baña ederrak iñori barne-min ori ematekotan sor-egon ortan saiatu bear du. Ola dagonak bakoizgauzen muga autsi du, zentzuen eta idurimenaren esia urratu du; adimenak ere bere muga urratu bezala nai luke, aundiago zer baiten billa bezala: ez baita konturatzen ondo zer ari dan. Labur esan, muga bageko ederra, eder eredua aztarrenatzen du nolabait. Beregandik irteten da, gaiñez egiten du. Ederrak eragiten dio, baña Eder bakarrak isil isil.

Gizona berez bat da, bakarra da, batasuna du, ta bere antzeko ikusi oi ditu ta egin nai ditu diranak oro. Bere baitan ikusten eta sumatzen ditun agiak edo gertareak oro barrendik darizkiola ezagutzen du: bera bat dala, naiz aien jabe naiz mendeko. Ta bere baitan, ere maiz puskaturik bezala arkitzen baitu batasun ori, nor-izate ori, batasun orren bila dabil, eta, oarkabean, beti bat eta batasuna bera dan Aren bila.

9. Erdi-aldia

Barnemintzean kemen guzien batera-joa bear baikendun, erditzean, ederra egitean ere, orobat bear dugu, ederlanak utsik eta koskarik ez dezan. Baterajoa ta berdin-joa –gero adieraziko itz ok– adimena ta idurimena ta naimena jokatzean esan nai nuke. Batez ere, naigalea, barne-eragiña gerongan sumatzen dugula, ta, albait, galtzen ez dugula, itzetan eta besteneko antze-gaietan goxo-

tasuna, guritasuna ager dedin. Jakiña, ontarako gaia menderatu bear du antzegileak, eta erdi miñaldia bukatua edo irakin artatik ondo atsedena. Ontan ez du bear estubiderik. Gero, idurimena bere einean, bear ainean joka bedi; adimena ere bai. Au da gauzarik zaillenetakoa, idurikerietara burukerietara errez jotzen baitugu, batez ere gazte geralarik. Koskak eta utsarteak agertuko zaizkigu, otzaldiak ere bai, ta bear ba da, lan borobilduen ordez lan eketxak (eldubageko aurrak) erdiko ditugu. Eder-lana asi ta buka erabat egitea litzake oberenik, baña ez gaude beti aldian, eta aldiari itxedon egin bear zaio, orain-geroka agertzen ba litz ere. Tarteetan egon.

Areztian bi itz esan baititut, *batera-joa* ta *berdin-joa*, adieraztea noazu. Griegoz *armonia* esaten baita, orain-tsukoak andik artua dute, pozik artuko nuke euskerarentzat itz txanbelin ori bestetara arturik ez ba lego: marmari ordez erabiltzen baitugu. Ortaz ez dezakegu dagon bezala euskerara ekarri. Nolabait esateko, batera-joa deitzen diot. Onen antz antzekoa da berdin-joa, erderaz *equilibrio* esaten baitiote. Baserri-lanean oitua ba zera, bide zelaierako gurdi bat kargatzean aurrera-joa edo aurrera-karga naiz atzera-joa ematen ba diote, neke aundia da beintzat; aldapa goran atzera-joa ta aldapa beran aurrera-joa ematen ba diozu ere, idiak neke aundia dute: gorakoan aurrera-joa ta berakoan atzera-joa eman bear zaie, laguntzeko. Ezker-joa naiz eskuin-joa badu, bidearen zulogunetan gurdia errezago irauli diteke esku bakoitzaren aldera. Orain baitaratuko zera batera-joa ta berdin-joa zer dan; antzelariak ori bear dula esan baitut eder-lana ari dunean.

Agustin santuak, antzera batera-jo ortan datzala esan zigun, naiz antze egonekoa, naiz jardunekoa. Izadia bera ere kantari guzizkoren baten baterako mintzoa omen da. Nekeak balio baitu, aren seme Fr. Luis de Leon'ek eder eta zabal adierazi zigun antzearen bateratasun edo

batera-jo ori. Esanik utzi ere baitzun Agustinek: "Omnis porro pulchritudinis forma unitas est", ots, eder guziren izaera batasuna da.

10. Fr. Luis de Leon

"Kristoren izenak" deritzoneko "Pakearen Lenenburu" dion artan, sarreran adierazi zigun iñork eta iñon baño obeki, izadiaren batera-joa ez ezik, gure kemen guzien batera-joa ere, antze-lana egin-aurreko argialdian. Oberenak aiñean ezagutu ta maitatu zun izadia. Au dugu ikas-lekua. lkasgu ontan ez da, gaur asma ta biar igatu egiten dan legerik, ez adimenaren kezka okerrik, ez naimenaren naikeririk. Ez adimenaren kezka okerrik, aldaeziñak dira, izadiaren einean. Eskola ontako azibidea gotorra da, ezarian burubide onekoa; ez bortxazkoa edo indar-bearrezkoa.

11. Izadiaren ukitua

"Ezaguerak adieraziko ez ba ligu, ta beste bidez ere uler ez ba geneza, zeruaren ikusbitarte onek erakutsiko liguke, ta an argi egiten ari diran izar aien batera-joak, pakea zein maitagarri dan."

lkusiko baitugu, begiak ara erne zorroztu ezkero, ezarian, nola sumatu bage, gure naigale oro, egunez gure bularrean zalaparta ari zuten griña nasiak oro, ezarian paketu egiten dirala, ta lo-xuxtan bezela atseden egiten dutela, bakoitzak bere tokia artuz, eta beren tokian daudela, ezarian, burubidez jartzen dirala".

Zerua izar egote onek egiten zion Leon'i ukiturik legunena. Ukitu au darite aren antze-lan guzieri. Izadiaren irakaskizun garaiak azi zuten alako eder-azti bikaiña. Ikus zein barrena sartzen dan liburu zabal orren ikaskizunetan.

"Zeru izar onen ikusbitartea, izar-taldea urrenez-urren ta lerro lerroan txit eder agertzen baita, bakoitzak bere tokia utsegin bage idukiz, ez baitio bakoitzak auzokoari lekurik ostutzen, ez lanbidea eragozten, ez ta, bereaz aztuta, Jainkoaren Arretak ezarri-legea beiñere austen, pakearen errañu da, ta aren oiu ta gorespen bat, bere mintzo agerikoz adierazten baitigu, pakeak bere baitan zenbat ondasun dauzkan, eta gauza guzietan zer egiten duan. Oiu ta aldarri ori otsik bage oldartzen zaigu animetan, eta oetan sartuta egiten dunetik garbi ageri da zer eragin-indar duan. Eragin au, joera au, ez naski arrazoiketaz, bai ordea begi-ziztaz, begiztaldiz guregan sortzen zaigun eragin biguin au zan Leon'entzat eder-sumaren oiñarri-legea. "Errege" deritzaion izenean, Jesukristo graziaren bidez animaren Errege baita, eragin orren bidez adierazten du ariora. Buru-legeak ez bezala eragiten baitu biotz-lege orrek. Sortuzko legea ta grazi-legea ariora dira beren eragiñean, eta bataz esaten dana, besteaz ere ariora esan diteke, ta egiten du Leon'ek.

"Anima osoaren jabe baita, –grazia–, ala egingo du anima ere gorputz osoaz jabetu diten. Eta grazia, naimenaren eta adimenaren barneraño sartuz, eta izatearen eta indarraren barrena urasetuz Jainko-izaera ematen baitio, ta Jainko biurtzen baitu urbil; olaxe berebat egingo du animak, gorputz osoan barna oldartuz, eta aren izaera betea arturik, gogaki-antzeko biurtuko du".

"... Grazi-legeak ari au du: Kristok erabat bere arnasa ta osasuna bereen animetan, urbildu nai zaizkion animetan ugarituz, on egin-gogoa ugaritu egiten du, ta zentzuak egiten dion burruka egunero urritzen du. Ta batak eta besteak gero ta indartzenago dute diogun lege santu berezi au, ta animagan errorik barnenak egiten ditu, ta artaz erabat jabetzen da, zuzentasuna ta ontasuna ia jatorrizko zaizkiola".

Kristok emandako grazi-legeak, naimenean oldartuz, griña gaiztotik sendatzen du, ta maite du, ta ontasunera

eragiten dio, Jeremiasek Jaungoikoz igarri bezala... Nere legeak animetan ezarriko dizkiet, eta biotzetan idatziko dizkiet".

Berau adierazten du "Datorren mendeko Aita" deritzon izenean: "ortaz, sortzen gaituneko arnas-eragiñari jarraituz, gure animetara oldartzen dalarik, bera dan bezala jardutera esnatzen ta zirikatzen gaitu...".

Gure gaiari gagozkiola, bereola, lege onen bidez, ezarian ezarian ukitzen gaitu izadiak, liburuak baño obeki. Izadiak gure biotzean idazten dun oiu isil au, ots, onen ariokoa, aurrerago azalzen du "Pakearen Lenenburu" dalako artan, graziaren eragiña agertzen dularik: "Beraz, graziak naimenean egiten dun aurreneko lana, anima bera ontasun-lege eragingarri biurtzen du; ez on dana adierazi utsez, artara eragiñez ta maitaraziz baño. Len esan duguna, legea, naiz lege-ematea esan duguna, bitara diteke: lena, oi bezalakoa, zer egin edo ez egin gizoneri adierazten diena, nagusigoa dunak agerkiro aginduak idatziz, ta agerian aldarrikatuaz; bigarrena, esanez eta aginduz on dana iragarriz baño, joera emanez egiten da; artarako naigalea ta gogoa ezarriz. Edozerk, komeni zaion artarako gaia ta joera izatea, bere lege du, ta pilosofiak ola deitzen dio; biziera orrek tajutzen baitu, ta komeni zaionera orrek eragiten baitio, ta bere onera-bidean zuzentzen baitu; ta guzi oiek lege-lanak dira".

Agindu ta lege naspillatu asko erakusten dun eskolaren aldean, au da naski legea, idatzi bagea, jatorra, isilla, bereganako joera ematen duna, ta izadiaren begiztaldi atsedentsu orri dagokiona. Zillegi bekit azken-zati au aldatzea:

"Lenengo legea, ona izanik, ez da ordea lege eragillea, iragarrizko legearen joeraz-bestekoa balin ba da, ta ala baita gure gaiztakeriz. Baña bigarren lege au guziz eragilea da, ta au ezartzen du Kristok graziaren bidez gure animagan. Ontxen bidez idazten baitu bakoitzaren

naimenean, maitez ta aierrez, lenengo legeak paperean idazten duten beura. Ta larrutx-liburuetan eta arrizko naiz burnizko azaletan ixatxez edo ta zulatzaikiz ezarririk zeuden lege aiek, graziak naimenean aldatzen ta ezartzen ditu. Ta giza-belarrian ots eginez anima bildurtzen zun lege ua, graziak kolko-barrenean sartzen dio, ta ain gozo isurtzen dio, ala esan, animaren indar ta joera guzietan, bere atsegin ta naigale bakar biurtzen baitio".

Ariora esan bear dut eder-sumak ditun legeetaz. Eunka liburuak eta millaka legeak baño obeki, izadiari egin dezaiokegun begiztaldi samur ezariko orrek, ixil ixilik sartuko digu eder-legea egitazko eder-legea gure barrenetan. Eskola ontako legeak jatorrizkoak baitira, ta legun animan ezatzen diranak, ez dute gu oker-bildurrik eskoletako lege idatziak bezala. Oiturari gagozkiola, lenengo gogo-dardarak obenik ez duten bezala –aietan luzaro ari ez ba gera– ariora, gure kemenak beren jatorrizko joerari utziz, oker bage egiten dute lana gure barrenean; arrazoiketari leku eman ezkero, ostera, errez okertuko giñake. Ortaz, au bedi lenengo lege: izadiari batez ere, naiz gizon antzegilleak egin dituten laneri begiztaldi maitea egitea, ederraz ta antzeaz egin diran liburueri jaramon egin bage, ikaratzeko aiña baitira. Ta ez alare izadi-eskola bezala egizkoak eta betikoak. Ontara jo bear du beti edonoizko antzelariak, okertu ez dedin eta azibide jatorra ar dezan.

12. Begiztaldia (begiratu soila)

Izadiari begira gure kemen guziek ari duten jarduna, soin-jardunaren antzera jo dezakegu. Soin-jardunaren eredua au da: loadar guziak berdin edo beren lanaren ariora joka ditezela, ta batera joka ditezela. Ez uste izan, begiztaldi utsean gaudela, gaiñerako kemenak geldi

dauzkagula; orduan ari dira askotan beroenik eta jatorrenik. Bildur litzake, alegia, loadarrak bakoitza bere aldera ta bakarka jokatuko ba lira, ez dagokien eran azitzea, ta gorputzari egokitasuna kentzea. Orobat gure animaren kemenak banaka ari baitugu, errezenera joera aundia baitugu, artara griñatuko gera geiegi; zailena, ostera, azken lekura bialduko dugu, bearrago izanik ere. lkus idurimenarekin gertatzen zaiguna. Adimena bera ere, gauzetan elkartasunak eta ar-emanak errez arkitzen ba ditu, okertu diteke, ain eta buruzirietara ere griñatu baititeke. Izadiari begiratzean gure begiztaldi orren eredua au bedi: ezarian jardutea. Edo Leon'ek esaten diguna, "gure kemenak burubidean jartzea, bakoitzari bere alkia ta tokia utziz". Olako begiztaldia egiten zion, naski, izadiari, gizon onek. Anima asetzen zitzaion eta bere buruz gain igotzen, "bere diñako gogoeta goitarrak sortuz". Ordukoak eta oiek dira paperera aldatu bear diranak.

Izadiaren eragiña askotan sumagaitza dugu ta guri guria, geienez Ispiritu Santuarena bezala; alare guziz bizkorra ta oso betea. Ez uste alako latz-ikara ta sumiñaldi ta zoraldien bearrik dagonik, askotan goi-argi ta goi-bero exkaxagoa baitute. Gertatzen ere da, antze-lana egin zunak, ez argialdian ez egiñera ateratzekoan, olako dardararik senti ez izatea, ta alare irakurtzen entzuten edo so egiten ari danak bai. Onek arek baño argialdi obea izan al du? Ez iñolaz ere; bai bestera. Askotan, zirrara bizkor oiek osasun txarrari edo berezko aulagoari egotzi bear zaizkio. Gure alegiñak izadiaren eragiñari dagokiona egin bear du: ezarian begiratu, eragin ori okertu bage ta aterrarazi bage.

Adieraz dezagun au mistikuen erakuskizun batez. Ezarian begiratze ori ez da alper-egona; askotan jardun bizkorragoa. Garbi dio Santa Teresak "ez arrazoiketara jotzeko; erne egoteko, ordea, Jauna animagan zer ari dan". Au adierazi izan nai dut lentxeago, izadiari nola begiratu

ari nintzala; ez bedi arrazoiketa; begiratu soil gozo orren eragina okertu ta galarazi bailezake guregan; begiratua izan ditela, ez arrazoiketa, ez ta alper egona ere. Au bai gure animaren azibiderako bide ederra antze-gai ontan. Ola jokatzen ez geralako egiten ditugu ainbeste lan ta makets.

13. Batasuna

ltzuli gaitean berriro arako izar-talde artara, "guziak anaitasunean eta elkarri begira bezala, ta batak besteari argia bialduz, aundi ta txiki, maite-zantzuan ari dira begirapenez, ala esan, eta guziak batera beren argi-izpiak eta indarrak neurriratzen ditute batasun pakezkoan ipiñirik, ezin esan-alako batasun bizkorrean, indar ta zati ta aurpegi bana izanik ere". Au du izkutua Salinas'i musikaz egin zion Oda arek; aren animagan ageri baitira "griña nasiak ezarian ezarian atsedenez; isiltzen ta umiltzen baitira, nagusiena ta animagan jabe dana, arrazoia, bere eskubidea ta indarra artzera igo dedin, eta ikuskari eder onekin biotz arturik, bere diñako gogoeta goitarrak sortu ditzan, eta nolabait bere lenengo jatorriz oroi dedin".

Toma a cobrar el tino
y memoria perdida
de su origen primera, esclarecida.

Esaten baitu, Platon-kutsu apur batekin. Eta azkenik, lurkoi ta itsusi dan oro, bere lekuan ipiñiz zapaldu dezan. Ontatik sortzen da gogoetaren batasuna, ta naigale lañotsu bat, ondo ezarria alare, eder aztiaren barnean. Au da lirikaren neurria ta igurtzia, batez ere, zati bakoitza ta banakoa ari baten biltzen dituna; zeaztasunik bein beingoenera ere barreiatzen dan igurtzi leguna.

Gure animaren goialde ontako naigale au bage, gaiñerako antze-kemenak zuzendu, menderatu ta erakarri

egiten ditun naigale au bage, Oda gauza puskakia litzake, orain gerta oi dan bezala. Poesi legun onen izatea, batez ere Jaungoikozkoa balin ba da, gogo dan arenganako naigale aterbagea da. Ta bidean saiestu-iduri egiten ba da ere, zeaztasunetan, iduribideetan eta beste zenbait apaingarritan, ez ditu begiak bere mugatik okertzen, eta gogoeta tinko dauka "adimenak sortzen dunik gaineneko artan, obekienik dagokion artan". Bein esan, apaingarriak oro, beste ainbeste maila besterik ez dira, adimena aietan arrimatuz "bere erregin-alkian eseri dedin". Ontatik sortzen ere da kemen guzien berdin-joa esaten zaiona; bakoitza bere burubidean ipiñiz, "ta ezarian mendera ta batera jarriz", erregin dutenari mirabezkoa egiten baitiote, dagokien eskubidea besterik artu bage, asaldatu bage. Ola erakusten du izadiak, antzelariak ikasi nai ba du. Ez du eragotzi bear ezariango lan ori, izadi jakintsuak legunkiro ezartzen dion naigale ori. Zer indar izkutu ta jator ote du gure animak bere joerari jarraituz, zirikatu ta indar beartu bage? Ba doa bat mendira argialdi bila, esana dan bezala, ta animak bakartasunean eskatzen dionari leku eman bage, zer-ikusi ta zer-atzeman asten da, ustez idurimen argiz ta margoz aberastuko dulakoan. Giza-gaisoa! Lenengo zer-nolak iduribide, errañu ta abar arkitzean, bear ta bear eratu naiko du antzelan bat. Bigarren lege au ez betetzeaz gertatzen da gaurko ta betiko ikaskizun ta azibide oker au. Ez dio bere lanari berorik eta biribiltasun aundirik ezariko. Zer zoraldiren edo eder aztiren aztarren agertuko da burubiderik bageko puskaki oietan, batasunaren bizirik bage, idurimena adimenaz gain jarri-nai ortan? Damurik egin dugu amaika olako. Korapilorik ez duten puskakiak! Antze-lan on guzizkoak argatik ditugu ain bakan, beste errietan ere.

Ez da antzelari bikaiñagoa gauza asko aztarrenatzen dituna; gutxi bederen barrendik suma dituna baño. Ez da Jainkozalego ere gogoeta ugariago dituna, gutxiagorekin

aski duna baño. Antz-bizieran, Jainko-bizieran bezala, egi gertatzen da arako S. Iñazioren ua: "asko jakiñak ez du asetzen anima: gauzak barrendik sumatzeak eta dastatzeak baño".

Irakurrazu erabat, geldiro, "Pakearen Lenenburu" deritzaion jardun aren sarrera, ta an gertatuko zaizu labur nik luze esan dizudana. Oek ditu oñarri: izadiaren ukitu leguna, ezarian ezarian; orri dagokion begiztaldi maitetsua, ez espatsua; ortik sortuko da, ain ederki Leon'ek adierazten digun batasun eta bateratasun ori".

Ezin-utzia baita, "Artzai" izeneko jardun aren sarrera ere, eman nai nizuke emen:

"Artzaiek atsedena baitute mendi-bizieran, azi-orrazirik bage, ta an ez baitute saiestu ditzaken gauzarik, maitasun bizia ta sarkorra dute. Artako laguntzen die beti begiak mendi zabalean zeru-lurreri ta sorkaieri begira idukitzeak, au baita maitasun aren errañu garbi ta egiazkoa, edo obeki esan, ikaslekua. Beren artean adiskide agertzen baititu, ta burubidez, ta elkar laztandurik, ala esan, bateratasun arrigarrian. Eta batzuk besteen baitara sartuz ta elkarrekin batuz ta artu-emanez elkartze ta arreman orren bidez argitara oi ditute aizea ta lurra edertzen dituten gauzak". Ez al daukazu gogoan lentxeago biurtu dudan zati ua, alegia, "izar-taldeak lerroan, elkarri erantzunaz ta indar emanez, maite-zantzuan ari dirala"? Labur esan: pakea, atsedena, burubidea, batera-joa erakusten digu izadi-eskola onek, eta baita ontaz ongi baliatu diran antzelariak.

Beste araurik ozta bear litzake iru ok ongi bete ezkero, ortatik letorke kemen guzien azibide bikaiña ta berdin-jo ta batera-jo ori. Iduripenaren dirdaiak zirikatzenago du gaztedia, baña adimenaren menpeko da ori beti, ta bere lekuan egon bear du, ari erregin-lekua ostu bage. Izadiarenganako begiztaldi ori dugu Estetikarik bikaiñena gaur, biar, beti. Orren ukiturik eta argialdirik oarkiro

sumatzen ez ba dugu ere, egingo du bere lana gutxienik ustean, eta oso bestetara gaudela etorriko zaigu zenbait aldiz. Urteen buruan ere gertatzen da ori: olako indar izkutua baitu gure animak. Mendira goazenean, goazen bakarrik, eta begiak eta idurimena an emenka jauzika ibili nai ba dute, ezarian egoten asmatzen ez dutela, aldi batean begiak isteak ere lagundu dezake, batez ere aize-otsik, ibai-otsik, itsaso-otsik entzun ba ledi.

Erdi-sor edo erdi-aztu orri zor zaizkio antze-lanik oberenak. Antze-lanak ortan egiten omen dirala esan izan oi da. Noiz ta nola. Erdi-sor edo erdi-aztu egote ori, antze-lanaren aurreko argialdian bai, bear du, ta ortatik dario eder-lanari bere guritasuna; egitekoan, ordea, adi-menaren eragiña ta beste kemen guziena ere bear da, batez ere adimenarena. Bertso-egitea balin ba da, baita belarriena ere.

14. Irakurtzea

Aurreneko ikaslekua, aurreneko maisua izadia da; baña eder-lanak ikusiz, entzunez, irakurriz, antzerako as-ko ikasi dezake artarako danak. Irakurtzeaz Kintilian'en onua artu gogoan: "Optimus quisque legendus"; oberenak irakur bitez. Aurrena asti astiro irakurri eder-lan osoa; urrena, zatika aztertu, burubidea ikusi, adimen-idurimenak nola jokatzen diran ikertu: lanak batasunik eta borobiltasunik ba dun begieman. Ongi aztertu on-doan, berriro erabat irakurri aspertu arte, ta egin digun ukitua, zirrara, astiro auznartu. Gauzak berak, ona ba da, ortara eragindo digu.

Ele-ederraz esaten dana, orobat esana bedi gaiñera-ko antze-lanetaz. Margo-antze ederrak, mukulu-antze bikaiñak, musika garaia... ikusiz ta entzunez, antze-suma eder-suma, eder-agoa, landu egiten da.

15. Zenbait eder-era

Iru gisatako edertasuna bereizi oi dute zenbaitek: eder atsegiña, eder irrigarria, eder gaindizkoa; beste zenbait eder errukarriaz ere mintzo dira. Eder atsegiñaz luzeago mintzatu bage, ontaz ari baikera, egiz, beste oen adiera emanez izen batzuk asma ditzagun beintzat, gero norbaitek lan edatuagoa egin nai ba lu.

15. I. Eder irrigarria

Batez ere istiaketan edo komerietan du leku. (Istiak egin esaten da erderazko *remedar* ordez, eta ortatik eman dut istiaketa itza). Gertaera alai bat naiz gerta-antzeko ipui bat artzen du gai. Zenbait aldiz jardule nagusia edo protagonista bera izango da parragarri, zenbait aldiz gertagarria bera, baña beti du zerbait maitagarri ta atsegin. Gizon parragarria ateratzea, asmatzea ez da egoki, irri eragiten duna baño. Ba dira berenez gizon benazko ta begirapen aundikoak, irri eragiten dutenak, baña len bezain maite ditugu, ta argatik ere bai.

15.2. Eder errukarria

Ba dira gertakari latzak eta lazkarriak, zoritxarra goieneko mailean berekin dutenak. Oiek errukia ta damua sortzen digute, bildur zerbaitekin. Lengoak esan zun ederki: “horno sum, eta humanum a me nihil alienum puto”. Gizon naiz ta gizakirenik ez dirudit nereki ez dudanik. Au da eder errukarri onen iturburua. Gerori gerta leitiguken bildurra ez ba da ere, gure antzekoeri gertatzen zaienak ematen digun errukia. Atzo zorionako ta gaur gaiztoko, areztian zori oneko oraintxe gaiztoko. lkus, esaterako, Job santuaren bizitza. Olako gaia nola izan diteke eder? Nola adierazten zail ba da ere, ala zaigu,

beintzat, eta beste edozer baño len irakurtzera gogoak eramaten gaitu, berenez illea lazten duten gertakari ok. Nolabait atseden egiten dugu tragedi bat irakurri ondoan, edo ua jardunean ikusi ondoan, antzelari on danak eragingo du *katharsis* esaten ziotena. *Katharsis* au nola ulertu bear dugun adierazteko eleta asko ibili dute gizonak baña arierarik artzekoena au zait: atsedena, pake-giroa, bere onetara ekartzea.

15.3. Eder gaindizkoa

"Eder gaindizkoak eder soilla aundiz gaintzen du. Ederrak ein edo tamaña gisakoa nai baitu, ez txikiegia, ez ta adimenak begira-ala baño areagoa oso atzeman dezakena baño. Ez baitezake, alegia, gauzak ederraren pakerik eta atsedenik guregan sortu, guzia ezagumenak atzeman ezin ba deza. Ortaz, eder gaindizkoa itzez ola mugatu diteke: "Ezagumenaren begiratua gaindu dezaken gauza bikaiña."

Ondorioz ere eder soillaz-beste da; ederrak atsegin goxoa ta atsedena dakarren bezala, eder gaindizkoak arrialdia, itzala, ta iñoiz izu-ikara sortzen baititu. Eder gaindizkoak gai berekia mugarik eza du, Jainkoa, edo Aren egiteari dagokiona, edo Jainko-zantzu zerbait duna: oek baitira, ezagumenaren aurrera ekarriz, beren aundi osoan atxiki ez ditezkenak.

Eder gaindizko esaten zaie, ez ain egoki, sorkai eta giza-jarduneri, beren einean neurria gaintzean balin ba dute." (Urraburu, *Ontologia*, Ar. VII).

Eder gaindiko au "gure animaren aunditasunaren oiartzun ozen bat" dala dio Plotin'ek, eta isilgunean ere agertu ditekela. Jesukristo bere Nekaldian baitzaigu eder gaindizko, batez ere, mintza zitekela, ta beste edozein nai ta nai ez mintzatuko zanean, isildu zalako. Baitakigu gaiñera "Ni nazue" esanez, etsaiak lurjo zutela. Liburu san-

tuetan maiz arkitzen da eder gaindizko au, ta gero, munduan izan diran antzelaririk aundienetan. Eder gaindizko au ez dute bestelako apaingarriak sortzen. Gaiñerako eder-mota guzietan iduribide, adibide, izkuntza gozo ta legun, ondo erabilliak dira; eder gaindizkoan berriz, itzak ere laburrenak, jatorrenak, bizkorrenak bear dute.

Eder gaindizko au edatuzkoa ta indarrezkoa dala diote Kant ezkero. Legerik ematea ta asmatzea neke ta alper litzake, ez baititeke itzez erakutsi.

15.4. Polita

"Ederrak polita ere aundiz gaintzen du: eintsua ta beste bear diran zer-nolak izanik ere, txiki ba dira polit deritzaie". (Urraburu, 1. c.) Txiki guzia polit, dio gure esaera zarrak.

15.5. Txairoa

"Zenbait aldiz txairoa (*gracioso*) polit ordez esaten ba da ere, batez ere jarduneri ta eragiñeri dagokio txairotasuna. Gorputzaren egiñ-eragiñetan egokitasuna dala esan diteke: ibilleran, jazkeran, jarduera guzietan begira dagonari atsegin ematea. (Ibid.).

Atsegin ori ez da aundia, atsegin murritz bat, parmurritza eragiten baitu. Ala argitzea, irri-urratzea besterik ez dala esan diteke. Biguin eragiten du aspertu bage, maitagarriro erakartzen du beregana.

15.6. Gogaldi ona

Gogaldi ona esaten diogu umoreari, ta ori darion antzea, eder atsegiñera sail dezakegu. Atsedena ta patxara ditu berekin. Gogaldi oneko gizona ba dakizu zer dan: onbera, gizartekoa, gorrotorik ez duna, gauzeri bear

bezala begiratzen diena, bere lepotik ere irri egiten duna, besteren ez-egitekoak eta okerrak asarrerazten ez dutena. Olakoak, berez irrigarri dan gauza ere atsegingarri biurtuko du besteren kalterik bage.

16. Antze-gisak

Begiz ta belarriz sartzen zaizkigunak dira antze-gisa guziak: margo-antzea ta mukulu-antzea (*artes plásticas*), begiz, ele-ederra ta musika, belarriz. Geldi-egonezkoak eta jardunezkoak ere esan ditezke bestera; baña ele-ederrean ere gertatzen dira jardunezko ez diranak.

16.1. Ele-ederra

Ola derizkiot Literatura'ri, naiz izketa askatuan, naiz neurtuan. Eta naiz izketa askatuzkoak naiz neurtuzkoak, berebat, beste bietara ditezke esanezko ta jardunezko.

16.2. Gerta-jakintza

Gertaerak adierazten ditu ta historia deitu diote. Bitarakoa da: eguzkiaren azpikoa, ots, mundu guzikoa, ta nonbaitekoa. Naiz bata naiz bestea, izan ditezke erabateko edota bakoizkako, ots, gauzak erabat edota gauzak bakoizka adierazten ba ditu. Azken ontara datoz aldizkako gertariak (*crónicas*) eta oroitzapenak, (*memorias*) eta bakar-gertariak (*monografías*) eta bizi-gertariak (*biografías*).

Ez noa arau zearorik bakoitzaz ematea, ez baitut ori asmo, izen-asmatzen saiatzea baño. Gauzak jalkitzea du lenik, egiz, jatorriz, agiri-bidez edo garbitasunak erakutsiz; baita ordea aztertzea ere, iritzia ematea, ta bizibiderako zenbait erakuskizun ateratzea ere: "magistra vitae" bizitzarako irakaslea baita.

16.3. Ipui-berria

Oni izena asmatzen egiñalak egin dira, baña ez dirudit oso artzekorik. Neronek iñoiz "Erroma-ipuia" esan izan diot, "Tabula romanensis" euskeratuz. Orain "ipui-berria" deitzen diot, "novela"tik artuta.

Bitarakoa da batez ere: *oiturekikoa*, ta *gertakarizkoa*. *Jakintzazkoa* ta *gogo-azterketazkoa* ere asmatu ditute baña ez oso zuzen, nere ustez.

16.4. Mintzo-antzea

Mintzatuz besteri eragitea asmo dun antzeari mintzo-antzea *eloquentia* deritzokegu. Antzinakoek esana zuten: "regina artium a priscis apellata" antze guzien erregiña zala. Dana dala, mintzo-bidez egiten ta eragiten du, naiz zabaldi agerikoan, naiz mintza-alki batetik. Edozein itzi, idatziri ta abar ez diogu mintzo-antze esaten, mintzatuaren berorik ez baitute berekin, askotan paperean ere agertzen duten arren.

Luzez eintsuko mintzaldi batek zer eragin-indar dun bein edo bein ikusiko gendun, baña ba dira mintzaldi labur goriak ere, arengak, esaterako, gudariei egiten dizkienak. Itz batez nolabait esan su-mintzaldi esan bearko, biotzak su ta gar biurtzen baititu.

16.5. Antze-elea

Baitipat poesia'ri esaten diote egun antze-elea, antzerik garaiena luken gisan. Beste ele-eder gisak oro ba dukete antzea berekin, egia; baña gaurkoz edertasunari ere iñoiz poesia esaten zaio: ez du poesirik, ez du edertasunik. Edozelako mintzaerak ba du bere igi-neurria edo ritmoa, baña antze-ele onek bereizia eskatzen du. Ori utsa da ordea, aditzapenetan neurri ori ez ba du. Bertsoak,

alik ongiena neurtuak ere, barnean antzerik ez ba dute, izketa askatua baño itsusigoak dira berenez. Alkar-izketa bat ez al da musikaz ugariagoa, erabateko neurri zurrun ua baño?

Bertso-gisak eta ahapaldiak eta abar adieraztea ez dagokit orain.

16.6. Irakaskizunezko-antze-elea

Jakintza-gauzak, oiturazkoak, eginbidezkoak, itz neurtuetan eman-oitura ba da antziñatik. Ikus Salomon'en esan zuurrak, Dabid'en zenbait Salmu, Horatius'en *Epistola ad Pisones*, eta abar. Zenbait aldiz zipoa ere berekin du, batez ere euskerazko bertso berrietan. Orain asko galdu dira, baña len edozer gauza aski zuten, neska batek mutillari etsipena eman ziola edo; ta okerren bat zuzendu nai zutenean, jendea kuzkurrerazten zuten.

16.7. Biotz-barneko antze-elea, biotz-kanta

Norberak bere naigaleak agertzen dituneko antze-eleari *lirika* izena ezarri zioten antzinakoek, liraren otsa lagun kantatzen baitziran. Egun-urratze aren pozetik asi ta illuntzearen naigabea bitartean, jaiotzaren pozetik eriotzaren atsekabera bitartean diran naigaleak oro, bai ugari, emen dute leku. Gaur zenbaitek negarkera ezartzen diote biotz-barneko antze-ele oni, biotzaren beste ixurki guziak itxiz. Edozein barne-eragini barnemin izena ezarri bear liokete olakoek. Lirika arlo ontan sailkatzen dira alaitasunezko, pozezko, zorionezko, garaitasunezko, maitezko, gogaldi oneko barne-eragiñak ere. Betiko negartientzat bego "atsekabe-kanta" antziñakoek "elegia" esan ziotena: au ere sail ontara dator. Eztai-kanta *epitalamium,* anakreon-kanta, ta bakoitzak asma lezazkenak oro, barne-eragiña dute etorburu. Kanta esan euskeraz

ere, gure barne eragiñak kantaz ematen baititugu beti bertsoetan. Sail ontan ezin-utziak dira Jainko-kantak edo *himnoak*, kantagai Jainkoa dutenak. Azken aldi ontan okertu egin dute *himno* oien adiera, ta guduantzeko ibilneurrian tankera eman die zenbaitek, bai gaiean, baitu musikan ere.

16.8. Gizagurenena ots, epika deritzon antze-elea

Gizagurena naiz errien eginkizun garaiak antze-elez ematen ditu epika dalako onek. Gizagurenen bat Homer'ek Akileu bezala, naiz erri bat Gamoes'ek Portugal bezala, du kantagai. Gizon baten eginkizunen inguruan mordoratzen ditu erri batenak, esanezko keran naiz elkar-izketazkoan, zeaztasunak eta iduribideak ugari ditula.

Heroica ere esan baitzioten, gizagurenekikoa esan genezaioke.

16.9. Jarduteko edo jardunezko antze elea

Izanezko naiz asmatuzko bizi-zati bat iduritatzea du asmo jardun-antze onek. Irutarakoak ditezke bizi-zati oriek: irrizkoak, errukarrizkoak, eta agizkoak. Iru jarduera oieri komedia, tragedia ta drama esaten die. Jarduera irrigarria, Baxenabarren deitzen dioten bezala, *urragarria,* komeriarena, ots, *komikua;* lazgarria, negargarria, *errukarria,* tragediarena; guzierakoa berriz agizko jardunarena. Jardule nagusia (*protagonista*), jardun-lagunak (*personajes*), eta jardule arerioa (*antagonista*), alkar-izketaz ari dira iru, lau, bost ataletan edo jardunalditan.

Jardun-antze oni dagozkion izenak argitara emanak dira eta Euskalzaindiak bein beingoz ontzat emanak. Nik beste aldera jarriko nituke, jardun itza oiñarri ipiñiz. Jardun-antze = *arte dramático*; jardun-lagun = *personajes*; jardunaldi = *actos*, da abar.

17. Eder-iritzia

Zenbaitek eder-agoa eder-sumarekin bat jotzen dute. Ta ala da aldez. Ortaz eder-agoaz, luzaro jardungo ez ba dut ere, izena eman bear beintzat "gusto" esaten dioten oni. Eder-agoa naiz eder-suma ta eder-iritzia aldez bana dira. Sukal-andre maratzak goxatutako janari ago oneko derizkiogu geienak, baiña ain ago ona zergatik digun ez dakigu. Berak bai, alako ta olako onkailu dulako. Berebat gerta oi da antze-gauzetan ere. Askok miazten dute edertasuna, baiña gutxik irizten diote zer jatorri dun. Gizonak bere animagan du ago-sapai edo ori, ta zenbaitek naimenari dagokiola diote, eder-iritzia adimenari dagokion bezala. lkasiz obetu diteke, egia, baiña eder-ago ori berezkoa du gizonak. An eta emen zenbait janariedari atsegin ba dira ere, toki geienetan eta guzietan atsegin emango dutenak ba dira, len esan dugunez. Ederra beti bat da, alda-ezina, ta ua dakusatenak berdintsu ikusi ere egiten dute. Ala da izan ere.

Ago-sapaia ere gorbizitu diteke ordea, alako ta olako janarietara oituz. Beti ordea izango du zenbait janaritako ezin galduzko txestua. Ez zaio erabat galduko.

Eder-iritziz edo kritikaz, len esanari nagokio, batez ere Argialdia deritzaion zati artan. An dago oinarria. Arau aiek ongi bete ezkero, ez da besteren bearrik. Ezin-utzia da ordea eder-ago ortaz errietan gertatu diran gora-berataz zerbait esatea.

17.1. Itxura-naia

Okerrena dalako jartzen dizut aurrena. Ortatik asten da bere bidean antzea. Gauza ederrik ezin asmatu dunari, ta al izanda ere agoa galdu dunari, asmakeritan astea gogoak ematen dio. Asmakerizko gauzak iduri zaizkio eder. *Asma-naia*: "conceptismo*"; asmakerizkoa*: "concep-

tuoso", adierazi nai dut. Onen urrena beste naikeri bat dator*: maisu-naia*: "pedantería". Bestela ederrik agertzeko gauza ez danak, jakintasuna agertu nai du neurriz gaiñetik. Urrena, bere antze-gauzak berotasunik ez dula igartzen dionak, agoa puztu egiten du, aundikeri bila naiz gauzetan naiz itzetan durundia bilatuz. Iru naikeri oieri *itxura-naia* esan diet, *afectación*, alegia.

17.2. Jatortasuna

Antzinateko idazle onari, –Erromako ta Grezikoeri– mailako idazle esan oi zaie, *classicus*. Euskeraz ez baitator ordea egoki, saia nadin bestera. Klase oneko lurrari "aitor oneko lurra", esaten baitiogu, klase oneko idazleari aitor oneko idazle, ots *idazle aitor* esaiogun, eta *clasicismus'i* aitortasuna. Batez ere antzinakoeri esaten zaie aitor oneko, baiña mendez mende agertu dira gerozkoan ere olako idazleak an emenka.

17.3. Jator-itxura

Zenbaitek oker ulertu dute, ordea, aitortasun ori, ta onerako bear zitzaiena galgarri baiurtu zaie. Ez uste izan naiz Erromako naiz Greziko idazle aiek idazkera berbera zutenik, berezko doaiak baitzituten, eta bakoitzak bere eskola edo landubidea. Ortaz, ondo jokatu ezkero, bakoitzak bere aurpegia, bere jabetasuna bear. Amaseigarren mendean azaldu ziran ordea aitor-naieko zenbait idazle, Grezitarren eta Erromatarren idazkeraren berberaren istiak egiñez. Pizkundea esan zioten, oso osorik esan Aitor-pizkundea, ots, antziñako idazle aitor aien kera piztu-naia. Joera onekin batean, onek osotara ekarri ez ba zun ere, sortu zan Elizaren eraberri-naia, oituretan ez ezen lati-izkuntzan berean ere. Elizak, bere lati-izkuntza mordoilloan gauza eder ederrak asmatu izan ditu aitor-

naieko gizon oien otz-epelkerien aldean. Besteren istiak egin, edota bere buruzko ta oldezko eragiñak agertu, batetik bestera dagon aldea zegoan idaz oetatik antziñakoetara. Gaitz oni "clasicismo rigido" izena eman diote, ta guk aitorkeria esaiogun. Izan ziran bai orduan ere banaka banaka, beren eder-agoa galdu ez zuten zenbait gizon; baiña oiek ere ba dute beren maisu-naieko kutsua, aien ipuiketa edo mitologia norberen erri-jakintzaren ordez darabiltela.

17.4. Berri-naia

Aitorkeri orrek berorrek ekarri zun izugarrizko berri-naia. Aztu-bearrekoa zan antziñakoen ipuiketa, sartu-bearrekoa nork bere errikoa, ta agertu bearra lengoek baztarreratu zuten erligioa ere. Berri-naieko ok ere geiegikeri askotara jo zuten baina Ele-ederraren osasunerako izan zan zenbait gauzetan.

17.5. Eredura-naia

Erria bezain aldabera esan diteke Ele-ederra ere. Batzuk arontzaegi, besteak onontzaegi: erdian gelditzea neke baita. Antziñakoen izadi-eskola alde batera urruñaturik utzita. Ametsak, izukariak, beste mundukoak, sorginkeriak, lillurakeriak gai arturik eredura ordez arneskerietara jo zuten.

17.6. Izadira-naia

Ametsetan ere aspertu baitziran, atzera izadi soillera jo zuten, onena beste edertasunik ez zala ta. Ametsak ere ba dira ederrak, ordea, ta gizonari beti zerbait amesteak on egiten dio.

17.7. Gordinkeria

Nolabait esan "naturalismo", izadi osoa, bere makar ta guzi edergaitzat artu zun joera. Loia bera, gaiztakeria bera azaldu-bearra zan, ederra baitzerizkioten. Artarako obea zan eta berela galdu zan.

17.8. Gerozko gaitzak

Oraiñaldian ere, gaitza obeki osasuna baiño, gizonen ago-sapaiean. Izen utsengatik merezi dute aipatzea oraintsuko edo modernista'k, gerorako edo futurista'k arontzagoko edo ultraistak, eta abar. Ez nituke aztu-nai parnasiar, igarkizunzale eta *sinbolo*-zaleak ere, amaika gezurasperen (*suspiros de falsete*) eman baitigute. Oen artean ere gizon banaka batzuk eta lan-egin banaka batzuk ez dira erabat baztarrean botatzekoak.

Bein esan ta beti esan, izadia oinarri dala, etortasuna edo berezkoa bear du antzelariak, lan-ugaria naiz lan urria dedin. Olako gisaz, ez du bere doairik alperrik galduko, ta ez du lan-lardaskarik egingo.

(*Euzko-Gogoa*, 1-2, 1951/5-12, 1955)

Kritika literarioa

BILDUMA

1. Jon Kortazar: *Diglosia eta euskal literatura*, 2002
2. Iratxe Gutierrez: *Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza*, 2002
3. Orixe: *Euskal literaturaren historia laburra*, 2002
4. Paulo Iztueta: *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Testu hautatuak euskal estetikaz*, 2002